

***Komunitate eraldatzaileak
ehuntzen:
ekintzaitza sozial
kooperatibo estrategikoen
erreplikarako baldintzen
analisia.***

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

GEZKI-UPV/EHU Ikerlari taldea

Pablo Arrillaga , Aitor Bengoetxea, Jon Morandeira, Enekoitz Etxezarreta (Koord.)

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Sarrera

Jarraian aurkezten dugun ikerketa lanak Euskal Herri mailan estrategikotzat jotako zenbait sektoretan abian diren egitasmo komunitarioen analisia burutzea du xede, horien erreplikarako gakoak zehazteko asmoz.

Ikerketaren emaitzak material erabilgarriak eskaini nahi lituzke beste inork beste eskualderen batean egitasmo komunitario bat martxan jarri nahiko balu, arreta bereziz landu beharreko aspektuei zehatzago erreparatzeko.

Ikerketa lanean, beraz, kasu ezberdinen dokumentazio lan zehatza egiteaz batera, kasu guztientzako edo egitasmo komunitarioentzako oro har gakotzat jo genitzakeen elementuen analisi alderatua ere egingo da.

Lanaren lagina, metodologia eta edukiak

Estrategikotzat jotzen diren esperientzien lagina osatzeko hiru inklusio irizpide nagusi gurutzatu dira:

- Koopfabrikaren xede nagusietarako estrategikoak diren sektoreetan jardutea
- Kontsumo edo ekoizpen-komunitate sendoetan oinarri hartuz eta;
- Eskalabilitate gaitasun esanguratsua agertzen duten esperientziak izatea

Hiru irizpide horien gurutzaketatik honako esperientziek osatzen dute jarraian garatzen den lanaren muina:

- **Elikadura: EREINDAJAN**, Bergarako denda kooperatiboa
- **Energia: EKIHERRI**, Oreretako energia komunitatea
- **Plataforma kooperatibismoa: ERAMANKOOP**, Gasteizko kooperatiba
- **Zaintza: MAITELAN**, Hernaniko zaintza kooperatiba
- **Kultura: AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA**, Laudioko kooperatiba
- **Finantza etikoak: EKHILUR**, Bilbo eta Hernaniko ordainketa sistema digitala
- **Herri kooperatiba: BAKAIKUARROK**, Bakaikuko denda kooperatiboa.

Landa lana aurrera eramateko, kasu bakoitzaren dokumentaziorako lehen eta bigarren mailako informazio iturriak baliatu dira: informazio publiko (web orriak) eta barne dokumentazioaren (Estatu Sozialak, Barne Araudiak, aktak, urteko balantzeak...) lanketa sakona burutuz gain sakoneko elkarrizketa bana egin zaio esperientzia bakoitzeko erreferentziazko pertsona bati.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Elkarriketa horiek garatzeko erabilitako gidoian (**I. Eranskina**) jaso dira ikerketak jorratu dituen eduki nagusiak. Honela, kasuen dokumentazioa, bai eta ondorioen atala, bi zati bereizitan aurkezten da: esperientziaren analisi deskriptiboa, alde batetik; eta esperientziaren erreplikarako gakoaren analisia, bestalde.

Atal horietako bakoitzean honako edukiak garatu dira:

1. Esperientziaren deskribapenean:

- **Negoio ereduaren azterketa:** non landu baitira kokapenaren analisia, ideia-produktua-zerbitzua, harremanak-komunikazioa, egitura ekonomikoa eta balantze sozio-ekologikoa.
- **Barne komunitatea:** bertan aztertu direlarik lau kolektibo nagusi: lan bazkideak, bestelako bazkideak, soldatapeko lana eta lan boluntarioa.
- **Kanpo komunitatea eta lurraldea:** jaso nahi izan delarik egitasmoen txertatze maila lurralde ekosistema komunitarioan, tokiko ehun enpresarialean, lurralde ekosistema kooperatiboan eta lankidetzaren publiko-komunitario-kooperatiboko dinamiketan.
- **Azterketa juridikoa:** Estatutu Sozialen eta Barne Araudiaren lanketaren bidez.

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

- **Elementu gakoaren zehaztapena:** deskribapeneko bloke bakoitzean bereziki zaindu beharreko elementuen azterketa
- **Esperientziaren AMIA** burutzea, esperientzien indargune eta ahulezien gain, horien erreplikarako aukerak eta mehatxuak identifikatu asmoz

Ikuspegi juridikoaren lanketa

Aztertu ditugun zazpi esperientzien ikuspegi juridikoa lantzeko orduan, ondoko hiru iturriak hartu dira aintzat kasu bakoitzean:

- Aplikagarri den legea: zazpi kasuen artean hiru lege desberdin dira aplikagarri
 - Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea, ekainak 24koa)
 - Euskadiko Kooperatiben Legea (11/2019 Legea, abenduak 20koa)
 - Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiari buruzko Legea (6/2008 Legea, ekainak 25koa)

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- Nafarroako Kooperatiben Legea (14/2006 Lege Forala, abenduak 11koa)
- Estatutuak (kasu batzuetan Barne Araudia ere bai)
- Elkarriketan esan digutena. Besteak beste, kooperatibaren hautua zergatik egin duten jakiteko balio izan digu.

Hiru iturri horiek alderatuz, esperientzia bakoitzaren egitura juridikoaren mamia eta zentzua ulertzeko saiakera burutu da. Ikuspegi juridikoa sistematikoki lantzeko, zazpi kasuak gaien ondoko sailkapen komunaren arabera landu dira ditugu:

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa
2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa
3. Kooperatiba mota
4. Lurralde esparrua
5. Bazkide motak
6. Erabakimen politikoa
 - 6.1 Organo sozialak
 - 6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema
7. Erabakimen ekonomikoa
 - 7.1 Gutxieneko kapital soziala
 - 7.2 Derrigorrezko ekarpenak
 - 7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa
8. Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: araubide orokorra ala autonomoen araubidea
9. Gatazkak konpontzeko, arbitraje kooperatiboko sistema hautatzen den ala ez

Hautaturiko gaien legezko araubidea

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzaitza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Jarraian, hautatu diren 9 gaitan legeek zer dioten aztertuko da. Modu horretan, kooperatiba bakoitzak, bere estatutu eta jardueran, errespetatu behar duen oinarritik abiatuko gara.

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa

4/1993 Legeak argi zioen, eta 11/2019 legeak hitzez hitz errepikatu du, kooperatibek edozein jarduera ekonomiko edo sozial egin dezaketela, legez espreski debekatua ez badago, kooperatibismoaren oinarritzko printzipioen kontra joateagatik. Nafarroako 14/2006 Legeak, ildo beretik, kooperatibek edozein jarduera ekonomiko-sozial egin dezaketela dio.

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Legediak, jarduera ekonomiko bat abiatzeko orduan, printzipioz edozein figura juridiko hautatzeko aukera ematen du, besteak beste, kooperatiba.

3. Kooperatiba mota

Kooperatibizatzen den jarduera ekonomiko motaren arabera, aztertu ditugun kooperatibak hauetariko mota batekoak dira:

- Lan elkartuko kooperatibak
- Kontsumo kooperatibak
- Kooperatiba integralak (lana eta kontsumoa barneratzen dute)

Hiru legeen artean zaharrena den 4/1993 Legeak ez zituen aurreikusten kooperatiba integralak. Salbuespen hori alde batera utzita, hiru legeek aipaturiko hiru kooperatiba motak aurreikusten dituzte.

4. Lurralde esparrua

4/1993 Legeak eta 11/2019 Legeak gauza berbera diote: bere eraginpean daudela Euskal Autonomia Erkidegoan sozietatearen egoitza duten eta batez ere lurralde horretan beren kooperatiba-jarduera betetzen duten kooperatibak.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

Nafarroako 14/2006 Lege Foralak dio aplikagarri zaiela sozietate-jarduera nagusiki Nafarroan duten kooperatibeei, hirugarrenetik harremanak edo haien xederako jarduera instrumentalak lurralde horretatik kanpo betetzen badira ere.

Ikusita EAE zein Nafarroako Legeek ez dutela behartzen jarduera ekonomikoa hertsiki Autonomi Erkidegora mugatzera, uste dugu hobe dela kooperatibek estatutuetan kokatuta dauden Autonomia Erkidegoaz haratago jarduteko aukera aurreikustea.

5. Bazkide motak

EAE zein Nafarroako Legeek bazkide mota desberdinak onartzen dituzte, arruntenak izanik langile-bazkideak; bazkide erabiltzaileak; eta bazkide laguntzaileak.

Bakaikuarrok kooperatibaren kasuan, estatutuetan zerbitzuko bazkideak jasotzen ditu. Nafarroako Lege aplikagarriak ez du espreski figura hori aurreikusten, baina zilegia dirudi, lege horrek zerbitzu kooperatibak jasotzen dituelako, eta baita ere kooperatiba integralak. Bakaikuarrok kooperatiba integrala da, eta estatutuetan espreski zerbitzu kooperatibaren ezaugarria jasotzen du.

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

EAE zein Nafarroako Legeek diote ezinbestekoak direla Batzar Nagusia eta ordezkaritza eta kudeaketaz arduratuko den beste organo bat (Artezkaritza Kontseilua, edo administrari bakarra).

- Artezkaritza Kontseilua; edo administratzaile bakarra, bazkideak 10 baino gehiago ez direnean (4/1993 Legea eta 11/2019 Legea)
- Artezkaritza Kontseilua, gutxienez 3 kidekoa; edo administratzaile bakarra, bazkideak 10 baino gutxiago direnean (14/2016 Legea)

Hortik aurrera

- Kontuhartzailatza (derrigorrezkoa 14/2006 Legean)
- Zuzendaria (hautazkoa 14/2006 Legean)

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- Letradu aholkularia, derrigorrezkoa, urteroko eragiketen bolumena 3 milioi eurotik gorakoa baldin bada (14/2006 Legea)
- Zaintza batzordea: gutxienez 100 bazkide baldin badaude (4/1993 Legea, eta 11/2019 Legea).
- Kontseilu soziala: langile-bazkide edo lan-bazkideak 50 baino gehiago baldin badira (4/1993 Legea); erabat hautazkoa (11/2019 Legea).
- Errekurtsoen batzordea: hautazkoa (4/1993 Legea, 11/2019 Legea, eta 14/2006 Legea).

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

- Printzipio orokorra: bazkide bakoitzak boto bat (4/1993 Legea, 11/2019 Legea, eta 14/2006 Legea).
- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe (4/1993 Legea, 11/2019 Legea). 14/2006 Legeak Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar dela dio, baian ez du espreski esaten boto zuriak eta abstentzioak ez direla zenbatu behar.
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desagitea erabakitzeko (4/1993 Legea, 11/2019 Legea).
- 3/5eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, edo zatitzea edo desagitea erabakitzeko (14/2006 Legea).
- Kooperatiba desagiteko prozedura estatutuek edo Batzar Nagusiak zehaztuko dute (14/2006 Legea).
- Bazkide laguntzaileen, bazkide ez erabiltzaileen, eta aldi baterako bazkideen batura ezin da heldu boto guztien erdira (4/1993 Legea, 11/2019 Legea).

7. Erabakimen ekonomikoa

7.1 Gutxieneko kapital soziala

- 3.000 euro (4/1993 Legea, 11/2019 Legea)
- 1.500 euro (14/2006 Legea)

7.2 Derrigorrezko ekarpenak

- Bazkide bakoitzak 60 euro (14/2006 Legea)

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzaitza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- Kopuruak estatutuetan erabakiko dira, eta desberdinak izan daitezke bazkide mota desberdinentzat (4/1993 Legea, 11/2019 Legea)

7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa

- Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %30a (14/2006 Legea)
- Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %20a (4/1993 Legea, 11/2019 Legea)
- Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a (4/1993 Legea, 11/2019 Legea)
- Derrigorrezko Erreserba Funtsaren kopurua kapital sozialaren %50era heltzen denean, gutxienez soberakinen %5a Heziketa eta Sustapena Funtsa hornitzeko erabili beharko da
- Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke (14/2006 Legea)
 - Itzulkin kooperatiboak ordaintzeko.
 - Soldapekoei ordaintzeko
 - Borondatezko Funtsak hornitzeko
- Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - Itzulkin kooperatiboak ordaintzeko (4/1993 Legea, 11/2019 Legea)
- Soldapekoei ordaintzeko (4/1993 Legea, 11/2019 Legea)
- Borondatezko Funtsak hornitzeko (4/1993 Legea, 11/2019 Legea)
- Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko (4/1993 Legea)

8. Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: araubide orokorra ala autonomoen araubidea

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- Kooperatiba bakoitzak hautatuko du, bere estatutuetan, ea langile-bazkideak araubide orokorrean ala autonomoen araubidean kokatzen dituen (4/1993 Legea, 11/2019 Legea, eta 14/2006 Legea).

Araubide orokorrarekin alderatuta, autonomoen araubidea merkeago izaten da, eta, horren ondorioz, jasotzen diren prestazioak eskasagoak ere.

9. Gatazkak konpontzeko, arbitraje kooperatiboko sistema hautatzen den ala ez

- Kooperatiba bakoitzak hautatuko du, bere estatutuetan, ea sor daitezkeen gatazken ebazpena Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren baitan dagoen Arbitraje Kooperatiboaren Euskal Sistemaren esku uzten dituen, botere judizialera jo baino lehen (4/1993 Legea eta 11/2019 Legea).

Uste dugu positiboa dela aukera hau baliatzea. Arbitro horiek zuzenbide kooperatiboan adituak dira, epaileak baino gehiago normalean, eta prozedura arbitrala epaiketa baino ximpleagoa eta azkarragoa izaten da.

Lanaren aurkibidea

KASUEN DOKUMENTAZIOA	14
EREINDAJAN	15
1. Esperientziaren deskribapena	16
1.1. Negozio ereduaren deskribapena	16
1.2. Barne komunitatea	20
1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea	23
1.4. Analisi juridikoa	24
2. Esperientziaren erreplikarako gakoak	28
2.1. Elementu gakoaren zehaztapena	28
2.2. AMIA analisia	30
EKIHERRI	32
1. Esperientziaren deskribapena	33
1.1. Negozio ereduaren deskribapena	33
1.2. Barne komunitatea	39
1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea	40
1.4. Analisi juridikoa	41
2. Esperientziaren erreplikarako gakoak	45
2.1. Elementu gakoaren zehaztapena	45
2.2. AMIA analisia	46
ERAMANKOOP	48
1. Esperientziaren deskribapena	49
1.1. Negozio ereduaren deskribapena	49
1.2. Barne komunitatea	52
1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea	53
1.4. Analisi juridikoa	54
2. Esperientziaren erreplikarako gakoak	58
2.1. Elementu gakoaren zehaztapena	58
2.2. AMIA analisia	59
MAITELAN	62
1. Esperientziaren deskribapena	63
1.1. Negozio ereduaren deskribapena	63
1.2. Barne komunitatea	68

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

1.3.	Kanpo komunitatea eta lurraldea.....	69
1.4.	Analisi juridikoa	70
2.	Esperientziaren erreplikarako gakoak	75
2.1.	Elementu gakoaren zehaztapena	75
2.2.	AMIA analisia	77
AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA		80
1.	Esperientziaren deskribapena.....	81
1.1.	Negozio ereduaren deskribapena.....	81
1.2.	Barne komunitatea.....	86
1.3.	Kanpo komunitatea eta lurraldea.....	89
1.4.	Analisi juridikoa	90
2.	Esperientziaren erreplikarako gakoak	94
2.1.	Elementu gakoaren zehaztapena	94
2.2.	AMIA analisia.....	96
EKHILUR.....		98
1.	Esperientziaren deskribapena.....	99
1.1.	Negozio ereduaren deskribapena.....	99
1.2.	Barne komunitatea.....	107
1.3.	Kanpo komunitatea eta lurraldea.....	110
1.4.	Analisi juridikoa	113
2.	Esperientziaren erreplikarako gakoak	117
2.1.	Elementu gakoaren zehaztapena	117
2.2.	AMIA analisia.....	118
BAKAIKUARROK.....		120
1.	Esperientziaren deskribapena.....	121
1.1.	Negozio ereduaren deskribapena.....	121
1.2.	Barne komunitatea.....	125
1.3.	Kanpo komunitatea eta lurraldea.....	126
1.4.	Analisi juridikoa	128
2.	Esperientziaren erreplikarako gakoak	132
2.1.	Elementu gakoaren zehaztapena	132
2.2.	AMIA analisia.....	134

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

ONDORIO OROKORRAK.....	136
1. Azterturiko esperientzien ezaugarritze gakoak.....	137
1.1. Negozio ereduaren ezaugarri gakoak.....	138
1.2. Barne komunitatearen ezaugarri gakoak.....	142
1.3. Lurralde txertatzearen ezaugarri gakoak	145
2. Azterturiko esperientzien erreplikarako gakoak.....	148
2.1. Izaera kolektibo komunitarioa	149
2.2. Baldintzapen ekonomikoak	150
2.3. Lurralde txertatze maila	151
Erreferentzia bibliografikoak.....	152

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

KASUEN DOKUMENTAZIOA

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

EREINDAJAN

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

1. Esperientziaren deskribapena

1.1. Negozio ereduaren deskribapena

Ereindajan egitasmoa Arrasaten sortu zen Elkartek formularekin. Elkartean batutako eragileek bultzadaz denda bat ireki zen Arrasaten eta langile batzuk kontratatu ziren dendaren kudeaketarako. Helburutzat eskualde mailako irismena edukitzea finkatu arren, praktikotasun arrazoiak medio egitasmoak ez zuten Bergarako herritarretara heltzerik lortzen, eta hor sortu zen Bergaran beste denda bat irekitzeko egitasmoa. Egitasmo honek, ordea, bestelako ernamun bat izan zuen: ez zen herritar antolatuen sare batek abiatutako egitasmoa izan, baizik eta egitasmo honetan lan egiteko aukera ikusten zuen ekintzaile talde txiki batek eman zituen lehen urratsak. Langileen ekimenez sortutako egitasmoa izateak baldintzatu zuen, beraz, egitasmoaren formula juridikoa kooperatiboa izatea hastapenetik.

Lehen urratsean, bi pertsonak formazioa jaso zuten Bergaran eskainitako ekintzailatza sozial kooperatiboko programa batean, eta urtebeteko prozesua zabaldu zuten, egitasmoa definitzen joateko. Egitasmoa definitzen asko lagundu zien antzerako egitasmoekin izandako hartu emanak, toki bakoitzean zein eredu planteatzen zen ulertu eta Bergarako egokiena zitekeen proiektua argitzen joateko. Aldi berean, egitasmoa herritarrekin partekatu zuten hasiera hasieratik: dozena erdi bat pertsonak osaturiko "talde motor" moduko bat maiztasun batekin elkartzen hasi eta proiektua jendarteratzen hasi ziren, gertutasunezko harreman sareetan ahoz ahoko komunikazioaren bitartez nagusiki. Denda zabaldu aurretik 3 hilabeteko auzolana egin izana espazio fisikoa atontzeko, eta zabaltzerako 150 pertsona edo etxegune bazkidetu izanak islatzen du herritarren hasi aurretiko inplikazio maila.

Egitasmoaren oinarria jendaurreko denda bat da txikizkako merkataritza sektorean kokatzen dena. Nolanahi ere, denda izateaz gain elikadura eta ingurumenari lotutako "hezigune" izateko bokazioarekin ere jaiotzen da egitasmoa, kooperatibaren estatu sozialen xede sozialean jasotzen den moduan: "kontsumo-eredu jasangarria, tokiko laborantza iraunkorraren biziberritzea eta elikadura osasungarria sustatuko dituen merkataritza-heziketarako gune kooperatiboa izatea, ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarrituz" (Estatutu sozialak: 1)

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Egitasmoaren lehen hiru urteetan txikizkako dendaren bideragarritasuna kontsolidatzea izan badute ere helburu nagusia, hastapenetik "proiektugintza" deituriko lan jardueraz osatu dute denda zerbitzua, elikaduraren esparruan identifikaturiko hutsune ezberdinak estaltzeko bokazioz. Honela, elikadura (bitartekarien) negozio izatetik eskubide herritar bilakatzeko asmoz, hastapenetatik bultzatu izan dira elikadura burujabetzari loturiko egitasmo ezberdinak. Egitasmo horien oinarrian beharrian nagusi bat detektatzen da: kontsumitzaile eta ekoizleen arteko "zubi" bat eraikitzearena, hain justu, zuzeneko salmenta ereduak (azoka, kontsumo taldeen otarrak) gainditu eta "Azoka Garaikidea" deituriko ideia batera gerturatuko litzatekeena: gaur egungo kontsumo ohituretara egokituriko jendaurreko azoka, hain zuzen ere, ordutegi malguagoekin, granel salmenta mantenduz, produktu bakoitzaren ekoizleak identifikatuz eta saskiaren zati ahalik eta handiena bertan erosi ahal izateko aukera emanaz, ekoizle txiki askoren produktua espazio berdinean eskainiz mozkin asmorik gabeko bitartekaritza baten bidez.

Kontsumitzaile eta ekoizleen arteko zubigintza lan hori egiteko, elkartu asmo diren bi eragileok modu nahiko argian definituak izan dira:

- Kontsumitzaileei dagokionean, egitasmo ireki moduan definitzen da, denda herritar orori irekia dago eta ez dago bazkide izan beharrik bertan erosteko. Bazkidetzea aukera gisa eskaintzen da, egitasmo sozietarioaren kide izateak dakartzan eskubide (parte hartzea, informazio-gardentasuna eta %5eko deskontua prezioetan nagusiki) eta betebeharrei (parte hartzea) lotuta, baina ez dago zertan bazkidetu dendan erosi ahal izateko. Denda herriko erdigunean kokatzeak ere erantzun nahi izan dio herri guztiari zabalduko proiektu izan nahi horri.
- Ekoizleen aldetik, bestelako lanketa bat burutu izan da. Guztiak dira bazkide, baina horietako bakoitza kide izateko baliatzen den irizpidea zabaltzen eta malgutzen joan da: hasieran eskualdeko ekoizle izatea nahikoa zen bazkidetza onartzeko, eta barazki ekoizle guztiek ekologikoan lan egitea bultzatu duten arren, ez dute irizpide itxien bitartez zabaldu nahi izan. Honela, dendan saltzen dira gertuko ekoizpen ez ekologikoak, eta baita urrunagokoak ere. Urte osoan bertakoa, garaikoa eta ekologikoa emateak dendako eskaintza asko mugatuko lukeenez, eta bokazioa saskiaren ahalik eta zati

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

handiena dendan eskaini ahal izatea denez, Euskal Herriko eta hemendik kanpoko elikagaiak (Valentzia, Malaga,...) ere ekartzen dituzte, eta kanpokoak diren kasuan denak ekologikoan lan egitea bilatzen da, ekologikoan diharduten sare horietatik tiraka.

Ematen den zerbitzu nagusia txikizkako denda bat litzateke, gertukoa eta ekologikoa herritarren eskura jartzeko. Dendaren bitartez egiten da, hortaz, banaketa, arestian zehazturiko ekoizleen produktuak salduz eta dendara sarbidea herritar orori irekiz. Ekoizpenaren antolaketarako dendaren inguruan hiru funtzio nagusi definituak dituzte gaur egun: dendak jarraitzen du izaten egitasmoaren bihotza, baina honi sukalde komunitarioaren egitasmoa erantsi zaio, horretarako beste lan bazkide bat txertatu delarik egitasmoan. Sukaldeak bi zerbitzu nagusi emango ditu aurrerantzean: alde batetik “tupper” zerbitzua eskaintzea eguneroko askarien elaborazioaren bitartez, eta beste aldetik, “luntx-katering” zerbitzua ematea bezero ezberdinentzako. Bi geruza horiez gain (denda + sukaldea) hirugarren bat ere burutzen da, “proiektugintza” deiturikoa eta eskualde mailan abian jar litezkeen egitasmo ezberdinen diseinu eta exekuzioan oinarritzen dena. Esku artean proiektu ugari dituzten arren, guztien helburua bat bera litzateke: dendaren oinarrian diren ekoizleen produktuak ahalik eta gehien saltzea, elaborazioa maila eta salmenta-puntu ezberdinen bitartez.

Egitasmoa jendarteratzen komunikazio estrategia lau ideia nagusitan oinarritzen da: bertakoa, osasungarria, justua eta kooperatiboa. Lau horiek elikadura sektorearen eraldaketa gidatu nahi duten balio gisa hartzen dituzte, eguneroko jarduera baldintzatzen duten irizpide itxitzat jo ordez. Estrategia komunikatibo handirik gabe jendarteratu zen egitasmoa, ahoz ahokoren bitartez eta herritar sare antolatuen kanaletatik nagusiki, baina egitasmoak badu zailtasun nagusi bat bere osotasunean herritar orori argi azaltzeko: denda soil bat baina zerbait gehiago dela aditzera ematea, hain zuzen ere. Herritar xeheari elikadura burujabetzaren bidean urratsak emateko ekonomia sozial eraldatzailearen logikan diharduen egitasmo komunitario bat dela helarazteko kode komunikatibo egokiak topatzen kostatzen da. Herritar askorentzat denda “soila” izaten jarraitzen du, oinarritzat dituen balioen sozializazio maila apala delarik, oraindik ere.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Egitura ekonomikoari dagokionean, elikadura inoren negozio izan ez dadin prezio politika da giltzarri nagusietako bat. Alde batetik, kontsumitzaileak ordaindutako diruaren destinoaren gaineko informazioarako atzipen osoa du, ordaindu duenetik zenbat eta zein ekoizleri doakion jakinaz. Bestalde, ekoizleari duintasunez ordaindu eta kontsumitzailearentzat arrazoizkoak diren prezioak eskaintzearen arteko oreka bilatzen da, dendari marjina ahalik eta gehien murriztuz, honen bideragarritasun ekonomikoa kolokan jarri gabe. Honela, ekoizlea beti da prezio ezarlea eta eskualdeko produktuen kasuan Ereindajaneke %20ko marjina eranstean dio dendan. Horrez gain, marjina aldakorra da produktuaren izaeraren arabera: oinarritzko produktuei ahalik eta marjina txikiena ezartzen saiatzen dira, eta bestelakoetarako malgutzen da irizpidea.

Egitasmoak martxan jartzeko 40.000 euro inguruko inbertsioa behar izan zuen, urtebeteko prozesuan ehundutako oinarri sozialaren inplikazioak posible egin zuena: bi lan bazkideen ekarpenaz gain (8.000€), 150 bazkide herritarren ekarpenak (7.500€) eta mailegutza herritarreko dinamika bat jarri zen abian: 20 pertsonak 1.000 eurotako borondatezko ekarpena egin zuten. Mailegutza herritarra Ereindajanekekin kontratu bat sinatuz gauzatu zen 5 urteko epean, bide ezberdinen bitartez (kuotaren deskontuaz gain, soberakina erosketa bonuen bitartez, donazio gisa utziz edo dirutan bueltan jaso), itzultzeko konpromisoarekin. Diru laguntza publiko zein banku mailegurik gabe, hortaz, ekarpen herritarrek posible egin zuten egitasmoa abiaraztea eta baita gaur egun gastu orokorrak estaltzea ere: bazkideen kuota bidez (16.000 euro inguru) estaltzen dira lokalaren gastu orokorreko loturiko kontzeptuak (alokairua, kontsumo arruntak eta azpiegitura erosketak). Horrezaz gain, salmenta bidezko sarreren bidez (380.000 euro inguru) eta proiektu bitartez lorturiko finantzaziotik ordaintzen dira langileen aurrerakinak eta soldadak.

Laburbilduz, egitasmoaren balantze sozio-ekologiko moduan aipa liteke Ereindajan interes orokorra eta komunitarioa uztartzen dituen egitasmoa dela, bere ekarpen soziala bi aldetatik osatuz: elikadura osasuntsuko ekoizpenak sustatuz alde batetik, eta bertako ekoizle eta herritarren arteko zubi-lana bitartez, bi kolektibo horien ongizate eta kohesioan ekarpen positiboa eginaz. Ikuspegi ekologikoak zeharkatzen du egitasmoa bere osotasunean, tokikotasunak eta eredu ekologikoaren aldeko hautuek sustraitzen baitute dendako eskaintza. Eta ikuspegi kooperatiboari dagokionean, ekonomia sozial

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

eraldatzaileko eragile aktibo gisa dihardu, elikadura burujabetzaren bueltan martxan diren egitasmoekin elkarlanak sustatuz (sukalde komunitarioak) eta erreferentziazko esperientzia izanez eskualde mailan.

1.2. Barne komunitatea

Ereindajan irabazi asmorik gabeko lan elkartuko kooperatiba txiki moduan erregistratua dago, eta bi bazkide mota jasotzen ditu bere baitan: lan bazkideak eta bazkide kolaboratzaileak (kontsumitzaileak). Ekoizleen kidezea ez da organikoki kooperatibaren bitartez egiten, Arrasateko Ereindajan Elkartearen bitartez baizik, eskualde mailako ekoizle guztiak batzen baitira egitura horretara, eta Ereindajan Bergarak Arrasaterekin duen hitzarmen baten bitartez, ekoizle-kideen eskubide eta betebeharren traslazioa egiten da elkartetik kooperatibara.

Kopuruari dagokionean, 5 lan bazkidek eta soldatapeko langile batek osatzen dute lan taldea egun, eta beste 330 bazkide kolaboratzaile batzen dira barne komunitatera. 6 pertsonako lan talde honetan, 3 pertsona leudeke zuzenki dendaren kudeaketari lotuta, beste bat sukaldari moduan jarduteko, pertsona bat proiektugintzan eta beste bat proiektugintza eta egitasmoaren koordinazio lanak (diruzaintza, bazkidetzea, komunikazioa, etab) burutzen dituenak.

Egitasmoaren banaketa funtzionalaz gain, barne funtzionamenduaren zehaztapen xehea egin da Barne Araudiaren bitartez. Dokumentu honen elaborazioan kanpo aholkularitza baten laguntzaz (Farapi Koop. E.) zortzi saio espezifikoaren bitartez lortu dira lan taldearen kontsentsuak oinarritzeko puntu hauetan: langileak, antolaketa soziala eta produktiboa, parte hartzea, inplikazioa eta gardentasuna eta lana eta lan baldintzak. Honela, estatutu sozialetan jasotako betebeharrak soziatariekin gain (pertsona bazkideei, organo sozialei eta erregimen ekonomikoari eragiten diotenak) Barne Araudiaren bitartez zehazten dira xehe-xehe erabakiguneei, komunikazioari, zaintzari eta pertsona berrien bazkidetze prozesuari loturiko atal ezberdinak. Eremu informalak eta formalak uztartu eta formalizatzeari begira landu da dokumentu hau, eskala jauzi baten atarian dauden unean beharrezko ikusi baita "ohituraz" egiten den hori jaso, berrikusi, adostu eta idatzian jasotzea, datozkeen berriei eskueran emateko.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

Honela, besteren konturako langileen kontratazioari dagokionez, adibidez, estatutuetan jasotako formula eta ezarritako 5 urteko gehienezko epealdiaz gain, Barne Araudiak zehazten du lan kargen eta ekonomia aurreikuspenek justifikatuta figura hori baliatzeko aukera, eta kontenplazten ditu kontratazio prozedurarako, besteak beste, harrera batzorde baten eraketa, lan bazkide arduradun baten esleipena eta 6 hilabeteko probaldia. Ondoren lan bazkideen eskumenekoa izango da kontratazio prozesu osoa.

Erabakigune eta komunikazio kanalei dagokienean, betebeharrak estatutarioek ezarritako erabakiguneez gain (Batzar Orokorra), kooperatiban beren-beregi definitu dira parte hartze eta informazio kanal ezberdinak, eta horietako bakoitzean jarraitu beharreko prozedura egokiak. Maiztasunari dagokionean, urteko batzar orokorraz gain, non elkartzen baitira kooperatibak eragile guztiak (langile, kontsumitzaile, ekoizle), langile guztien batzarra egiten da hilero behin erabaki esanguratsuak kolektiboki hartzeko, eta lan taldeek (denda, sukaldea, proiektugintza) modu autonomoan funtzionatzen dute egunerokoan.

Parte hartzeari dagokionean, Barne Araudiak lan bazkideen gutxieneko parte hartzea ezartzen du, honako alorretan: "Kooperatibako asanblada eta batzar guztietan parte hartzea; Taldeko bilera guztietan parte hartzea; Prozesu ezberdinak abiatzean, bakoitzaren iritzia jasotzeko mekanismoak ematen badira, hauek bete eta prozesua elikatzen laguntzea; Beharko balitz, kooperatibako organo eta ekintzetan parte hartzeko prestutasuna izatea; Taldearen erabakiaren arabera kooperatiba ordezkatzeko sare eta gune ezberdinetan" (Barne Araudia, 17). Kooperatiban parte hartzen duen eragile bakoitzarentzat (ekoizle, kontsumitzaile, langile), bestalde, parte hartzeko gune eta prozedurak banan bana zehazten dira (Barne Araudia, 15-17) eta baita horietako bakoitzean eman beharreko eztabaida eta erabaki hartze prozeduren zehaztapenak ere, informazioa kudeatzeko, (des)adostasunak lantzeko, erabakien jarraipena egiteko etab (Barne Araudia, 17-18).

Zaintzari dagokionean, estatutuetan ezarritako bazkideen eskubide eta betebeharrez gain (eta horiei loturiko arau-hauste eta zigorrak), Barne Araudiko 5. puntuan

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

lan eta lan baldintzak garatzen dira zehatz-mehatz: aurrerakinak eta soldadak, lan osasuna, opor eta jaiegunak, lan egutegia eta aparteko orduak, baimenak eta eszedentziak, prestakuntza etab. Zehaztapen maila horretara jaitsi nahi izan da lan taldearen adostasun horiek idatzian jasotzeko lehenik, baina baita, nagusiki, sar litezkeen pertsona berriei behar bezalako harrera eta kontakizun integrala egiteko ere. Beharizan hori ez da sortu, beraz, aurretiaz izaniko gatazkak saihesteari begira, Barne Araudia ez baita gaur arte aplikatu beharrik izan. Erakundearen izaera kooperatiboa eta beronen bilakaeraren transmisio egokirako baliabide moduan ulertzen da gehiago, kontziente baitira kooperatiban egoteko eta berau sentitzeko modu asko daudela, guztiak direla zilegi, eta guztientzako tokia izatea dela garrantzitsuena.

Lan bazkideez gain, kontsumitzaileen artean bi geruza ezberdin identifikatzen dira: talde sustatzaileak, hastapenetik proiektua babestu eta lagundu duen taldetxoak (8 pertsona), erabaki garrantzitsuenen balidazioan toki bat izaten jarraitzen du; eta kontsumitzaileak oro har, bestalde, batzar orokorrean parte hartuz eta dendan erostearen bitartez, bere proposamenak helarazteko eta informatua izateko kanal ezberdinak (telegram, whatsapp, emaila) ditu. Kolektibo honen parte hartzea kuantitatiboki mugatu izan litekeen arren, parte hartzearen "gainbaloraziorik" ez egitea hobetsi dute, kontsumitzea bera ere bai baita parte hartzeko formarik behinena, bestelako inplikazio sozietario gehigarriak eskatu beharrik gabe.

Azkenik, ekoizleak, Ereindajan Elkartearen bitartez txertatzen dira egitasmoaren hastapenetik, ekoizle konkretu batzuk inplikazio maila handiarekin (baratzezainak esaterako) eta dendaren joan etorrietan hurbil izatez batera, dendaz haraindi doazen proiektu guztiak partekatzen dira ekoizleekin, asko eta asko elkarlanean burutuz: ikasleei emaniko tailerrak ekoizpen guneetan, enpresetako edo ikastolako jangela zerbitzuaren eskaintza, ikas-bidaia otarrak, etab.

Eragile anitzeko osaturiko kooperatibaren gobernantzan ager litezkeen interes kontrajarriak loturiko gatazken inguruan galdetuta, oro har konfiantzazko harremanak izatea jotzen da gatazkak ekiditeko berme nagusitzat. Kontsumitzaileen aldetik asetasun maila handia ageri da, eskaintza mugatua izan arren kexa handirik ez baitago

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

zentzu horretan, kontsumitzaileek asko baloratzen baitute dendak ahalbidetzen duen ekoizleekiko harreman zuzen hori. Interes lerrokatze behar handiagoa ikusi da zenbait momentutan, aldiz, ekoizle eta dendaren artean. Esate baterako, ekoizleak izanik egitasmo honetan prezio ezarleak, saiakera berezia egin zen ekoizpenen prezio politika adostua egiteko hornitzaile guztien aldetik. Horrezaz gain, ekoizpen baxuko egoeratan dendan saltzeak sor ditzakeen pizgarri faltak konpontzeko, kooperatiba eta ekoizleen artean birnegoziatu izan da marjinen ezarpena, ekoizleek dendaren bitartez saltzeko konpromisoari eusteko. Oro har, modu adostuan zehazten dira banaketa moduak baita egunak eta orduak ere.

1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea

Ereindajanekek ekoizle-kontsumitzaile bilgune izatea herritarren artean elikadura burujabetzaren gaineko kontzientzia hartzeko bide gisa hartzen da. Kanpo komunitate zabalago horretan eragin ahal izateko, Ereindajanekek hastapenetik lan egin izan du herriko bestelako eragileekin elkarlanean proposamen praktikoak martxan jarri, herritarrei eragin esparru berriak zabaltzeko asmoz.

Elkarlan horren espaziorik garrantzitsuena herriko Elikadura Mahaia litzateke, non elkartzen baitira kooperatibaz gain udal arduradunak, Landa Garapeneko teknikariak, ekoizleak eta herritarrak. Mahai horretan landu izan diren hiru lan ildo nagusietatik sortu izan dira aurrerago egitasmo konkrituak: azokaren biziberritzea (Elikaenea), erreleboa (Ortuguntza) eta sentsibilizazio dinamikak (eskolekin, jardunaldiak, ikastaroak, etab.).

Lehenetik hasiz, Elikaenea proiektuaren bitartez Ereindajanekek eskala jauzia egiteko apustu sendoa egin du. Udalarekin eginiko hitzarmena medio, eta aurretik Elhuyarrek egindako parte hartze prozesuan oinarrituz, herriko azokaren zati zaharkitu bat birgaitu eta bertan kokatuko dira Ereindajanekek dendaz gain sukalde komunitarioa bera ere. Horretaz gain, Ereindajanekek azokako espazio osoaren dinamizazio sozio-kulturala ere burutuko du, elikaduraren aitzakian azokako espazioan mota ezberdinetako aisialdi eta kultur jarduerak antolatuz. Elikaenearen kudaketarako Ereindajanekek dinamizatuko duen jarraipen talde bat eratzea aurreikusten da, azokan parte hartzen duten eragile guztiei irekia, espazio partekatua horren bizikidetzan positiboki eragiteko asmoz.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

Errelebo faltaren arazoaren aurrean, Biolur elkartearen "Duina" azterketan oinarrituz, Landa Garapen elkartetik teknikari bat kontratatu da eskualdeko udal ezberdinen finantzazioari esker Bergara inguruko baratzezain guztiei orturik ortu laguntza emateko, Ortulaguntza egitasmoaren bidez. Modu honetan, dauden ekoizleei sostengua emateaz gain, ekoizle berriak erakartzeko baldintzak duintzea da helburua, diruz laguntzeko lankidetzak eskemak gainditu eta laguntza tekniko-pertsonalerako baliabideak sortuz.

Laburbilduz, Ereindajaneke lurraldean sustatzen dituen eraldaketa prozesu ezberdinetan ehun komunitarioa, enpresariala eta publikoa uztartzen dituzten esperientzia ezberdinak daude. Lankidetzak publiko-komunitarioan Ortulaguntza eta Erikaena arestian azalduirko lirateke proiekturik aipagarrienak. Ehun komunitarioaren dinamizazioari dagokionean, denda kooperatiboa bera litzateke proiektuaren abiapuntua. Horrezaz gain, ikastolarekin lankidetzak harreman oparoa dute, dela ikasbidairako otarrak sortzearen bidetik, dela ikasleen bisitak antolatuz baserri ekoizleetara, etab. Azkenik, eskualdeko ehun enpresarialarekin lankidetzak maila apalagoa erdietsi dute, Olatukoop sareko kide izatez gain, eskualdeko kooperatibekin lankidetzak puntualak bideratzen ditu, esaterako Fagor Ederlanen jangela horniketarako proiektu pilotua eta aurrera begira lankidetzak hori sendotzea aurreikusten da.

1.4. Analisi juridikoa

Lan elkartuko kooperatiba txiki izatea hasieratik argi izan zuten hautua izan zen, ekintzaile bikote baten bizi eta lan proiektu gisa pentsatua izan baitzen. Herritar antolatuek Elkartek baten bitartez "besteentzako" lana sortu beharrean, lanaren burujabetzatik ekiteak lan elkartuko kooperatiba forma hartzea eskatzen zuen. Gainera, Elkarteari ez zitzaion behar adinako gaitasun operatiborik ikusten artikulatu asmo ziren eragile eta jarduera guztiak antolatu ahal izateko.

Berrekin-Berregin ekintzailatza dispositiboan jasotako prestakuntzan ikasi zuten bestelako kooperatiba eredu bat egitea ere posible zela, enpresa industrial handien logikatik urrun, herritar eragile ezberdinak sartzeko gai zena ekonomia sozial eraldatzailearen egitasmoaren baitan. Kooperatiba, beraz, bi zutabe nagusiren gainean

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

definitu zen: lanaren burujabetza eta irabazi asmorik gabekoa izatea. Aurrera begira, proiektuak egin nahi duen eskala jauziari lotuta, mahia gainean dago lan elkartuko kooperatiba izatetik kooperatiba integrala izatera pasatzeko aukera, egitasmoaren dimentsio handiagotzeak horren beharrik sortuko balu.

Arazo nagusiei dagokienean, enpresari buruz oro har eta partikulariki kooperatibismoaren inguruko prestakuntza falta nabarmentzen da, egitasmoa martxan jartzeak denetarikoz ezagutzak jasotzea eskatu baitzien (bazkidetzeak, diruzaintza, komunikazioa, estatutuak, etab.). Bi izan ziren, zentzu horretan, jaso izan zituzten aholkularitza esanguratsuenak: Elkarlanek emandakoa, kooperatibaren aspektu tekniko-juridikoei dagokienean, eta Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegitik jasotakoa bestalde, proiektuaren bideragarritasuna eta ESErekiko loturak ezartzeari dagokionean.

- Aplikagarri den legea: Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiari buruzko Legea (6/2008 Legea, ekainak 25ekoa)

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa

Denda, kontsumo-eredu jasagarriaren testuinguruan. Tokiko laborantza iraunkorraren biziberritzea eta elikadura osasungarria sustatuko dituen merkataritza heziketarako gune kooperatiboa, ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarrituz.

Horretarako, hainbat jarduera jarriko da martxan:

- Tokiko elikagaiak eta produktuak salduko diren txikizkako merkataritza-denda.
- Nekazaritza-, ingurumen-, sukaldaritza- eta elikadura-hezkuntzarako eta sentsibilizaziorako zerbitzua.

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Ereindajan Arrasaten sortzen da Elkarte formularekin. Denda bat, langile batzuk eta helburutzat eskualde mailako irismena edukitzea. Bergararik Arrasatera ez zihoan inor, Bergaran beste eredu bat: ekimena langileetatik zetorren (Berrekin Berregin) ESE

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

baitako lan/bizi proiektu bat nahi zuten, eta Elkarateak ez zien kuadratzen, lan elkartuko kooperatibak erantzuten zion.

3. Kooperatiba mota

Irabazi asmorik gabeko lan elkartuko kooperatiba txikia.

4. Lurralde esparrua

Euskadiko Autonomia Erkidegoa oro har.

5. Bazkide motak

- Langile-bazkideak. Une honetan 5.
- Soldatapekoak. Oso modu puntualean, eta bazkidetzeko bokazioz. Une honetan 1.

Soldatapekoak langile-bazkide bihurtzeko, probaldia gainditu behar dute. 6 hilabete igarota, pertsona arduradunak langile berriaren balorazioa egingo du. Langilearen jarraipena edota bazkide izateko prozedura ireki ala ez langile-bazkide guztien artean hartuko dute, langilearen jarraipenaz arduratu den pertsonaren balorazio eta proposamenean oinarrituta.

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

- Batzar Nagusia
- Administratzaile solidarioak. 2 bazkide izango dira.

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desegitea erabakitzeko

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- 2/3eko gehiengoa behar da Artezkaritza Kontseiluko kideak kargugabetzeko, kargugabetzea ez bazegoen Batzar Nagusiaren gai ordenean

7. Erabakimen ekonomikoa

7.1 Gutxieneko kapital soziala: 3.000 euro

7.2 Derrigorrezko ekarpenak

- Iraupen mugagabeko eta lanaldi osoko langile-bazkideak: 4.000 euro
- Iraupen mugagabeko eta lanaldi partzialeko langile-bazkideak: 4.000 euro
- Iraupen mugatuko eta lanaldi osoko langile-bazkideak: 1.500 euro
- Iraupen mugatuko eta lanaldi partzialeko langile-bazkideak: 1.500 euro
- Bazkide laguntzaile pertsona fisikoak: 50 euro
- Bazkide laguntzaile pertsona juridikoak: 50 euro

7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa

- Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %20a
- Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a
- Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - o Borondatezko Funtsak hornitzeko
 - o Derrigorrezko Erreserba Funtsean horniketa osagarria egiteko
 - o Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsean horniketa osagarria egiteko

8 Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: autonomoen araubidea

9 Gatazkak konpontzeko, arbitraje koooperatiboko sistema: bai

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

2.1. Elementu gakoaren zehaztapena

Gako Orokorrak (Erreplikarako gutxieneko baldintzak)	
-	Langileen ekimenetik sortua izatea: lanpostua eta bizi proiektu gisa sortzeak, motibazio handiarekin aritzea ahalbidetzen du.
-	Proiektu kolektiboa izatea: langileen bultzadaz sortu arren, lehen unetik komunitatearekin partekatutako ekimena izatea: ideia partekatu jendeak bere egin dezan.
-	Ekonomia Sozial Eraldatzaileko antzeko egitasmoekin saretzea: antzeko proiektuetatik ikasi, eredu ezberdinak ikusi eta toki bakoitzera egokitutako egitasmoa definitu.

Negozio ereduaren deskribapena	
Kokapenaren analisia	Ekidadura negozio izatetik eskubide izatera igarotzeko, kontsumitzaile eta ekoizleen arteko zubi-lana: herritar guztiei irekia eta nagusiki ekologikoan diharduten gertuko ekoizleak saretuz.
Idea: produktu-zerbitzua	Oinarrian txikizkako denda bat, gertukoa eta ekologikoa herritarren eskura jartzeko. Dendatik eskala jauzia egiteko proiektu berria: Erikaenea. Sukalde komunitarioa eta herriko azokaren biziberritzea helburu dituen egitasmoa.
Harremanak-Komunikazioa	4 oinarri: bertakoa, osasuntsua, justua kooperatiboa Sare herritarrak eta ahoz ahokoa. Proiektua bere osotasunean komunikatzeko zailtasunak: ESEri loturiko balioen jendarteratze maila mugatua.
Egitura ekonomikoa	Hasierako inbertsioan, parte hartze herritarra funtsezkoa (laguntza publiko edo banku mailegurik gabeko hastapena). Bazkidetzen bitartez gastu estrukturalak estali (alokairua, argindarra, etab). Salmenten bitartez soldatak ordaindu.
Balantze sozioekologikoa	Elikadura burujabetza: ekoizpenaren birtorkiratzea eta elikaduraren demokratizazioa.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzaitza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Komunitate izaera: barne komunitatea	
Lan taldea	Egitasmoaren oinarria. Barne funtzionamenduaren idatzizko zehaztapen maila handia: estatutu sozialetatik eratorritako betebeharrak estatutarioez gain, Barne Araudiak ezartzen ditu funtzioen banaketa, erabakigune, barne komunikazio, zaintza eta lan baldintzei loturiko atal ezberdinak.
Bazkide kolaboratzaileak	Proiektua herritar egiteko giltzarria. Parte hartzearen “gainbalorazioa” ekidin: egoteko modu ezberdinak aitortu eta balioa eman. Ekoizleekin konfiantzazko harremanak sortu: kide eginik hobe (prezio politikak, gatazka egoeren soluzio adostuak, etab.)
Soldatapeko lana	Oso modu puntualean, eta bazkidezeko bokazioz: estatu sozial eta barne araudian prozeduraren zehaztapena.

Eraldaketa lurraldean: kanpo komunitatea	
Lurralde ekosistema komunitarioa	Denda Eskolekin lankidetzaren dinamikak Biolur eta EHKolektiboko bazkide Gure platera gure aukera plataformako kide
Tokiko ehun enpresariala	Ez gehiegi (proiektu pilotuak Fagor Ederlan, etab.)
Lurralde ekosistema kooperatiboa	Olatukoop-eko kide.
Lankidetzaren publiko-komunitarioa	Elikadura Mahaia: bertatik ateratako Elikatzea eta Ortugintza proiektuak.

2.2. AMIA analisia

Egitasmoaren beraren indargune eta ahuleziak pentsatzerakoan bi dira elkarloturik agertzen diren ezaugarri nagusiak: bizigarritasuna eta izaera kolektiboa.

Proiektuaren gako nagusienetan lehena lan egitasmo gisa pentsatua izatean datza. Ekintzaile talde batek egitasmo hau bizibide gisa pentsatzeak inplikazio nabarmenak ditu egitasmoaren bizigarritasunari dagokionean: norberak bertan lan egingo lukeen egitasmo gisa pentsatu behar da, ez beste batzuk martxan jartzea desiragarria litzatekeen ideia gisa. Ekimena lan taldeak gidatzen du eta lanaren burujabetzatik ardaizten da. Eta honek ahalbidetzen du proiektuan egoteko modu bat, konpromiso maila altuagoa eskatzen duena, baina aldi berean, malgutasunez jokatzeko gai dena, profil ezberdineko pertsonak txertatzeko gai izan behar baitu, eta bakoitzak eman nahi edo ahal duenetik guztiontzako baldintza duinak sortaraztea baita azken xedea.

Ezaugarri honi lotuta agertzen da, orobat, proiektuaren erreplikarako mehatxu nagusia: ekintzaile profil honen gabezia, hain zuzen ere. Irabazi asmorik gabe, koordinazio konplexutasun handiarekin eta marjina txikiekin, eta martxan jartzeko aurretiazko denbora inbertsio eta lan handia eskatzen duen egitasmo batean engaiatzeko prest dagoen jende gutxi dago. Jendeak, oro har, enplegatua izan nahi du. Zailtasun handiak ikusten dira mota honetako proiektuen bizigarritasuna jendarteratzeko edo sozialki aitortzen hasteko, bizibide on moduan ulertarazi eta egitasmo desiragarri edo erakargarritzat jotzeko. Dendako lanaz gain, lehen sektoreko ekoizleek ere partekatzen duten gabezia da hau, modu are larriagoan eta lan baldintza are eta prekarioagoekin, bigarrenen kasuan.

Bigarren indargunea egitasmoaren izaera kolektibotik datorkio. Kolektiboa da lan-taldea antolatzeke lehen unean, baina baita jendartean txertatzeari begira ere. Lan taldeak gidatua izateak besteko garrantzia hartzen du hastapenetik proiektua behar bezala jendarteratzeko denbora bat hartzeak. Ekintzailatza prozesuak denbora horiek eskatzen ditu, partekatze lan asko eta pazientzia, proiektua martxan jartzerako ezinbestekoa baita gutxieneko oinarri sozial batek sostengatzea ekimena, bai ekonomikoki (bazkidetzak eta mailegu herritarrak) eta baita maila operatiboan ere.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Eskualdeko herritarren artean lankidetzarako egitura batzuk bat eta errenta maila ertain/altu bat izateak aukerak biderkatzen ditu elikadura egitasmo komunitario arrakastatsuak martxan jartzeko.

Azkenik, etorkizunean areagotuko den beharrian bati erantzuten dion egitasmoa den neurrian, hedapenerako aukera ugari ikusten zaizkie mota honetako proiektuei. Erronka, zentzu horretan, ESE sareei estuki loturik egongo ez diren ekimenak ere, apurka apurka ESEko parametroetara gerturatzean egon liteke. Jarduera ekonomiko asko dira errelebo arazoak izan litzatekeenak, lehen sektoreko ez gain zerbitzu sektoreko asko ere bai. Horien bideragarritasunerako bizigarritasuna eta kolektibotasuna bezalako balioek izan dezaketen garrantzia jendarteratu beharra nabarmentzen da.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

EKIHERRI

1. Esperientziaren deskribapena

1.1. Negozio ereduaren deskribapena

Ekiherri ekimen ekonomikoa da, baina ezin hartu negozio moduan bere horretan. Hau da, ikuspuntu ekonomikoa bakarrik kontuan hartu izan balitz, orain arte kooperatiban hartu diren zenbait erabaki ez lirateke hartuko. Beraz, sektore energetikoaren baitan jasagarritasuna eta eraginkortasuna merkatu-nitxoan kokatzen da Ekiherri ekimena. Sektore elektrikoa tradizionalki enpresa multinazional handiek kontrolatutako sektorea izan da, jendartearen ezjakintasunaz baliatuz etekin ekonomikoak lortzeko helburuaz, eta Ekiherri, enpresa horiei aurre egiteko aukera bat da, aukera horretan bide asko baldin badaude ere, ez da bakarrik ekonomikoa Ekiherri babesten duena. Saiatzen da ahalik eta energia merkeena izaten beren kideentzako baina hori ez da dena, kontuan hartzen dira ere bestelako irizpide sozialak eta ingurumen irizpideak ere: zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen beharrak kontuan hartu, aholkularitza energia baldintza hobeagoetan eskuratu nahi duten pertsonentzako efizientzia energetikoan, kontsumoa jaisteko, ... Hortaz, Ekiherri aktibitate egiten duen ekimena da baina ez da soilik onura ekonomikoetan oinarritzen, jasagarritasun eta eraginkortasun ekonomikoan, sozialean eta ekologikoan oinarritutako behar energetikoak asetzea helburu duen ekimena da.

Hasiera batean ohiko merkatuan kokatzen da baina merkatu sozialean aritzeko bokazioarekin. Hala ere, kontuan hartu behar da elkartruke mutualistaz ari garela eta ohiko merkatuan koka daitezkeen pertsona fisiko zein juridikoetara zuzentzen bada ere, ekimenean barneratzen direnean ez dute ohiko merkatuan izango luketen bezero rola betetzen, ez baita salerosketarik burutzen. Halaber, kontuan hartu behar da baldintza tekniko eta legal batera lotuta dagoela ekimena (sare nagusira lotutako autokontsumo partekatuaren kasuetan), energia sortzen duen instalaziotik 2 kilometrotara aurkitzen diren pertsona fisiko eta juridikoetara mugatua dagoela. Hau da, martxan jartzen diren energia berriztagarrien sortze instalaziotik gehienez 2 kilometrora dauden kontratu elektrikoak atxiki daitezke.

Ekiherri kooperatibaren jardura nagusia Instalazio fotovoltaikoen bidez (teilatu pribatuen lagapen bidez) energia elektrikoa sortzea eta kooperatibako bazkide

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

kontsumitzaileek duten energia elektrikoko kontratuak instalazio horien energia elektrikoaren sorkuntzara atxikitzea da. Hau da, sare nagusira lotutako autokontsumo partekatua aktibitatea duen ekimena da. Ekiherriren kasuan ez dago bezerorik, hartzaileak bazkideak beraiek dira (bazkide kontsumitzaileak), lehen aipatu den moduan elkartruke mutualista garatzen duen erakundea baita. Bazkide kontsumitzaileak, hasiera batean, herritarrak eta estalkia lagatzen duten jabeak diren arren, bestelako jarduera ekonomikoetara (enpresa) eta merkataritzara irekitzeko asmoa ere badute.

Jardueraren antolaketa, gaur egun, hiru lan-taldetan banatua dago. Bat, Proiektuen-Taldea, talde honen egitekoak dira inguruan dauden jabetza pribatuko estalki egokiak bilatzea, eta teilatua/estalkia lortuta (kontratua sinatuaz) bertan instalazioa fotovoltaiiko baten proiektua garatzea. Udaletxeko estalki edo teilatuen lagapena eskuratzeko aukerarik ez du izan Ekiherri, Udaletxeko teknikariek ez dute juridikoki ikusten lagapen hori zuenean egin daitekeenik, eta orduan instalazioetarako estalki/teillatu egokiak bilaketa eta lanketa jabetza pribatuko estalki/teillatuetan zentratu da. Jabetza pribatura jotzeak eta lagapenak eskuratzek baditu bere zailtasunak, besteak beste, jabe pribatu batzuk dagoeneko instalazioak eginak edo egitekotan egon daitezkeelako, beste batzuk egunerokoa aurrera ateratzekoarekin arduratuta daudelako, ekimena eta partaide ezezagunak izateak sortu dezaken mesfidantza dela medio, edo/eta behar diren lagatze epeek luze jotzeak (15 -20-25 urte) konpromiso handia eskatzen duelako.

Bigarren taldea Talde- Administratiboa/Juridikoa da, lan administratiboak eta juridikoak lantzen dituen. Bereziki lan burokratikoari erantzuten dio, hau da, Administrazio Publikoen aurrean aurkeztu beharrezko agiriak: Ogasunaren aurrean BEZa, Sozietateen Gainera Zerga, Urteko kontuak, ...

Eta hirugarrena, Komunikazioa-Taldea, bazkide kontsumitzaileetara iristeko eta instalakuntzak egiteko espazio pribatuen eskuratzeko lortzeko komunikazio lanak bere gain hartzen dituen talde litzateke.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Hiru taldeek erritmo berean lan egin behar dute, paraleloki joan behar dute. Batak bestearen beharra dute, esaterako, Proiektu-Taldeak bi edo hiru teilatu/estalki lortuko balitu eta egindako instalazioek energia sortzeko gaitasun handia baina bazkidetzak handituko ez balira, sorkuntza gaitasun horrek ez luke zentzurik Ekiherriren helburua sortzen den energia guztia kontsumitzea delako, soberakinik ez izatea. Eta alderantziz, bazkide asko lortzeko gai izateak baina instalazio nahikorik ez izateak, ordea, bazkideek ekimenarekiko sortutako espektatibak ez betetzeren arriskua ekar dezake. Beraz, taldeen lan erritmoen koordinazio beharra oso garrantzitsua da sortzen diren espektatibak ondo kudeatzeko.

Ekiherriren balio erantsia ondorengoetan labur daiteke: energia tokian sortzeko eta kontsumitzeko aukera bat izatea; egoera geopolitikoen menpe ez egotea, beti egongo da menpekotasun bat, baina nolabait autosufizientea izateko aukera eskaintzen duen ekimena izatea; komunitatea sortzeko duen gaitasuna eta jasangarritasuna zentzu zabalean (ekonomiko, sozial eta ingurumena) barneratzen duen erakunde izatea.

Ekoizpen ikuspuntutik, Ekiherri kasuan instalazio fotovoltaiakoak garatzearena izango litzateke. Instalazioen ekoizpenaren antolaketa ondorengoa da:

- Proiektu-Taldeak, proiektua garatzen eta balioztatzen du ingeniari-tza enpresa bat kontratatuz.
- Proiektu hori oinarri, enpresa instalatzaileen eskaintzak eskatu eta aztertu egiten dira.
- Enpresa instalatzaileetako bat kontratatu proiektua exekutatzeko eta instalazioa martxan jarriaz.

Aipatutako azkeneko fasean, instalazioa martxan jartzean alegia, sortutako energia sare nagusiaren bidez banatzen denez, enpresa instalatzaileak banatzaileari (tokian-toki sarearen kudeaketa esleitu duen entitateari) komunikatzen dio zeintzuk diren instalaziora atxikita dauden bazkide-kontratuak, eta instalazioan sortzen den energiaren zein ehuneko dagokion kontratu bakoitzari (kontagailuen bidez neurtzen da). Bazkide kontsumitzaile bakoitzak bere merkaturatzaile propio izango du (faktura elektrikoa jaulkitzen duen entitatea), ez da behar merkaturatzailea aldatzea, baina merkaturatzaileak gutxiago fakturatuko dio bazkide kontsumitzaileari esleitu zaion

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

sortutako energia kopuruaren arabera. Energia kopuru horiek ezarrita, sistema automatikoa da eta ondorengo urteetan instalazio bakoitzak urtean hirutan/lautan mantenu lan batzuk behar ditu, enpresa instalatzailearen bitartez egiten direnak.

Bazkideen artean sortutako energiaren banaketarako erabiltzen den irizpidea ahalik eta soberakin gutxiena izatea da, hau da, sortzen den guztia kontsumitzen saiatzea. Horretarako, bazkidetza egiten denean bazkideek formulario bat bete behar dute zeinetan beren energia kontsumoen inguruko informazioa ematen duten eta informazioa horrekin (kontsumitzen den energia kopurua, eguneko zein ordutan,...), banaketa energia kontsumoaren profilaren arabera egokitzen da. Banaketa irizpide horrek badu bere logika ekonomikoa ere, eraginkortasun ekonomiakoa alegia. Hau da, sare elektrikotik lortzen den energiagatik ordaindu beharreko prezioa/tarifa (kw/€), sare elektrikora isurtzen den energia soberakinagatik lortzen den prezioa/tarifa (kw/€) baino handiagoa da. Beraz, komeni da, ikuspuntu ekonomikotik ere, momentuan sortzen den energia momentu berean kontsumitzea, kontsumitzen ez den eta merkatura isurtzen den energia horregatik jasotzen den prezioa merkatutik kontsumitzaile gisa eskuratzen den energia prezioa baina txikiagoa delako.

Hori horrela, ekoizpenerako beharrezko baliabideak lirateke instalazio fotovoltaiakoko proiektua garatzeko ingeniari-tza enpresaren kontratazioa, instalazioa exekutatu, martxan jarri eta mantenu lanak egin dituen enpresa instalatzailearen kontratazioa, harreman punturako espazioa fisikoa eta banketxearen kontu korrontea, kasuan Nafarroako Rural Kutxa Koop. S..

Ahalik eta autosufizientzia energetiko handiena lortzea da gizarteratu nahi den ideia nagusia. Horretarako, Komunitatean egiten ari den ekimen da Ekiherri eta herrikide arrunten lanarekin energia beharrak baldintza hobeagotan (jasangarritasun ekonomikoa, sozial eta ingurumen ikuspegitik) asetzea helburua duen proiektua da Ekiherri.

Bazkideekin erabiltzen den komunikazio kanala Whatsapp taldeen bitartez egiten da, bilera deialdiak egiteko, aktak jakinarazteko, informazioa partekatzeko, Komunikazioa

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

talde-lanen arabera Whastapp taldeetan antolatzen da: talde orokorra (bazkide guztionak), artezkaritza, proiektuak, administrazio eta komunikazioa taldekoak, etab. Aldiz, formalagoak diren kontuentsak, Batzar Orokorrerako deialdiarentzako, ... e-mail edo posta elektronikoa bidezko komunikazioa egiten da. Bazkide potentzial berriei begira, web orria da kanala egonkorrena eta momentu puntualetan kartelak jarri izan dira auzo eta barruti guztietan, baina bereziki asko egiten du ahoz ahokoak.

Hornitzaileekin erabiltzen diren komunikazio kanalak zuzenak dira, ezagutzatik eta gertutasunetik hornitzaileekin telefonoz edo posta elektronikoz egiten da komunikazioa. Bazkideek gertu ezagutzen dituzten eta udal teknikariaren laguntzaz identifikatutako tokiko enpresak dira. Komunikazioan, lehen kontaktua gertutasunetik egiten ez den kasu bakarra estalki/teilatu pribatuaren jabeekin izaten da, zuzenean presentzialki ate jokatzen dan hurbilketa.

Ekimenaren egitura ekonomikoari dagokionez, gastuen ikuspuntutik, hasierako inbertsioa egiteko, teilatu batez edo lehen instalazio fotovoltaikoak ari bagara, kasu honetan burutzen ari den instalaziorako gutxi gorabehera 110.000€ko inbertsioa beharrezkoa da.

Hasierako inbertsioetik, aurtun 2024 urtean, Errenteriako Udalak 110.000€ko gastu partida bat du aurrekontuetan Ekiherriri esleitzeko, hau da, aurrekontu partida nominatiboa jasotzen du ekimenak, eta bestelako iturri publikoetatik jasotako diru-laguntzak, 75.000€ ingurukoak dira. Diru sarrera horiekin, bazkideei instalazioen inbertsiogatikoa kostua aplikatu gabe bi instalazio egiteko adina izango zen bazkideek autokontsumo bidez energia gehiago eskuratuz, baina asmoa ez da soilik egun bazkide direnen energia merkeagoa izatea baizik eta etorkizunean diru-laguntzarik gabeko, eta bazkide berriei zuzendutako, instalazioak aurrera ateratzeko gaitasun ekonomikoak izatea. Are gehiago, nahiz eta hasierako instalazio hauen inbertsiorako diru-laguntzak baliatu, instalazioen kostua instalaziora atxikita dauden bazkide kontsumitzaileei esleitutako kostu kuotaren bidez berreskuratuko da, hau da, instalazioen kostua bazkideen artean ordaindu eta urteen poderioz berreskuratuko litzateke kostu osoa (amortizazioa) eta bestelako ekimenetan inbertitzeko eta garatzeko aukera izango da.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Gastu orokorren barruan, aholkularitza administratibo teknikoagatik, gestoria, hilabeteko 40€ko (480€ urtean) kostu finkoa. Bestetik, ekoizpen kostuekin, kostu aldakorrek, lotuta dauden partidak, bata, instalazioan mantentze lan minimoa, urtean behin edo bitan garbitu,... (lantzeko, definitzeke, lehen instalazioa martxan jartze prozesuan). Eta bestea, instalazioen energia sorkuntza monitorizaziorako aplikazioaren mantentze kostua (lantzeko, definitzeke, lehen instalazioa martxan jartze prozesuan).

Diru sarreraren kasuan, helburua salmentarik ez izatea denez, sarean soberakinik ez isurtzea alegia, kuota bidez eskurazten dira diru sarrerak. Alde batetik, bazkide kuota bidezko diru sarrera. Estatutuetan kuota ezberdinak zehazten badira ere, egun, bazkide kontsumitzaileak, pertsona fisiko zein juridiko, ehun euroko kuotarekin (100€) eta bazkide laguntzaileak, pertsona fisikoak hamar euro (10€) eta irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak bostehun euro (500€), osatzen dute. Eta bestetik, bazkideak bere kontratu elektrikoa lotua duen instalazioaren kostu kuota. Kostu kuota hau instalaziotik eskuratzen den energia potentzia/kopuruaren arabera izango da, hau da, instalaziotik jasotzen den energiaren arabera dagokion kostu proportzionala esleitzen da (lantzeko, definitzeke, lehen instalazioa martxan jartze prozesuan).

Balantze sozioekologikoari erreparatuz gero, alde batetik, jardueran aplikatzen den irizpide sozial eta era berean ekologikoa kontsideratua izan daitekeena, tokiko hornitzaileak lehenestea litzateke. Nahiz eta formalki ez da irizpide zehatzik ezarri, sektorean eskarmentu handiko eta gaian bogan jarri aurretik dagoeneko berriztagarrien sektorean lan egiteko apustua egin zuten tokiko hornitzaileak lehenesten dira. Horrela, energia berriztagarrien apustu sendoa egin duten, eta ez espekulatiboa/oportunista, tokiko ehun ekonomikoa indartzen da eta hornitzaile-bezero elkartrukeetan desplazamenduen murriztean eragiten da.

Bestetik, Ekiherri herriko kohesio sozialari egiten dion ekarpena pobrezia energetikoa aurre egiteko inizatiba batekin lotzen da. Zehaztasunak ezartzeke daude baina Udalaren gizarte ekintza sailaren bitartez, Ekiherriren instalazio fotovoltaiakoetan

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

ekoizten den energiaren %5a zaurgarritasun energetiko egoeran dagoen kolektibora bideratzeko erabakia hartuta dago.

Eta azkenik, Ekiherrik lurraldeko oreka ekologikoari egiten dion ekarpena begi bistakoa da bere jarduerak berak helburu hori baitu. Laburrean, tokiko behar energetikoak tokiko energia berriztagarriko ekoizpen ahalmenarekin asetzea. Bestetik, Ekiherriko zenbait bazkideek lan boluntarioan energia sektorearen, faktura elektrikoaren, eta kontsumo energetikoaren ohitura jasangarrien inguruko kontzientziazioa txarлак egiten dituzte.

1.2. Barne komunitatea

Bi motako bazkide dira orain ekimenean, kontsumitzaileak eta laguntzaileak. Bazkide laguntzaileak, ekimenaren helburu eta ideiekin bat egiten duten pertsona fisiko, zein juridikoak dira, 10€ko bazkidetze-kuotako ekarpen ekonomiako egiten dutenak, (egun Orereta Ikastola, Urdaburu Elkartea, eta Talaios Koop.E.). Bazkide kontsumitzaileen kasuan, 100€ko bazkidetze-kuotako ekarpena egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke. Bi kasutan ekimenean lan talde ezberdinetan modu boluntarioan parte hartzeko aukera irekia dago. Era berean, hilabetero erabaki operatiboak eta bestelakoak (Kontseilu Errektoreari -KE- dagozkionak ere nahiz eta bileretako partaide guztiak formalki KEko kide izan) hartzen diren bileretan parte hartu dezakete. Hala ere, formalki KE 7 pertsonaz osatuta dago (3 emakume eta 4 gizon) eta beharrezkoa den kasuetan formalki 7 bazkide kontsumitzaile horiek hartu eta sinatzen dituzte dagozkion erabakiak, baina erabakietan parte hartzea irekia da. Erabakigune dagokionez, azkenik, biek, kontsumitzaile zein laguntzaile, Batzar Orokorretan parte hartzen dute.

Barne komunikaziori lotuta, negozio ereduan aipatu moduan, deialdiak, aktak... Whatsapp taldeen bidez bideratzen da barne komunikazioa gehiena eta formalagoak diren kontuentzako, Batzar Orokorretarako deialdietarako, ... e-mail edo posta elektroniko bidezko komunikazioa egiten da. Ildo beretik, zaintza (bazkideen behar, espektatiba eta konpromisoen jarraipena eta gatazken kudeaketa) aurrez-aurreko harremanen, presentzialki hileroko bileretan, eta Whatsapp taldeen bidez bideratzen da, ez dago oraingoz zaintzarako mekanismorik/tresnarik.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Boluntarioen kapituluan, ez dago bazkidea ez den boluntariorik, aipatua izan da bazkideak beraiek dira boluntarioki zehaztutako lan taldeetan lan egiten dutenak.

1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea

Momentu honetan harreman gehien egiten ari den tokiko eragilea elkarte gastronomikoak dira, komunitate energetikoaren beharrak eta elkarte gastronomikoen beharrak bat egin dezaketelako abian den instalazio fotovoltaikoaren ezaugarriak direla eta. Instalazio hori ikastetxe baten estalkian egingo da, ikastetxeak asteburutan ez du aktibitatearik eta potentzia hori Ekiherri-ren eskuetan egongo da asteburuetan. Hortaz, interesgarria suerta daiteke asteburuetan Ekiherri eskuetan dagoen gain potentzia hori asteburuetan behar espezifikoak dituen eragile bati esleitzea, elkarte gastronomikoen kasua. Zentzu horretan ari da Ekiherri elkarte gastronomikoekin harremanetan, elkarte gastronomiko guztiak bilera batean parte hartzera deituta daudelarik.

Interesa izan dezakeen tokiko beste eragile bat, finka-administratzaileak dira. Beraien bezeroek plaka fotovoltaikoen inguruko informazioa eta aukera ezberdinen inguruan galdetuak izango dira ziurrenik, Ekiherri eskaini dezakeen aukera oso interesgarria izan baitaiteke eurentzat. Hala ere, bi kasu hauetan identifikatu daitekeen zailtasun handiena ekimenaren ezagutza maila txikia da, eta horrek komunikazio esfortzu handia eskatzen du Ekiherriren partetik.

Bestetik, Errenteriako kooperatibismoarekin interkooperazioan aritzen da ekimena, beraz lurraldeko ekosistema kooperatiboarekin harremanak baditu Ekiherri, zehazki bazkide laguntzailea den Talaios Koop.E.rekin. Kooperatiba honek Torrekua espazio publikoaren kudeaketaren esleipena hartu du eta bertan espazioa fisikoa izango du Ekiherri.

Gainera, Euskal Herri mailan nahiko komunitate energetiko ekimen desberdin egiten ari dira eta erdu desberdinekin (tamaina ezberdinekoak energia sorkuntza zein bazkidetza aldetik,) herri mailan zein eskualde mailan ere. Eskualde mailari erreparatuz, Oarsoladea

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailtza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

eskualdeko lau herrietatik hirutan (Errenteria, Lezo eta Oiartzun) sortu da komunitate energetikoa baina bakoitza momentu ezberdinetan aurkitzen da (sortze fasean batzuk, beste batzuk dagoeneko energia berriztagarria sortzeko instalazioak eginda). Edozein kasutan, komunitate energetikoen arteko edo beste kooperatiba batzuen arteko harremana egon badago. Udalaren ekimenez, Goiener Koop.E..ren (energia berriztagarrien sektorean eskarmentua duen kooperatiba) laguntza jaso zen hasierako fasean. Gipuzkoa mailan ari da egiten laguntza/aholkularitza lana, azken finean eredu mota konpartitzen duten komunitate energetikoei arazo berak izaten dituztenez, esperientzien partekatzetik, beren ezagutzak eta egindako bidea konpartituz, ekimenaren sortze eta garatze prozesuan laguntzea da helburu. Esan daiteke sortze bidean dagoen sare bat badela eta komunitate energetikoen garatze prozesuan laguntza/ezagutza beharren inguruan interkooperazio ekintzak eman direla eta eman daitezkeela beste esparru batzuetan ere, komunak diren zerbitzu eta produktuen zentralizazio eta partekatzea esaterako (planteatu izan da potentzien kudeaketarako aplikazioa konpartitua adibidez).

Azkenik, lankidetzak publiko-komunitarioen baitan, Foru Aldundiak sortu duen Gipuzkoako Eraldaketa Energetikorako Bulegoa ekimen berriarekin elkartu da Ekiherri, baina hau ere ekimen hasiberria da eta elkarlan aukera hastapenetan oraindik. Bestetik, Oarsoaldea mailan, Oarsoenergiarekin, energia bulegoarekin, ere bizpahiru bilera egin dira eta bertan ezagutu ziren eskualdeko komunitate energetiko ezberdinak eta hasi dira beraien arteko harremanak sendotzen.

1.4. Analisi juridikoa

Elkarte eta kooperatiba arteko alderaketan, kooperatiba izateko bidea horretan, Kooperatibak elkarte batek baino aukera gehiago ematen du arlo desberdinetan lan egiteko, baina era berean, alderdi administratibo eta juridikotik ere burokrasia gehiago bete behar izatera behartzen du. Kooperatiba, kontsumo kooperatiba, izaera aukeratzeko garaian Ekintzailtza kooperatiboan aditua den Ekiherriko kide baten aholku eta laguntza berebizikoa izan da.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

- Aplikagarri den legea: Euskadiko Kooperatiben Legea 11/2019 Legea, abenduak 20koa)

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa

Komunitate energetikoa

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Elkarte eta kooperatiba arteko alderaketan, kooperatiba izateko bidea horretan, Kooperatibak elkarre batek baino aukera gehiago ematen du arlo desberdinetan lan egiteko, baina era berean, alderdi administratibo eta juridikotik ere burokrazia gehiago bete behar izatera behartzen du. Kooperatiba, kontsumo kooperatiba, izaera aukeratzeko garaian Ekintzailatza kooperatiboan aditua den Ekiherriko kide baten aholku eta laguntza berebizikoa izan da.

3. Kooperatiba mota

Irabazi asmorik gabeko kontsumo kooperatiba.

4. Lurralde esparrua

Euskadiko Autonomia Erkidegoa

5. Bazkide motak

- Lan-bazkideak
- Bazkide erabiltzaileak
- Bazkide laguntzaileak. Orain, Orereta Ikastola, Urdaburu Elkarte, eta Talaios Kooperatiba.

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- Batzar Nagusia
- Artezkaritza Kontseilua. 7 bazkidek osatuko dute. Horietatik 4 bazkide erabiltzaile izango dira, 1 bazkide laguntzailea, eta 1 lan-bazkidea. Lan-bazkiderik edo bazkide laguntzailerik ez badago, postu horiek bazkide kontsumitzaileek beteko dituzte.
- Zaintza Kontseilua (orain ez dago). Zaintza Kontseilua kooperatibak nahi duenean sortuko da, edo nahitaez, kooperatiba osatzen duten pertsonen kopurua 100 pertsonakoa denean
- Errekurtso Batzordea: 3 bazkide. 2 bazkide kontsumitzaile eta bestea bazkide laguntzailea.

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

- Bazkide bakoitzak, boto bat.
- Bazkide erabiltzaileen taldeak, gutxienez Batzar Nagusiko botoen %60.
- Lan-bazkideen taldeak, gehienez Batzar Nagusiko botoen %15.
- Bazkide laguntzaileen taldeak, gehienez Batzar Nagusiko botoen %25.
- Lan-bazkiderik eta bazkide laguntzailerik ez dagoen garaietan, haiei dagozkien botoak bazkide kontsumitzaileei egokituko zaizkie.
- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desagitea erabakitzeko
- 2/3eko gehiengoa behar da Artezkaritza Kontseiluko kideak kargugabetzeko, kargugabetzea ez bazegoen Batzar Nagusiaren gai ordenean

7. Erabakimen ekonomikoa

7.1 Gutxieneko kapital soziala: 3.000 euro

7.2 Derrigorrezko ekarpenak

- Iraupen mugagabeko lan-bazkideak: 500 euro
- Iraupen mugatuko lan-bazkideak: 250 euro

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- Bazkide erabiltzaileak: 100 euro
 - Bazkide laguntzaile pertsona fisikoak: 10 euro
 - Irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko bazkide laguntzaileak: 500 euro
 - Irabazi asmoko pertsona juridiko bazkide laguntzaileak: 1.000 euro
 - Bazkide laguntzaile administrazio publikoak: 1.000 euro
- 7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa
- Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %20a
 - Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a
 - Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - o Borondatezko Funtsak hornitzeko
 - o Derrigorrezko Erreserba Funtsa horniketa osagarria egiteko
 - o Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa horniketa osagarria egiteko
- 8 Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: araubide orokorra
- 9 Gatazkak konpontzeko, arbitraje koooperatiboko sistema: bai

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

2.1. Elementu gakoak zehaztapena

Gako Orokorrak (Erreplikarako gutxieneko baldintzak)	
-	Eskarmentu eta gaitasuna teknikoa duenaren laguntza ezinbestekoa da eta kasu honetan, Udalaren inplikazio dela medio lortu dira laguntza horiek. Batetik, aspektu teknikoetan udal teknikari baten parte-hartzea izan du ekimenak, eta bestetik, Udalaren laguntzaz hasitako eratze prozesurako Farapi Koop. E.. erakunde dinamizatzailearen laguntza (bileren dinamizazioa, garapena, parte-hartzea,... bideratze lanak egiten zituen erakundea).
-	Proiektuari jarraipen eta garapenarekin oso lotuta beste elementu gakoa bat bazkideen boluntariotza da, lan boluntarioa edo militantzia . Hau da, talde sendo bat, “talde motor” egonkorra bat osatzeko eta mantentzeko gaitasuna. Hartutako erabaki eta jarraitutako ibilbidea oso presente izango duen taldea izanik, gerturatzeko den pertsona berriekin esperientzia konpartituz proiektuaren jarraipena eta garapena errazten da.
-	Energia komunitateen gaia pil-pilean, bogan, dagoen gaia izatea. Aukera handiko gaia da, hobekuntzak lortzeko aukera handiak ematen dituen arloa da eta ondorioz behar gehiago asetzeko aukera ematen duena

Negozio ereduaren deskribapena	
Kokapenaren analisia	Jasangarritasunean/eraginkortasunean (ekonomikoa, soziala eta ingurumena) oinarrituta behar energetikoak asetzea.
Ideia: produktu-zerbitzua	Autokontsumo partekatuta sare nagusira lotuta.
Harremanak-Komunikazioa	Energia beharrak baldintza hobeagotan (ekonomiko zein jasangarritasun ikuspegitik) asetzeko komunitatean garatzeko ekimena.
Egitura ekonomikoa	Udala, lehen instalakuntzaren hasierako inbertsioan.
Balantze sozioekologikoa	Tokiko behar energetikoak tokiko ekoizpen ahalmenarekin asetzea.

Komunitate izaera: barne komunitatea

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzaitza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Lan taldea	Bazkideen inplikazioa, lan boluntarioa, militantzia.
Bazkide kolaboratzaileak	Aholkularitza laguntza.
Boluntarioak	Bazkideen inplikazioa, lan boluntarioa, militantzia.

Eraldaketa lurraldean: kanpo komunitatea	
Lurralde ekosistema komunitarioa	Ez dago oraindik. Elkarre gastronomikoak eta finka-administratzaileak interpelatzea espero da epe laburrean.
Tokiko ehun enpresariala	Ez dago oraindik.
Lurralde ekosistema kooperatiboa	Tokiko kooperatibismoa, Talaioa Koop S. (bazkide laguntzailea).
Lankidetzak publiko-komunitarioa	Gipuzkoako Eraldaketa Energetikoko Bulegoa, Foru Aldundiko ekimena. Energia Bulegoa Oarsoaldean: Oarsoenergia.

2.2. AMIA analisia

kimena aurrera eramaten den inguruneari lotua identifikatzen diren aukera eta mehatxu nagusienak hurrengoak dira: Alde batetik, herriaren tamaina eta biztanleria kopuruari lotuta, herri txiki batean, denak ezagutzen eta gertukoak diren horietan, komunitatea sustatu eta sortzeko erraztasuna handiagoa izango da. Baina, era berean, zailagoa izango da, eta mehatxua izan liteke, ekimena aurrera ateratzeko behar diren pertsona profil ezberdinak, lan arlo guztiak ezagutuko/menperatuko dituzten pertsonak, aurkitzea eta talde motor sendo bat lortzea. Kontrako kasuan, herri handietan mehatxua komunitatea sustatu eta sortzeko zailtasuna litzateke, eta aukera, ekimena aurrera ateratzeko behar diren pertsona profil ezberdinak izateko probabilitate handiagoak.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

Bestalde, arlo politikoa ere aukera eta mehatxu izan daiteke. Alde batetik, aukera sortzen da Udalak ekimena sustatzeko interesa, jarrera baikorra eta laguntza eskaintzeko prestutasuna badu. Eta, aldiz, mehatxua sortzen da jarrera baikor hori ematen ez bada. Batez ere, udal eta bestelako estalki publikoen lagapena eskuratzeko aukerarik ematen ez bada; zaila delako jabetza pribatuko teilatuen/estalkien lagapena eskuratzea.

Ingurunearekin lotutako aukera eta mehatxuez gain, ekimenean bertan indarguneak eta ahuleziak identifikatu daitezke. Kasu honetan, indargune nagusienak, batetik, estalkiak (teilatuak) arlo pribatuan lortu behar izateak sortu duen ezagutza eta eskarmentua, eta bestetik, komunitate energetikoen definizio edo izaera berak, komunitatea sustatu eta sortzeko duen gaitasuna dira. Aldiz, ahulezi nagusia da mota honetako ekimenak konpromisoa eta inplikazioa handia eskatzen duten ekimenak direla eta ekimenaren lekukoa ez hartzearen arriskua dakar.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

ERAMANKOOP

1. Esperientziaren deskribapena

1.1. Negozio ereduaren deskribapena

EramanKoop Gasteizen kokatzen den lan-elkartuko kooperatiba da. Ziklologistikaren sektorean dihardu eta banakuntza enpresen, merkatarien eta jatetxeen produktu eta salgaiak bizikleta bidezko banaketa da bere jarduerak .

Ziklologistika, hirietan zabaltzen ari den eta plataformako kapitalismoari oso lotuta dagoen jarduerak da; horregatik, lan baldintza txarrak oso ohikoak diren sektore prekariora da (autonomo faltuak, lan ordutegi malguegiak eta soldata baxuak esaterako). Sektorearen bideragarritasunari begira, eskala-ekonomiak garrantzitsuak dira oso, baina, aldi berean, eremu urbanoaren kaosaren aurrean, ziklologistikak ibilgailuen bidezko banakuntza baino jarduerak eraginkorragoa suposatzen du kasu askotan. Batez ere, ibilgailuen bidezko banakuntzarako arazoak sortzen dituzten irisgarritasun zaila duten zonaldeetan, emisio txikiko zonaldeetan eta trafiko handia pilatzen den zonaldeetan da ziklologistika eraginkorragoa.

Horrenbestez, argi daude EramanKoop bezalako kooperatiba batek ase nahi dituen beharrak. Alde batetik, lan baldintzak duindu ziklologistikaren sektorean. Zentzu honetan, EramanKoopetik lortu nahi zutena zen, batez ere, orduko soldata finko bat ezartzea ohikoak diren banaketaren araberrako ordainsarien ordeztu. Eta beste aldetik, ekologikoki iraunkorragoa den hiri-banakuntza ereduak sakondu. Ikuspegi ekologikoa EramanKoopen sorreratik presente egon den irizpidea bada ere, ase nahi duten lehenengo beharrek uztartzea ezinbestekoa da. Izan ere, plataformako kapitalismoari lotutako banakuntza enpresa batzuk ere ekologikoki jasangarriak izango lirateke bizikletarekin banatzen duten heinean. EramanKoopetik ekologikoki jasangarria den jarduerak baten bitartez lan baldintza duinak sortu nahi ditu jasangarritasun ekologikoa eta soziala uztartuz, greenwhasing delako marketing ereduak kanpo.

Zehazki, EramanKoopetik eskaintzen duen zerbitzua bikoitza da. Bat, banakuntza enpresa handientzako azken milia banakuntza zerbitzuak eta hiriko merkataritzak txiki eta jatetxeen produktu eta salgaien banakuntza. Hau da, alde batetik DHL edo GLS bezalako logistika enpresa handien azken banakuntzaz arduratzen dira, batez ere

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

ibilgailuz heltzea zailagoa diren hiriko zonaldeetan. Eta bi, azken edo tarteko bezero eta kontsumitzaileari zuzendutako bertoko merkatarien produktu eta salgai eta jatetxeen janari banaketa zerbitzua eskaintzen dute. Modu honetan, banakuntzaren espektrora zabalean lan egiten dute, behar ezberdinak dituzten bezeroekin. Izan ere, eskala ekonomiak garatzea bezain garrantzitsua da lan-zama egunaren ordu tarte ezberdinetan orekatzea eta egun osoan zehar ekoizpen-jarduera zabaltzen dela bermatzea; aktibitate bakarrean zentratzea ez baita errentagarria. Horregatik, EramanKoopen lan-zamaren herena bideratzen da banakuntza enpresa handiei zuzendutako azken milia zerbitzura, beste heren bat bertako merkataritza txikira eta beste heren bat hiriko jatetxeetara.

Goizean zehar azken miliako banakuntza bertoko merkataritzako banaketa zerbitzuekin uztartzen da. Langile bakoitzari banaketa ibilbide bat zehazten zaio eta merkatari txiki baten eskaria sortzen denean, ibilbide horretan uztartzen da modu eraginkor batean. Bazkal eta afalorduetan aldiz, janari banakuntzak lan zama handiagoa suposatzen du. Modu honetan, lan-jardunaldia egun osoan zehar banatzen da eta zerbitzu profesional eta eraginkorra eskaini ahal dute.

Aipatutako eraginkortasuna eta profesionaltasuna eskaintzeko, ezinbestekoa da EramanKoopek duen software informatikoa. Logistika software hau nazioartean eragiten duen CoopCycle federazioak garatu du eta bertan federatuta dauden kooperatibei oso prezio merkean eskaintzen die. Oro har, fakturazioaren inguruko informazioa, bezeroen eskaeren zentralizazioa eta, batez ere, banakuntza ibilbide eraginkorren diseinua ahalbidetzea da softwareak eskaintzen duena.

Softwareaz gain, lokala handia izan behar da bizikletak gorde eta konpondu ahal izateko, baita banakuntza enpresetatik azken milian banatu behar diren paketeria jasotzeko ere. Era berean, laneko tresna nagusia zama-bizikletak dira, Danimarkatik ekartzen duten kooperatibaren hornikuntza bakarra izanik.

Honekin guztiarekin esan daiteke EramanKoopek gizarteratzen duen ideia banaketa ekologiko eta duinarena dela. Eta beraz, balio hauekin bat egiten duten merkatari,

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

jatetxe eta amaierako kontsumitzaileei plataforma kapitalismoari lotuta dauden aukeren aurrean bidezko alternatiba bat eskaintzen die. Zentzu honetan, bezeroekiko komunikazio estrategia proaktibo zein erreaktiboa uztartzen dute. Hau da, alde batetik, kooperatibak momentu bakoitzean zer bezero mota behar dituen aztertzen du eta departamentu komertzialak behar horretan enkaxatzen duten bezero berriak bilatzen ditu modu proaktiboan. Bestalde, EramanKoopekin harremanetan jartzen diren merkatari eta jatetxeak ere badaude. Tokiko merkatari eta jatetxeei EramanKoopek softwarea instalatzen die eta, behar izatekotan, softwarea eusteko azpiegitura (hardwarea: tablet-a) lagatzen die fidantza baten truke.

EramanKoopek egitura ekonomikoari dagokionez, hasierako inbertsioa bi zama-bizikletakoa izan zen, non zama-bizikleta bakoitzak 2.500€ inguru balio duen. Horretaz gain, jardueraren gastu nagusienak softwarea, lokalaren alokairua eta, batez ere, soldatak dira. Soldatak gastu guztien %70a dira. Lokala eta aseguruak bezalako kostu finkoak, gastu egitura totalaren %15a dira eta softwareak aurreko urteko fakturazioaren %2a suposatzen du, lehenengo urtean ordaintzen ez delarik.

Diru-sarrerei begira, ia %100a eskaintzen duten banakuntza zerbitzutik eratortzen da. Ez dago kuotarik, ez diru-laguntza adierazgarririk. azken miliako banakuntza zerbitzuaren prezioari dagokionez, banakuntza enpresek zehazten dute. Aldiz, jatetxe eta tokiko merkatariari ematen zaion zerbitzuan, eskaeraren prezioaren %25a eskuratzen du EramanKoopek, beste plataformek eskaintzen dutena baino baxuagoa delarik.

Negozio ereduarekin bukatzeko, ziklologistikaren sektorean interkooperazio sareetan sakontzea da EramanKoopek ESEari egiten dion ekarpen nagusia. Nazioarte mailan CoopCycle federazioaren parte eta bultzatzailea izateaz gain, Euskal Herriko beste ziklologistika kooperatibekin azpi-federazio bat sortu dute bezero, zerbitzu eta gastu batzuen amankomunatzeaz gain, jarduera erreplikatzeko gakoak partekatzea helburu duena.

1.2. Barne komunitatea

EramanKoopen barne komunitateari begira, 24 pertsonak osatzen dute kooperatiba. Horietatik erdiak lan-bazkide izaera dute eta beste erdia soldatapeko langileak dira. Hala ere, lan-jardunaldien banaketari begiratzen badugu, lan-bazkideek jardunaldien bi heren betetzen duten bitartean soldatapeko langileek jardunaldien herena betetzen dute. Izan ere, soldatapeko langileen artean ohikoa da diru-sarrerak nahi dituzten ikasle gazteak aurkitzea. Orokorrean hauek ordutegi malgutasun handiagoa behar dute eta ez dituzte nahi jardunaldi osorik, baizik eta ordu batzuetako lan jardunaldi partziala. Horregatik ere ohikoa da asteburuetako txandetan nagusi izatea hauek.

Ekoizpen jarduera nagusiari begira, langile guztien funtzioak berdinak dira. Hau da banakuntzari lotutako funtzio berdinak dituzte lan-bazkideek eta soldatapeko langileek. Hala ere, produktibitatea, denborak eta maginak kontrolpean hain garrantzitsua den sektore honetan, eraginkortasun arrakala nabaria dago bazkideek eskaintzen duten zerbitzua eta soldatapeko langileek eskaintzen dutenaren artean. Egoera hau logikoa ikusten da lan-bazkideen partetik; hauek kooperatiba propiotzat hartzen dutelako eta proiektuarekiko erantzukizun handiagoa daukatelako.

Bazkidetze prozesua 6 hilabete eta urtebete artean irauten du. Denbora tarte horretan soldatapeko langileek asteburuetan hasten dute lan egiten eta, pixkanaka, astean zehar lan egitera igarotzen dira. Urtebete igaro baino lehen, bazkide izateko aukera ematen zaie, eta ez da inoiz urtebete baino gehiagoko soldatapeko langilerik kontratatzen.

Banakuntzari lotutako funtzio nagusiaz gain, langile-bazkideek kudeaketa eta administrazio eginkizunak betetzen dituzte kooperatiban. Lan hauek marketin departamentuan, azken mila departamentuan, merkataritza departamentuan, jabetxeen zerbitzuen departamentuan, faktura, nomina eta egutegiaren kudeaketan bezalako jardueretan burutzen dira. Lan-bazkide bakoitzak ordu batzuk lan egin behar ditu horietako bat baino gehiagotan bere gustu pertsonalen arabera. Modu honetan, kooperatiba handitzen joan ahala ez da lanaren banaketa sozialik sortzen non administrazio lan guztia pertsona konkretu batzuei dagokien, eta eginkizunak, erantzukizunak eta kooperatibaren inguruko ezagutza banatzen dira.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Hilero asanblada bat egiten da. Bertan lan-bazkideak biltzen dira, horietako bat soldatapeko langileen bozeramaile funtzioa hartzen duelarik. Azken hau, alde aurretik langileekin bildu da haien egoera, eskaerak, kezkak eta iritziak ezagutzeko eta hauek asanbladan mahaigaineratzeko. Asanbladan kooperatibaren jardunaren inguruko erabakiak hartzen dira, baina lehenengo puntua beti da bazkideen egoera pertsonalaren inguruko ezagutzea. Horren arabera lan zama orokorra txikitzea erabaki daiteke. Izan ere, urteko garai batzuetan, neguko oporrak kasu, lan zama bereziki handitzen da eta, behin igarota, behin behinean bezero batzuekin lan egiteari utzi ahal zaio lan zama txikitzeko.

Lan elkartuko kooperatiba txikia eta nahiko berria izanik, kanpo komunitate eskasa garatu du bezeroez gain. Aipatu bezala, bezeroak banakuntza enpresa handiak, tokiko merkatari eta jatetxeak dira; hauetako bakoitzak bere behar propioak dituelarik. EramanKoopek behar hauetara egokitzea lortu du eta, adibidez, banakuntza enpresei azken miliako banaketa zerbitzu eraginkorra eskaintzea lortu du. Tokiko merkatari eta jatetxeei, haien produktuak banatzeko aukera ekologiko eta soziala eskaini diete beste plataformek sortzen duten lan prekarioaren aurrean.

1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea

EramanKoozentzat, laguntzen duen eraldaketa prozesu nagusia bere ekoizpen jarduerarekin lortzen du; prekaritatea nagusi den sektore batean lan duina sortzea lortu baitu. Modu honetan lurraldeko merkatari, jatetxe eta amaierako kontsumitzaileei bidezko alternatiba bat eskaintzen die plataforma kapitalismoari lotuta dauden aukera prekarioen aurrean. Eta aldi berean, tokiko merkatari eta jatetxeei hazten eta bide berriak irekitzen laguntzen die; tokiko ekonomia indartuz. Ohiko banakuntza plataformek duten iritzi soziala ekidin eta EramanKoop banakuntza bitartekari erabilia, merkatari eta jatetxe hauen irudia hobetzen laguntzen duelako. Lurraldearen oreka sozioekologikoari egiten dion ekarpen hau jasangarritasun sozial eta ekologikoan baitago oinarrituta.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

Bestalde, tokiko ekintzailatza foroetan parte hartu dute, plataforma kapitalismoaren sektore adierazgarri batean alternatiba ekosozial bat eskaini ahal denaren ideia gizarteratuz eta etorkizuneko ekintzaileei beste aukera bideragarriak existitzen direla erakutsiz. Horretaz gain, Bizikleteroak elkartearekin harremanak garatu dituzte, baina, esan bezala, lurraldearen eraldaketari egiten dioten ekarpen nagusia bere ekoizpen jardueraren bitartez burutzen dute.

1.4. Analisi juridikoa

EramanKoop kooperatiba txikia bezala erregistratuta dago. Formula honen bitartez egituratzearen atzean dauden arrazoi nagusiak bi dira. Alde batetik, kooperatibaren izaera juridikoa hartzea erabaki zuten lan fisikoa nagusi den sektore batean inork ez zuelako nahi besteen lanaren gainean erabakiak hartzea. Ordutegiak eta klimatologia bezalako ezaugarriek asko baldintzatzen baitute lanaren esperientzia. Eta beraz, ardurak lana aurrera eraman behar dutenen artean banatu ahal izateko erabaki zuten formula honen bitartez egituratzea. Horrez gain, Coopcyclek eskaintzen duen softwarea eskuratu ahal izateko, kooperatiba gisa egituratuta egon behar da.

Bestalde, kooperatiba txikiaren formula izateak soldatapeko langileak kontratatzekeo malgutasun handiagoa ematen zien. Eta malgutasun hori beharrezkoa da lan txanda batzuk bete ahal izateko, batez ere diru sarrerak nahi dituzten gazteekin.

Hala ere, etorkizun hurbilean izaera juridikoa aldatzera behartuta ikusi daitezke, izan ere dagoeneko kooperatiba txiki batek duen 10 bazkideetako muga gainditu dute.

- Aplikagarri den legea: Euskadiko Kooperatiben Legea 11/2019 Legea, abenduak 20koa)

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa
Ziklologistika, banaketa zerbitzua txirrinden bitartez

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Lan fisikoa nagusi den sektore batean inork ez zuelako nahi besteen lanaren gainean erabakiak hartzea. Ordutegiak eta klimatologia bezalako ezaugarriek asko baldintzatzen baitute lanaren esperientzia. Eta beraz, ardurak lana aurrera eraman behar dutenen artean banatu ahal izateko erabaki zuten formula honen bitartez egituratzea. Horrez gain, Coopcyclek eskaintzen duen softwarea eskuratu ahal izateko, kooperatiba gisa egituratuta egon behar da.

Kooperatiba txikia aukeratu zen soldatapeko langileak kontratatzeke malgutasun handiagoa ematen duelako. Eta malgutasun hori beharrezkoa da lan txanda batzuk bete ahal izateko, batez ere diru sarrerak nahi dituzten gazteekin.

Hala ere, etorkizun hurbilean izaera juridikoa aldatzera behartuta daude, dagoeneko kooperatiba txiki batek duen 10 bazkideetako muga gainditu baitute, 12 direlako. Izan ere, legez, kooperatiba txikietan, langile-bazkide mugagabeak, gutxienez bi, eta gehienez 10 izan daitezke. Kopuru hori gaindituz gero, estatutuak aldatu behar dira, kooperatiba arrunta izateko.

Soldatapekoei dagokienez, bost urtez eraketatik, gehienez 5 soldatapeko kontrata daitezke. Bost urte igaro ostean, kooperatiba arrunten legedia aplikatu behar da.

3. Kooperatiba mota

Lan elkartuko kooperatiba txikia.

4. Lurralde esparrua

Euskadiko Autonomia Erkidegoa

5. Bazkide motak

- Langile-bazkideak. Une honetan 12.
- Soldatapekoak. Une honetan 12.

Soldatapekoak langile-bazkide bihurtzeko, probaldia gainditu behar dute, gehienez 6 hilabetekoa. Epe hori 18 hilabete arte luzatu daiteke lanpostuak baldintza profesional bereziak galdatzen dituenean. Dena den, langileen eskaera ukatua izan daiteke, besteak beste, kooperatiban langile-bazkide gehiago ez badira behar.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

- Batzar Nagusia
- Administratzaile solidarioak. 2 bazkide mugagabe izango dira.

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desagitea erabakitzeko

7. Erabakimen ekonomikoa

7.1 Gutxieneko kapital soziala: 3.000 euro

7.2 Derrigorrezko ekarpenak

- Iraupen mugagabeko langile-bazkideak: 4.000 euro
- Iraupen mugatuko langile-bazkideak: 500 euro (une honetan ez daude)
- Bazkide laguntzaileak: 500 euro (une honetan ez daude)

7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa

- Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %20a
- Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a
- Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - o Itzulkin kooperatiboak banatzeko bazkideen artean
 - o Borondatezko Funtsak hornitzeko
 - o Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa horniketa osagarria egiteko

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- o Soldatapekoen artean banatzeko, derrigorrezkoa denean, kooperatibaren emaitzetan parte hartze moduan.
- 8 Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: autonomoen araubidea
- 9 Gatazkak konpontzeko, arbitraje koooperatiboko sistema: bai

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

2.1. Elementu gakoak zehaztapena

Egitasmoa beste lurralde batera eramateko hiru elementu klabe	- Sektore-interkooperazio sareetan parte hartzea: Bereziki mundu mailan eragiten duen CoopCycle erakundean federatzea. Izan ere, sektore berdinean diharduten munduko kooperatiben komunitatea indartzeaz gain, euren lana aurrera eramateko ezinbestekoa den Softwerra eskaintzen du federakundeak. Bestalde, gertuko testuinguru espezifikoak eta bere ezaugarriak ezagutzen dituzten sektore berdineko beste kooperatibekin saretzea eta bezero, zerbitzu eta gastu batzuen amankomunatzea. - Biztanleria kopuru minimo bat duen hiri/herri batean kokatzea edo gertu dauden herri-eskualde batean eragitea. Biztanleria kopuru minimoa zein den jakiteko, nahikoa da beste plataformetako <i>rider</i>-ak dauden edo ez begiratzea. Beharbada, hiri ertainak egokienak izan daitezke tokiko merkataritzaren alde dagoen komunitatea zabalagoa delako hiri globalen aurrean. - Ziklologistikaren sektorearen barruan ahalik eta zerbitzu zabalena eskaintzea beharrezkoa da. Banakuntza enpresentzako paketeria zerbitzuak eta bertako denda eta jatetxeetako produktuak uztartzea ezinbestekoa da lan-jardunaldia egun osoan zehar banatzeko.
---	---

- Negozio ereduan

Kokapenaren analisia	Lokala zama bizikletak gordetzeko eta konpontzeko eta azken miliako paketeria jaso ahal izateko tamaina minimoa izan behar du. Hiriaren erdigunean egoteak lagungarria izan daiteke.
Idea: produktu-zerbitzua	Ziklologistikaren sektorean enplegu duina sortzea. Sektore honetan, eskala-ekonomiak garrantzitsuak dira, hortaz, egun osoan zehar lan zama banatzea eta banakuntza efizientea egitea beharrezkoa da.
Harremanak-Komunikazioa	Irudi korporatibo zaindua eta antzemangarria izatea. Ordu asko kalean ibiltzen diren bizikletak direnez, aukera ona da jendeak kooperatiba ezagutzeko. Aldaketa urbano sakonak gertatzen diren uneak aproposenak izan daitezke ideia zabaltzeko (Emisio txikiko zonaldeen irekiera, ibilgailuen erabiliera mugatzeko beste araudiak, merkataritza ehun handirik gabeko auzoen eraikuntza...).
Egitura ekonomikoa	Efizientziaz lan egitea ahalbidetzen duten logistika softwarea
Balantze sozioekologikoa	Jarduera bera soziala (lan-baldintza duinak) eta ekologikoa (bizikletan egiten den banakuntza).

- Komunitatearen txertatzea

Lan taldea	Lan seriotasuna, zerbitzu eraginkor eta profesionala emateko.
Bazkide kolaboratzaileak	
Soldatapeko lana	Beharrezkoa lan-txanda batzuk betetzeko. Produktibitate arrakala handia identifikatu da bazkideek eskaintzen duten zerbitzua eta

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

	soldatapeko langileek eskaintzen dutenaren artean. Logikoa ikusten da.
--	--

- Eraldaketa lurraldean

Lurralde ekosistema komunitarioa	Ezinbestekoa da bertako egitasmoekiko begirunea duen biztanleria; tokiko merkataritza eta jatetxeetan kontsumitu nahi duena.
Tokiko ehun enpresariala	Merkataritza lokal indartsua egotea garrantzitsua da.
Lurralde ekosistema kooperatiboa	
Lankidetzeta publiko-komunitarioa	

2.2. AMIA analisia

Orokorrean, testuinguru historiko mesedegarria da hau ziklologistikaren sektorean barneratu nahi duen enpresarentzat. Jasangarritasun ekologikoa ipar duten hiri-politikek marko instituzional aproposa sortzen dute mota honetako jarduera ekonomikoen garapenerako. Zentzu honetan, hirietan ekoizten den espazio eraikia ere geroz eta mesedegarriagoa da, orokorrean, bizikletaz egiten den banakuntzarako. Ibilgailuen abiadura murrizteko erriak, bidegorrien eraikuntza edo emisio txikiko zonaldeen sorkuntza bezalako aldakuntzek ziklogogistikari ohiko banakuntzari baino aukera handiagoak ematen baitizkiote.

Bestalde, hiriaren tamainak, antolamenduak eta kulturak aukerak handitu edo txikitu ditzake. Tamainaren aldetik, badirudi hiri ertainak izan daitezkeela aproposenak. Izan ere, efizientzia handiagoz lan egitea ahalbidetzeaz gain, tokiko merkataritza proiektio globalagoa duten hiri handietan baino errotuagoa izan dezakete. Hau da, tokiko merkataritzaren eta azkenengo kontsumitzaileen aukerak baldintzatzen duen kultura ere bada gako garrantzitsu bat horrelako egitasmo bat martxan jartzeko orduan. Hiri-antolamenduari dagokionez, merkataritza ehun handirik gabeko auzo berrien eraikuntza edo espazioaren oinezkotearen aldeko jarrerak EramanKoop bezalako egitasmo baten merkatua handitzeko lagungarriak dira. Hala ere, ziklologistika egitasmo baten bideragarritasuna posiblea den aztertzeak, nahikoa da beste plataformetako rider-ak dauden begiratzearekin. Izan ere, badaude hiriak non baldintza optimo hauek bete gabe ziklologistika kooperatibak garatu diren.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Alabaina, azkar hasten ari den merkatu berria izanik erakargarria da ere beste enpresentzako; batez ere plataforma kapitalismoari lotuta daudenentzako. Gainera, greenwashing-a egitea nahi duten enpresentzako merkatu-nitxo errentagarria bihurtzen ari da. Horregatik da garrantzitsua sektore honetan kokatzen den kooperatiba batentzako lan baldintzak duintzearen alde egiten deun ekarpena gizarteratzea; jasangarritasuna ekologikoa eta soziala uztartzen dituela azalaraztea, alegia.

Enpresa handi batentzako erreza izan daiteke merkatu honetan barneratzea edo banakuntza zerbitzuak zama-bizikleten bitartez eskaintzen hastea. Izan ere, jarduera aurrera eramateko beharrezkoa den azpiegitura ez da bereziki garestia, eta beraz, une batetik bestera zama-bizikleten flota berri bat agertu daiteke hiri batean. Mehatxu hau EramanKoop bezalako kooperatiba txiki batek inbertsio gaitasunean duen ahuleziarekin uztartzen bada, merkatu kuota murriztua ikusi dezake epe laburrean.

Ahulezia eta mehatxu hauei erantzuteko, EramanKoopek duen indargune nagusia lantaldea da. Lan honen izaeragatik, bizikletaz ibiltzea eta aurrez aurreko arreta uztartzen dira eta horrek antzeko gustuak dituzten langileak erakarri ditu kooperatibara; giro berezia sorraraziz. Ordutegiek eta klimatologiari lotutako zailtasunek lan-jardunaldia gogortu dezaketenez, erabaki hauek hileroko asanbladan hartzen dira. Modu honetan ez du inork besteen gaineko lanaren inguruko erabakirik hartzen, hortik sortu litezkeen gatazkak saihestuz.

Bigarren indargune nagusia ekoizpen jardueraren antolakuntzarekin lotuta dago. Bezeroek efizientzia handia eskatzen duten sektore honetan, ezinbestekoa da logistika kudeatuko duten tresnak garatzea. EramanKooopen kasuan, CoopCycle federazioak garatzen duen logistika softwarea erabiltzen du. CoopCyclen autonomorik ez duten nazioarteko ziklologistika kooperatibak federatu daitezke eta, beste onuren artean, kalitatezko logistika software bat erabiltzeko aukera ematen du oso prezio merkean. Modu honetan lan egiteak abantaila garrantzitsuak ematen dizkie beste enpresen aurrean. Aipatutako hirien konfigurazioak eta EramanKooopen lanaren antolaketa ereduak ibilgailuen bidezko banakuntza enpresak baino efizientzia handiagoa izatea ahalbidetzen baitie kasu askotan.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Hala ere, urteko momentu batzuk bereziki gogorrak dira sektore honetan. Zentzu honetan, lantaldearen jasangarritasun mental eta fisikoari begiratuta, enpresaren jasangarritasunarentzako kaltegarriak izan daitezkeen neurriak hartzera behartuta ikusi daitezke. Hau gertatzen denean, bezero batekin edo batzuekin behin behinean lan egiteari uzteko erabakia hartzen da asanbladan.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

MAITELAN

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

1. Esperientziaren deskribapena

1.1. Negozio ereduaren deskribapena

Maitelan Koop. S. zaintza lanei kolektiboki erantzuteko tresna da. Ematen dituen zerbitzuen artean, mendekotasun egoeran dauden pertsonen gizarte eta osasun arreta (etxez etxeko arreta eta aisialdikoak), gizarte akonpainamendua (baita ospitaleratze garaitan) eta garbiketa zerbitzuak nabarmentzen dira. Enpresa modura, gizarte ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba integral moduan erregistratua dago, eta beraz, hiru bazkide mota barnebiltzen ditu: lan bazkideak, bazkide erabiltzaileak eta bazkide laguntzaileak. Lan bazkideen artean emakume migratuen profilak nagusitzen dira, pertsona migratuen kolektiborako integrazio soziolaboralerako tresna gisa ere diseinatua izan baita Maitelan zaintza zerbitzuak eskaintzeaz batera.

Egitasmoaren ernamuina emakume migratu ekintzaileen ekimenetik sortua izan zen, kasu honetan, Hernaniko herriko eragileen ekosistema propio baten abaroan. Honela, udalaren zein ekonomia sozial eraldatzaileko sareen lankidetzaz sorturiko ekintzailatza sozial kooperatiboko programaren laguntzaz, eta Hernani Burujabe garapen estrategiaren eskutik joan zen egitasmoa forma hartzen, inguruan bestelako gizarte eragile andanaren parte hartzearekin: AMHER Hernaniko Elkartea Multikulturala, Hernaniko Emakumeen Etxea, Iturola Hernaniko Elkarlan Sorgunea, eta Euskal Herriko Unibertsitatea, besteak beste. Egun 50 erabiltzaile inguruk kontratatzen ditu Maitelan-ek eskainitako zaintza eta garbiketa zerbitzuak eta eskala jauzi bat emateko planteamenduen lanketan dihardute.

Maitelan zaintza zerbitzuak ematen dituen kooperatiba da, nagusiki mendekotasun egoeran dauden pertsonen etxez etxeko arreta eta gizarte akonpainamendua emanez, nahiz eta puntualki adingabeen esparruan ere aritu. Nagusiki zaintza lanak egin arren, garbiketa zerbitzuak ere eskaintzen dituzte etxe partikular zein enpresa bulegoetan.

Bere xede soziala, beraz, nahiko modu irekian zehaztua geratzen da: “proporcionar servicios personalizados de calidad que garanticen el derecho universal de cuidado, sanidad, socialización, trabajo e información de las personas y organizaciones. Así como ser un instrumento para cubrir las necesidades del territorio donde desarrollará su

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

actividad” (Estatutu sozialak: 1). Estatu sozialetatik, hortaz, kooperatibaren eginkizuna zerbitzu pertsonalizatuen esparruan kokatzen da, nahiz eta agerian utzi hori bitarteko bat dela pertsona guztien gizarteratze eta lan eskubide unibertsalak asetzeko, baita lurraldeko beharrian ezberdinak estaltzeko ere.

Jardueraren sektorea beraz gizarte zerbitzuen esparrua litzateke, etxez etxeko zerbitzu eta gizarte akonpainamenduarena eta beraz, oso ezaugarri berezikoa: ekonomia informalekin lehiatzen dute nagusiki, kasu askotan etxeguneetan kontraturik gabe lanean diharduten emakume (migratu) zaintzaile partikularrek osatzen duten sektorean. Sektorearen egoera informalak ondorio oso kaltegarriak ditu zentzu guztietan: eskaintzen diren zaintza zerbitzuak benetako kostuaren azpitik eskaintzen dira gehien gehienez, eta egoera oso zaurgarrietan lanean dihardute bertako langileek, gutxienezko lan baldintzarik gabe (opor, desentsegu, baja eskubide), askotan egoera irregularrean, pobrezia, gerra edo bortxakeria egoeretatik ihesi eta erabateko mendekotasun egoera dutelarik enplegatzailearekiko.

Emakume migratu, prekarizatu eta isolatuek osaturiko sektore batean lanaren kolektibizaziorako formulak planteatzeak zailtasun ugari egin behar die aurre (burokratikoak, pertsonalak, harremanezkoak, eta kulturalak). Maitelan, zentzu horretan, bi beharrian nagusi aldi berean asetzeko erronkatik sortzen da: pertsona migratuen lan aukerak, baldintzak eta eskubideak hobetu, mendeko pertsonen zaintza eskubideak asetzearen bitartez. Zaintza lan horiek beharrian den herritar orori eskaintzen zaizkio, berdin kooperatibako kide izan edo ez, eta baita Hernanitik kanpoko herritarrei ere. Egitasmoaren hastapenean herritar talde engaiatu batek osatu bazuen ere erabiltzaile multzo handiena, gaur egun, eta zerbitzuaren hobekuntzari eskerrak, herritar multzo handiagoetara hedatu ahal izan da egitasmoaren irismena.

Jarduerari dagokionean Maitelan nagusiki zaintza lanen esparruan kokatzen da, mendekotasun egoeran diren pertsonen beharrian fisikoak asetzeaz gain (jantzi, garbitu, jaten eman), autonomiaren lanketan indar berezia egiten dute, pertsona horien gaitasunen galera ez areagotzeko dinamikak sustatuz eta horien harreman sozialak sendotuz, bakardade egoerak gainditu eta komunitatearen parte eginez (aurrerago

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

azalduko de Auzozaintza programaren bitartez, nagusiki). Zaintza lanez gain, bulego zein etxe partikularretan garbiketa zerbitzuak eskaintzea funtsezko jarduera da langileen lan jardunaldiak osatzeko, etxez etxeko eta akonpainamendu zerbitzuak oro har eguneko une bertsuetan eskatzen baitira, eta beraz, garbiketa lanen ordutegi malguagoi esker osa litezke jardunaldiak.

Maitelaren helburua, hortaz, pertsona migratuen laneratzeko tresna malgu gisa jardutea litzateke lehen lehenik, eta bere balio erantsi nagusia pertsona migratuen bizi eta lan baldintzak duintzean datza, nagusiki: hitzarmen sektorialaren gainetiko soldatak ordaintzea, gizarte segurantzako kotizazioak erregimen orokorrean egitea, baja eskubidea eta opor ordainduak aitortzea, desplazamendu gastuen konpentsazioa, prestakuntza profesionala lanorduan baitan ematea (euskara, gizarte integrazio moduluak, zaintza lanetarako habilitazio profesionala), zaintza lanetan bortxakeria egoeren aurreko protokoloak aktibatzea, eta langileen osasun mentala zaintzea.

Maitelane egun ematen duen zerbitzuaren antolamendurako bi profileko langileen eginkizunak uztartzen dira: zaintzaile izateko habilitazio profesionalik eskuratu ez dutenek garbitzaile modura dihardute, habilitaziodunek zaintzaile, eta horien artean pertsona batek liberazioa du koordinazio lanak burutzeko eta lan taldean sor litezkeen hutsuneak (bajak, oporraldiak eta baimenak) estaltzeko. Zentzu horretan, lanaren antolaketa egoki baterako funtsezkoa izan da zaintzaileen artean pertsona bat liberatu ahal izatea (koordinatzaile funtzioan) astero eskaturiko zaintza orduak langileen ordutegiekin uztartzeko. Eskari oso aldakorreko zerbitzuez ari gara, nabarmen aldatzen baitira denbora gutxian mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoerak eta horien zaintza premiak. Ordu eta zerbitzu ezberdinen ordutegi koadrante horiek hasieran zaintzaileek beraiek lanetik kanpoko borondatezko orduen bitartez antolatzen, egun pertsona koordinatzaile baten lan orduetan antolatzen igaro dira.

Ilido beretik, aurrera begira barne koordinatzaile honetaz gain proiektu kudeatzaile bat kontratatzearen premia dute, buruan duten eskala jauzia emateko behar diren proiektuak gauzatzeko. Pertsona honek inklusioko profila betetzeaz gain eskualde mailan Maitelane eskain ditzakeen zerbitzu berrien (ostalaritza, udal ekipamenduen

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

kudeaketa, esaterako) diseinu eta exekuzioan aritzeko gaitasunak bildu behar lituzke. Eskala jauzia emateko momentuan daude beraz, egungo plantila bikoizteko perspektibarekin, inklusioko profileko pertsona gehiago kontratatuz zerbitzuak dibertsifikatu ahal izateko. Trantsizio hori gauzatzeko bi lan ildo nagusitan ari dira lanean: laneratze enpresa sortzeko aukerak aztertzen Gizatearen erakundearen laguntzaz, eta bestelako jardueretara irekitzea, Beterri-Buruntza garapen agentziarekin elkarlanean.

Egitasmoak izan duen ildo komunikatiboa zaintza premien erantzun kolektiboarena izan da nagusiki, eta bere baitan barnebildu nahi izan ditu bi kolektibizazio prozesu ezberdin: bata zaintzaileen kolektibizazio prozesua lan elkartuko kooperatibaren bitartez, eta bigarrena herritarren asoziazio prozesua zaintza lanen kolektibizaziorako. Honela, bigarren ildo hau paraleloki garatu izan da lehenarekin, eta hastapenetik bilatu izan zen Hernaniko herritarrez gain bestelako gizarte eragileen inplikazioa ere (AMHER, Hernaniko udal ordezkariak -berdintasunekoak eta ekintzailetzakoak-, Iturola-Koopfabrikak, GEZKI-UPV/EHU). Lehen bultzada horretatik herritarrek osaturiko lan talde ezberdinak eratu ziren (komunikazioa, bazkidetzea..) baita Asanblada Komunitarioak deiturikoak ere, egitasmoa jendarteratu eta gutxieneko oinarri sozial bat artikulatzeko egitasmoaren inguruan.

Egitasmoaren egitura ekonomikoari dagokionean, proiektuak bideragarri izateko bidean oztopo askori aurre egin behar izan dio. Lehen lehenik sektoreko "lehia desleialari", esan bezala ekonomia informalean diharduten langileen soldatekin edo etxez etxekoan diharduten enpresa pribatuen tarifekin prezioan lehiatzea uztar ezina baita langileen lan baldintzak duindu nahiarekin. Mendekotasun egoeran diren pertsonen egoera larriagotzeak are jasanezinagoa egiten du beharrezko zaintzak etxez etxeko zerbitzuen tarifekin eskaintzea, bezero galera etengabea sorraraziz. Gauzak horrela, egitasmoak abiarazteko ezinbestekoa izan zen laguntza publiko eta pribatuen bidea, Hernaniko udalaren programek, banketxeen funts sozialetako diru laguntzek zein donazio pribatuek posible egin zutelarik jarduera ematen hasi ahal izatea.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailletza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Behin abiatuta, gastuen kontrol zorrotza egiteak ahalbidetu du nagusiki proiektuaren bideragarritasuna. Alde batetik orduko tarifa ekoizpen kostuaren azpitik ez ematea erabaki zen, langileei sektoreko hitzarmenaren gainetik ordaintzeak orduko tarifa ez lehiakorra eskaini beharra (20,05 euro orduko, ohiko tarifaren bikoitza kasi) asumitzea ekarri zuen, eta halaxe jakinaraztea erabiltzaileei. Erabiltzaileek oro har, tarifa berriaren azalpena ulertu eta onartu zuten, eta gehiago ordainduta ere, alde hori zaintzaileen lan baldintzak duintzera bideratu izana positiboki baloratu zuten. Beste aldetik, egitasmoak ordaindu ezin zuen kudeatzaile profesional baten zerbitzuak eten behar izan zituen. Kudeaketa hutsune hori denbora luzez zaintzaileen borondatezko orduen bitartez estali zen, eta egun bazkide kolaboratzaile gisa diharduten pertsona bolondresen ordaindu gabeko lanaz burutzen dira lan horietako asko eta asko (marketina, proiektugintza, zerbitzu informatikoak eta aholkularitza juridikoa, esaterako).

Gastuen kontrol zorrotzaz gain, oraindik orain udalak zerbitzu zein dirutan proiektuari emaniko babesak berebiziko garrantzia hartzen du sarrera egituren. Lehenik Iturola udal espazioaren dohaineko erabileraren bitartez, enpresaren funtzionamendurako ezinbestekoak diren zenbait gastu (bulego alokairua, biltegia eta internet zein telefono zerbitzuak, nagusiki) aurrezten dira. Bestalde, aurrerago azalduko den Auzozaintza programa publikoak Maitelanean diru sarreraren zati esanguratsua suposatzen du (%40 inguru) lan taldeko lau pertsonen soldata ordainduz. Azkenik, aipatu beharrekoa da mendekotasun egoeran diren pertsonen Foru Aldunditik jasotako zerbitzuari loturiko gizarte prestazioei eskerrak ordaindu ahal dituztela Maitelanekek eskainitako zerbitzuaren kostuaren zati bat.

Gainerakoan egitasmoaren gastu egitura nagusiki eskulanaren ordainketa izanik (garbiketa material oinarritzkoen erosketa eta formazio gastuez aparte), zerbitzu eskaintzagatiko diru iturriek (350.000 euro inguru) eusten diote jarduerari, hileko 50 erabiltzailerari 800 ordu inguruko lan bolumenari eskerrak. Orduko tarifyan eginiko doikuntza esanguratsuak posible egin du gutxieneko mozkin bat sortzea, Maitelanekeo zaintzaile baten liberazioa posible egiten duena kudeaketa lanetarako.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Laburbilduz, egitasmoaren balantze sozio-ekologikoa egite aldera, Maitelan zaintza lanei kolektiboki erantzuteko tresna izateak ekarpen sozial esanguratsua egiten du gutxienik bi alderdi osagarritan: alde batetik zaintza premian diren pertsonen bizi baldintzetan, horien bakardade eta mendekotasun egoeretan esku hartu eta lotura komunitarioen sakontzean indar eginez; eta beste aldetik, pertsona migratuen inklusio premiei dagokienean horien bizi baldintzak hobetuz, bai maila burokratikoan (lan bitartezko erregularizazioa), bai lan eta osasun egoeratan eta baita horien gizarteratze eta harremantze dimentsioari dagokionean ere. Bi funtsezko ekarpen horien bitartez, interes orokorrari bete betean eragiten dion helburu bati erantzuten zaio, zaintza lanen formalizazioa eta duintzea, eta horretan aurrera egiteko aitortza sozialean eragitea, hain zuzen ere.

Irizpide sozialak beraz berebiziko presentzia du bai laneratze profilei dagokienean, baita zerbitzuaren hartzaileei begira ere. Irizpide ekologikoak esangura mugatuagoa du kasu honetan, emaniko zerbitzuak material eta desplazamendu gutxiren beharra baitu, nahiz eta horien erosketan irizpide ekologikoa ere kontuan hartzen saiatzen diren. Azkenik, ESEri egindako ekarpena ere mugatua da egitasmoaren egitura eta denbora faltagatik.

1.2. Barne komunitatea

zaintza eta laneratze eskubideen kolektibizazioaren bidean hiru bazkide mota onartzen ditu bere baitan: lan bazkideak, bazkide erabiltzaileak eta bazkide laguntzaileak (edo kolaboratzaileak). Lehen bi bazkideak bazkide kooperatzaile moduan jarduten dute, hau da, kooperatibizaturiko jarduerari lotuta langile edo erabiltzaile gisa benetan parte hartuz. Bazkide kolaboratzaileek kooperatibaren helburu soziala bete-betean aurrera eramaterik ez badute ere helburua lortzen laguntzen dute. Bazkide erabiltzaile eta laguntzaileen inplikazio maila proiektuan oso ezberdina izaten ari da.

Lan taldea 13 pertsonak osatzen dute, 12 emakume eta gizon batek, eta horien artean 6 dira lan bazkideak eta 7 besteren kontura diharduten langileak. Guztiek hartzen dute parte Batzar Orokorrean, nahiz eta besteren konturakoek bozka eskubiderik ez izan. Azken horiek bi urteren buruan bazkidetzeko konpromisoa hartua du kooperatibak, agian behin behineko bazkide figura baliatuz. Izan ere, bazkidetze prozesu horietan

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

prestakuntza beharrian handiak ageri dira, inklusio profiletatik datozen pertsonen ez dutelako oro har kooperatibista izatearen nozio argirik, honek dakartzan eskubide eta betebeharre dagokienean.

Bestalde, apenas dago bazkide erabiltzailerik kooperatiban, bazkide kooperatzaile izateak BEZ-etik salbuetsita egotea galarazten baitie, eta beraz hau elementu oztopatzaile argia da Maitelaren zerbitzu erabiltzaileak kooperatibako kide egin daitezen. 50 erabiltzailetik 8 dira soilik bazkide erabiltzaileak. Badute ordea ordezkariak kooperatibako Artezkariak Kontseiluan (5 kontseilaritik 1 da bazkide erabiltzailea, 3 lan bazkide, eta laguntzailea 1), eta erronka moduan dute egitasmoaren hastapenetan sorturiko eta gerora denbora faltagatik eutsi ezindako Asanblada Komunitarioak berraktibatzea, herritar erabiltzaileen parte hartzea kolektiboari bide emateko.

Azkenik, laguntzaileen parte hartzeak garrantzia esanguratsua du. Lau pertsona dira (50 laguntzaileko taldetik) beren lan bolondresaren bitartez kooperatibaren kudeaketan funtsezko funtzioak beregain hartzen dihardutenak: lan taldearen kudeaketa, komunikazioa, eragile ezberdinekin bilerak, proiektu berrietarako ideiak, programa informatikoaren diseinua, aholkularitza juridiko-kooperatiboa, etab. Kooperatibak bere kabuz sostengatzerik ez duen egitura propioa ordezkatzeko da kasu honetan laguntzaileen bidez, nahiz eta egoera honen izaera trantsitorioa aipatzen den: Maitelarek gai izan nahi du epe motzean, bere zerbitzuak zabaltzeko eta dibertsifikazioaren bidetik, diru sarrera nahikoak izateko kudeaketa egitura propio bat finantzatu ahal izateko.

1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea

Maitelarek lanean daramatzan lau urteetan erreferentzialtasuna eskuratu du eskualdean, bai egitasmoak duen izaera sozial nabarmenagatik, eta baita ematen dituen zerbitzuen kalitateagatik ere. Eskualdeko eragile ezberdinen aldetik etengabe eskatzen zaie inplikazio handiagoa eskualde mailako dinamika ezberdinetan (Hernanin, Beterri-Buruntzan zein beste eskualde batzuetan) baina ez dute horretarako gaitasunik, denbora hori liberatu ahal izateko aukerarik ez baitute. Parte hartze komunitarioan inplikazio gehiago eduki ahal izateko beste nolabaiteko lankidetzak markoak esploratu

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

behar lirateke gaur gaurkoz, kontratu edo hitzarmen bidezko lankidetzen bitartez, Maitelaneko langileek konta dezaten euren esperientzia eta aholkularitza burutu dezaten martxan jarri nahi dituzten antzerako beste proiektuetan.

Egitasmoaren mugak kanpo komunitatearekiko engaiamenduan agerikoak izanagatik, arestian aipatu dugu kanpo komunitateak berak sostengatzen duela neurri handi batean egitasmoa bera, eta beraz, bi horien arteko harremanak oso kontuan hartzekoak dira. Parte hartze publiko-komunitarioako egitura instituzional nagusia Hernaniko Udaleko Zaintza Mahaia litzateke, Hernani Burujabe tokiko garapen estrategiaren baitan kokaturiko espazioa, bertan parte hartzen dutelarik udaleko berdintasun teknikariek, sindikatuek, bestelako enpresa eta norbanako herritarrek ere. Maitelanetik aitortzen da mahai honetan parte hartze esanguratsua izateko modurik ez dutela, nahiz eta mahai honetatik eratorritako Auzozaintza egitasmoa funtsezkoa izan den Maitelanen enpresa kontsolidazioari dagokionean.

Auzozaintza udal programa bat da bakardade egoeran aurkitzen diren pertsonen isolamendu egoeretan esku hartu eta txertatze komunitarioan urratsak emateko. Programa honetan hiru eragile nagusik hartzen dute parte: udal teknikariek bakardade egoeran diren pertsonen detekzioa egiten dute, Zabalduz kooperatibako hezitzaileek pertsona horien txertatze komunitarioako itinerarioak diseinatzen dituzte, eta azkenik, Maitelaneko lau langilek (Bidelagunek) burutzen dute gizarte akonpainamendu prozesu hori. Ibilbide honen azken geltokia auzoak berak pertsona horien zaintza asumitzea litzateke, "auzozainak" deituriko figuren bitartez, herritarrek eurek beregain har dezaten inguruan bakardade egoeran diren pertsonen zaintza, eta bien bitartean, udalak eta ehun kooperatiboak bidea urratzen dute pertsona horiek isolamendutik atera eta auzoan harreman sozialak berreskuratzen has daitezen.

1.4. Analisi juridikoa

Maitelan kooperatiba integral moduan antolatzeko arrazoi nagusia ahalik eta kolektibizazio maila altu eta integratuenerako formularekin asmatzea zen, bazkide mota ezberdinak integra zitzakeen egitura enpresarial baten bitartez. Honela, kooperatiba integralak lan bazkideak, bazkide erabiltzaileak eta laguntzaileak barnebiltzeko aukera ematen zuenez, figura hori hobetsi zen. Kolektibo horietako bakoitzean, ordea, erronka

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

ezberdinak hautematen dira, laburbilduz: kultura kooperatibo sendo baten falta lan bazkideen artean, kide egiteko pizgarri ekonomikoen gabezia erabiltzaileen kasuan, eta laguntzaileekiko mendekotasun operatibo larregizkoa, egitasmoaren autonomiaren kaltetan.

Izan ere hiru kolektibo horien artean argi ikusten da lan bazkideena dela egitasmoaren muina eta motorra, gainerako bi geruzen aurretik sendotu beharreko lehen kolektibizazio esparrua. Lan bazkideen artean ordea, balio kooperatibisten lanketa egiteko premia handia ikusten da, langileak jabetu daitezen kooperatibista izateak dakartzan eskubide eta betebeharez, mota ezberdinetako erabakiak hartzerakoan: etekinen gaineko politikari buruz, lan baldintzen ezarpenaz, lan taldearen jarraikortasunerako baldintzez, etab. Eguneroko lanaren izaera eta ordutegiengatik ez dago denborarik gauza horiek lantzeko, eta berariaz sortu behar dira horretarako une eta guneak, proiektuaren inguruan bestelako herritarrak artikulatzeko lehen baldintza baita langile guztiak jabetzea enpresa kooperatiboaren kide izatearen esangura eta inplikazioez.

- Aplikagarri den legea: Euskadiko Kooperatiben Legea (11/2019 Legea, abenduak 20koa)

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa

Zaintza lana. Zehazki, beltzean egindako zaintza lana erregularizatu eta kooperatibizatzea.

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Maitelan kooperatiba integrala da. Zaintzaren inguruko komunitate osoa txertatzea zen ideia: langileak, erabiltzaileak, eta gizartea.

Erabiltzaileak kideitzeko arazo ekonomiko eta kulturalak daude. Une honetan ez dago bazkide erabiltzailerik.

3. Kooperatiba mota

Gizarte ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba integrala.

4. Lurralde esparrua

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Euskadiko Autonomia Erkidegoa, kooperatiba eta bere bazkideen arteko harremanei dagokienez; kooperatibaren bestelako jarduerak alde batera utzita.

5. Bazkide motak

- Langile-bazkideak. Une honetan 6 dira
- Soldatapekoak (ez bazkideak). Une honetan 7 dira

Soldatapekoak langile-bazkide bihurtzeko, probaldia gaintitu behar dute, gehienez 6 hilabetekoa. Epe hori 18 hilabete arte luzatu daiteke lanpostuak baldintza profesional bereziak galdatzen dituenean. Dena den, langileen eskaera ukatua izan daiteke, besteak beste, kooperatiban langile-bazkide gehiago ez badira behar.

- Bazkide erabiltzaileak
- Bazkide laguntzaileak

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

- Batzar Nagusia
- Artezkaritza Kontseilua. 5 kide: 3 langile-bazkideak; 1 bazkide erabiltzailea; 1 bazkide laguntzailea.
- Gerentea egoteko aukera irekitzen da.

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

- Langile bazkideen taldeak, Batzar Nagusiko botoen %45.
- Bazkide erabiltzaileen taldeak, Batzar Nagusiko botoen %35.
- Bazkide laguntzaileen taldeak, Batzar Nagusiko botoen %35.
- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desagitea erabakitzeko
- 2/3eko gehiengoa behar da Artezkaritza Kontseiluko kideak kargugabetzeko, kargugabetzea ez bazegoen Batzar Nagusiaren gai ordenean

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisisa*

7. Erabakimen ekonomikoa

7.1 Gutxieneko kapital soziala: 3.000 euro

7.2 Derrigorrezko ekarpenak

- Langile-bazkide mugagabeak lanaldi osoan: 1.000 euro
- Langile-bazkide mugagabeak lanaldi partzialean: 800 euro
- Aldi baterako langile-bazkideak lanaldi osoan: 1.000 euro
- Aldi baterako langile-bazkideak lanaldi partzialean: 800 euro
- Bazkide erabiltzaile pertsona fisikoak: 50 euro
- Bazkide erabiltzaile pertsona juridikoak: 150 euro
- Bazkide laguntzaile pertsona fisikoak: 50 euro
- Bazkide laguntzaile irabazi asmoko pertsona juridikoak: 150 euro
- Bazkide laguntzaile irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak: 100 euro

7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa

- Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %20a
- Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a
- Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - o Borondatezko Funtsak hornitzeko
 - o Ekarpen gehigarria Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko
 - o Ekarpen gehigarria Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko
 - o Soberakina ezingo da banatu bazkideen artean, kooperatibak ez duelako irabazi asmorik

8 Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: araubide orokorra

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- 9 Gatazkak konpontzeko, arbitraje koooperatiboko sistema: bai

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

2.1. Elementu gakoak zehaztapena

Gako Orokorrak (Erreplikarako gutxieneko baldintzak)	
- Talde kohesioa: konfiantzako harremanak sortu taldearen baitan aurrera pausoa emateko. Lehen lan talde hau sortu izan ez balitz ez legoke Maitelanik: langileen lan eta bizi egitasmoa izatea. - Lidergo sendoak: zaintza lanen antolaketak eta langileen kolektibizazioak koordinazio eta lidergo sendoen premia du, baita aurrera begirako dibertsifikazio estrategietarako ere. - Finantzazio ekonomikoa: publikoki diruz laguntzea lehen urteetan beharrezkoa da, erabiltzaileek ordu kopuru nahikoa kontratatu arte zerbitzu prestazio bidez bideragarri egiteko egitasmoa.	
Negozio ereduaren deskribapena	
Kokapenaren analisia	Sektorean lehia basatia: merkatu beltzean zaintza lan informalak, kostuen azpiko tarifak (10-12 euro/ordua) enpresa pribatu handien aldetik. Zaintzaileen egoera hiper-zaugarriak: aurretiko motxilak, kolektibizaziorako deskonfiantzak, biolentzia egoerak hausteko beldurrak, egoera irregularrak, lan baldintza oso kaskarrak (ez baja ez opor eskubiderik), etab.
Ideia: produktu-zerbitzua	Pertsona migartuen intertziorako tresna, orain arte zaintza eta garbiketa zerbitzuetan baina aurrera begira eskualdeko bestelako zerbitzuetara irekitzeko aukerarekin.
Harremanak-Komunikazioa	Preziotan lehiatu ezin denez, funtsezkoa da kalitate hobeagoko zerbitzuak eskaintzen dituen proiektu sozial gisa komunikatzea: ordaintzen duenak uler dezala zer ari den ordaintzen eta zenbat balio duen ordaintzen ari denak, kostu errealetan eta kohesio sozial terminotan. Herritarren artikulazio handiagoak (Asanblada Komunitarioak) biderkatuko luke egun ahoz ahokoak ahalbidetzen duena.
Egitura ekonomikoa	Enpresa bideragarritasunerako zailtasun handiak: kanpo laguntza publiko eta pribatuen beharra, eta gastuen gaineko kontrol zorrotza. Prezio politika doitua: erabiltzaileak jakin dezala zer ordaintzen duen 20 euro/orduko tarifarekin.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzaitza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

	Hastapeneko laguntza funtsezkoa: monetarioa (diru laguntzak, donazioa) eta ez monetarioa (langile taldea sendotu, herritarrak inplikatu, etab.) Koordinazio eta proiektugintzarako egitura propioa sortu beharra
Balantze sozioekologikoa	Pertsona migratuen intseztio soziolaborala Zaintza lan baldintzak duintzea Material erosketetan irizpide ekologikoak txertatzea
Komunitate izaera: barne komunitatea	
Lan taldea	Funtsezkoa lan taldearen osaketarako aurre-lanketa osoa, konfiantzazko harremanak sor daitezen, eta zaintza lanak kolektibizatzeke prest egon daitezen.
Bazkide erabiltzaileak	Erabiltzaile kooperatzaile izateko pizgarri falta Asanblada Komunitarioen bidez herritarrak berriz aktibatu eta artikulatzeko erronka.
Bazkide Laguntzaileak	Funtzionalki garrantzitsuak, egun mendekotasun egoera sortzen diona kooperatibari, eta erronka litzateke funtzio horiek profesionalizatu eta egiturari txertatzea.
Soldatapeko lana	Bi urteko epean lan-bazkide bilakatzeko konpromisoa Behin behineko bazkide figurak emango lioke koherentzia handiagoa
Eraldaketa lurraldean: kanpo komunitatea	
Lurralde ekosistema komunitarioa	Asanblada Komunitarioak berraktibatzeke erronka zaintza Mahaiaren bitartez
Tokiko ehun enpresariala	Garapen gutxi, garbiketa zerbitzuak zenbait enpresetan.
Lurralde ekosistema kooperatiboa	Auzozaintza programan Zabalduz kooperatibarekin

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailletza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Lankidetzeta publiko-komunitarioa	Zaintza Mahaia Auzozaintza programa
-----------------------------------	--

2.2. AMIA analisia

Maitelaren erreplikarako aukeren diagnostikoa burutzeko aipatu behar litzatekeen lehen ideia da egitasmoak dituen ahuleziak bezainbeste aukera eskaintzen dituela inguruneak. Mota honetako egitasmo batek egun ditugun erronka sozial korapilatsuenetako biri erantzun nahi die: pertsona migratuen intsertzio soziolaborari, alde batetik, eta geroz eta jendarte zaharkituago batek dakartzan zaintza premia hazkorrei erantzuteko familiez gaindiko egitura formalen gabeziari, bestalde.

Bi gai horiek geroz eta zentraltasun handiagoa eskuratzen ari dira eztabaida publiko eta agenda politikoan, eta beraz, espero izatekoa da datozen urte gutxitan biderkatu egingo direla bi arazo potolo horiei irtenbidea emateko egitasmo ezberdinak. Maitelan, zentzu horretan, aukeraz beteriko proposamena da, kalitatezko zerbitzuak eskainiz urte batzuk igaro izanak damaion sendotasunari eskerrak lortua baitu esperientzia publiko-komunitarioko eredu gisa erreferentzialtasun gradu bat. Inbertsio publikoaren gorakada espero izatekoa den bezala, erakunde publikoen irismen mugatuaren gaineko geroz eta kontzientzia handiagoa ere izan badenez, zaintza zerbitzuetan parte hartze komunitarioari bide ematen dieten esperientziek balio erantsi garrantzitsua dute egun. Espero izatekoa da, beraz, bai herri erakundeen aldetik eta baita herritar antolatuen aldetik, geroz eta eskaera maila handiagoak helaraztea mota honetako egitasmoekiko.

Egitasmoak, alabaina, aukerak adinako ahuleziak dituzte, arestian ikusi den bezala: pertsona migratuen kolektibizaziorako zailtasunak, proiektua abiarazteko prozesuen konplexutasuna edo artikulazio herritarra txertatzeko erronkak lirateke horietako batzuk.

Pertsona migratuen kolektibizazioak euren arteko konfiantzazko harremanak sortzea du lehen koska nagusia. Pertsona horietako asko bizipen mingarrietatik ihesi datoz,

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

gizarte-errotzerik eta sare sozialik gabe aurkitzen dira berton, beren egoera legalki erregularizatzeko etengabeko oztopoak gaintitu beharrean gainera. Horretaz gain, pertsona zaintzaileek zainduriko familiak euren "ondare partikular" bakarra dira, kosta ala kosta mantendu beharrekoa, eta hori kolektibizatzeak lanketa sakona egitea eta lidergo indartsuak izatea eskatzen du. Horri gehitu behar litzaioke zaintzaileek oro har duten gabezia kultura kooperatiboari dagokionean, eta honen lanketarako izan ohi dituzten espazio eta denbora faltak.

Zailtasun horiei guztiei aurre egiteko lidergo sendo eta autorizatuak izatea funtsezko elementua da, zaintzaileen artean beharrezko konfiantza sortu eta taldearen zaintzan etengabe jarduteko. Lan talde kohesionatua, inplikaturik eta proiektuarekin lerrotatua izatea nahitaezko abiapuntu eta oinarritzat jotzen da bestelako kolektibizazio geruzak eransten joateko proiektuari (erabiltzaileena, laguntzaileena, etab.).

Lanaren kolektibizaziorako zailtasunei gehitu behar litzaizkioke bideragarritasun ekonomikoari dagozkionak ere: herritar kontziente antolatu eta laguntza publiko nahikorik ezean nekez eutsi litezke merkatu prezio hain estuekin lehiatu beharrean dabilzan mota honetako egitasmoak. Sektorearen informaltasun mailak eragiten du benetako kostuaren azpitik eta gutxieneko lan baldintzarik gabe eskaintzea zaintza lan horietako gehienak, eta beraz, zaintza sektorean lan baldintzak duintzeak tarifa ekonomikoki ez lehiakorrek eskaintzea dakar. Zaintza lanak behar bezala ordaintzeko prestutasuna orokortzeko aurretiazko premisa da lan horien aitortza sozialean urratsak ematea, herritarrek hortaz jabetzea eta herri erakundeek neurriko konpromisoak hartzea. Eredu komunitarioko esperientzien bidea izan liteke beharrian horiei modu akonpasatuan erantzuten joateko bide bat.

Zentzu berean, egitasmoaren ahalik kolektibizazio eta errotze komunitario mailarik altuena erdiestea da erronkarik zailena eta aldi berean indargunerik nabarmenena. Lanaren kolektibizazioa ondo egiteak berekin dakar lan taldearen motibazio eta inplikazio handiagoa, eta hori posible egiten duen lan baldintza eta osasun egoeretan hobekuntza nabarmenak izatea. Aldi berean, egitasmoaren izaera komunitarioari lotzen zaio herritarren atxikipen eta aitortza soziala areagotzea. Kasu honetan, erabiltzaileei

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

tarifa igoagatik kideak ez erasan izana edota laguntzaileek egindako lan bolondresak funtsezko garrantzia izan dute egitasmoan. Azkenik, herri erakundeen aldetik beharrezkoa sostengurako mekanismo ezberdinak aplikatzea, bai hastapen prozesuan eta baita proiektuaren kontsolidaziorako ere, dela kontratu bidezko programen bitartez, edo dela bestelako hitzarmen eta ekipamendu lagapenen bidez.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzaitza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA

1. Esperientziaren deskribapena

1.1. Negozio ereduaren deskribapena

Aiaraldea Ekintzen Faktoria (AEF) Aiaraldea euskarazko lehen komunikabide gisa sortu zen 2010. urtean. Nagusiki erdalduna den eremu batean euskararen normalizazioa bilatzen zuelarik. Komunikabidearen sorkuntzarako ezinbestekoa izan zen egitasmoaren xedearekin bat egiten zuen komunitate militantearen bulkada. Izan ere, hasieran, lan boluntarioaren bitartez sostengatzen zen proiektua.

7 urte geroago, gogoeta estrategiko baten ostean, AEFk jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea erabakitzen du. Horretarako, komunikabidea egituratzeko sortutako elkarteak gizarte ekimeneko kooperatiba bihurtu zuten. Egun, 7 lan ildoetan banatzen da bere jardura: Komunikabidea, hezkuntza, elikadura burujabetza, komunikazio agentzia, kultura, feminismoa eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea. Lan ildo hauek, eskualdean identifikatutako behar ezberdinei erantzuna ematea bilatzen dute, eta beraz, AEFren helburu soziala, euskara ardatz izanik, eskualdean identifikatutako beharrak asetzea da, eskualdeko euskal komunitateari bideratutako proiektu eraldatzaileen bitartez. Gaur egun garatzen dituzten lan ildo bakoitzaren ezaugarri nagusiak hurrengoak dira:

- -Tokiko komunikabidea: www.aiaraldea.eus webgunea, sare sozialak eta paperezko hamabostekaria (7.000 ale doan).
- -Komunikazio agentzia: Euskarazko komunikazio zerbitzu integrala eskaintzen du, batez ere eskualdeko udal eta enpresa ezberdinei. Kooperatiba bihurtu aurretik, komunikabidea ekonomikoki sostengatzeko helburuarekin sortu zuten.
- -Kultur sorkuntza: Sormen egonaldiak, bekak, antzerki eskola, agenda kulturala etab.
- -Hezkuntza eraldatzailea: Hezkuntza eta aisialdi eraldatzailea haur, nerabe, gazte zein gurasoei bideratutako udaleku, tailer, jardunaldi, unitate didaktikoak eta abarren bitartez.
- -Elikadura burujabetza: Ekonomatoa, kantina eta catering zerbitzua.
- -Feminismoa: Topaketa eta tailerren garapena eta zabalpena.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- -Ekonomia Sozial Eraldatzailea: Gaur egun lan ildo hau energia komunitateen sorkuntzan eta ESEaren zabalpenean oinarritzen da batez ere.

Aurrekoagatik guztiagatik, AEF alor edo sektore bakar batera mugatzeak zailtasunak erakusten ditu. Izan ere, lan ildo bakoitzak bere jarduera propioak garatzen ditu eta horiek ezaugarri ezberdinak dituzte merkatuari, ekoizpen prozesuari edo hornitzaile-bezero harremanei dagokienez.

Ekoizpenaren antolaketari dagokionez, lan ildo bakoitza kokatzen den alorrak ezartzen dituen ezaugarrietara egokitu behar da. Batzuk merkatuko izaera handiagoa daukate, beste batzuk nagusiki administrazio publikoarekin lan egiten dute eta beste batzuk ikuspegi komunitarioagoa izan dezakete. Hala ere, guztiek baliabideak lortu ditzakete aldi berean hiru poloetatik. Horrenbestez, AEFren bezeroak norbanakoak (bazkide eta ez bazkide), eragile komunitarioak (jai batzordeak, herri mugimenduak eta elkarteak), tokiko erakunde publikoak (udalak) eta enpresa pribatuak (tokiko enpresak, ostalariak eta merkatariak) izan daitezke, eta bazkideak izan behar ez diren arren, azken hauek abantailak dituzte bertan kontsumitzerakoan.

Aldi berean, lan ildo bakoitza ekonomikoki bideragarria izan behar da. Baina, proiektuaren helburu sozialak lehenesten direnez, bazkideentzako produktu eta zerbitzuei margen txikia ezarri zaizkie orokorrean eta horrek oso erritmo altuan lan egitea eskatzen du. Une honetan ñabardura bat egitea beharrezkoa da komunikazio agentziari dagokionez. Izan ere, komunikazio agentzia ez da proiektu sozialaren parte kontsideratzen, hots, ez da komunitatearen beharrak asetzeko sortu, udal eta enpresentzako zerbitzuak eskaintzen baititu orokorrean. Hala ere, aparteko diru-sarrerak eskaintzen dizkie gastu orokorrak estaltzeko.

Hornitzaileei dagokienez, ESEko erakundeak edo AEFren filosofiarekin bat egiten duten tokiko hornitzaileak lehenesten dira. Egiturazko hornikuntzak ESEko beste erakundeetatik eskuratzen dituzte (adibidez, telekomunikazio zerbitzuak Izarkom-en bitartez hornitzen dira, finantza zerbitzu gehienak Koop57-ren bitartez edo energia zerbitzuak Goiener-en bitartez) eta hornitzaileak dituzten lan ildoetan AEFren

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

filosofiarekin bat egiten duten tokiko hornitzaileak lehenesten dira (tokiko ekoizle agroekologikoak, tokiko kulturgile eta musikariak etab.). Hala ere, kasu batzuetan kontraesanak sorrazten dizkieten hornitzaileekin kontratatu behar izan dute ezinezkoa izan baitute hornikuntza guztiak aurreko irizpideak betetzen dituzten erakundeen bitartez lortzea.

Lan ildo bakoitzak bere bereizitasunak dituen arren, badago hauek guztiak zeharkatzen dituen ideia nagusia: Euskaratik bizitzeko beharrezkoak diren esparru ezberdinetan eragin daitekeela erakustea; euskaraz bizi daitekeela erakustea, alegia. Hauxe da, hain zuzen ere, AEFk sortzen duen balio erantsi nagusia: euskarak pertsona eta hizkuntz komunitate bati, bere beharrak asetzeko tresnak eskintzea euskaratik eta euskaraz. Modu honetan, euskarari balio identitarioetatik harago beste balio eraldatzaile batzuk eman mahi zaizkio.

Horrenbestez, egitasmoa euskalgintzaren alorrean kokatu daiteke. Euskararen errealitate soziolinguistiko apala duen eta euskal kulturaren periferian kokatuta dagoen eskualde batean, AEF euskararen eta euskal kulturaren erreferentzia bihurtu delarik.

Kokapen fisikoari dagokionez, Laudioko industrialdean kokatzen den pabiloian (faktoria) egiten dute lan; eta, oro har, gehienak hurbiltasun zerbitzuak direnez, bertan eskaintzen dituzte. Hala ere, AEFren eragin eremua Aiaraldeara zabaltzen da. Esan beharra dago, Aiaraldeak Arabako Aiara eskualdea baino zabalagoa den eremu bati egiten diola erreferentzia. Eurek sortutako eraikuntza sozial bat da, Aiara politikoa gainditzen duena eta Bizkaian gertutasun geografiko eta soziologikoa duten beste 4 udalerrri barneratzen dituen. Orotara, Aiaraldeak Laudio, Amurrio, Aiara, Okondo, Artziniega, Urduña, Orozko, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zolloko udalerrriak barnebiltzen ditu.

Azaldutakoarekin guztiarekin zaila izaten da AEFren inguruko ideia zehatza gizarteratzea. Komunikabide gisa hasi zenez eta ostean jarduera horrenbeste dibertsifikatu dutenez, gizarteratzen den ideia nahiko lausoa baita. Izan ere, antzeman dutenez, batzuetan ez da guztiz argi gelditzen zer den AEF: komunikabide bat, kultur

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailletza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

espazio bat, catering zerbitzu bat, ekonomato bat... Horregatik, estrategia komunikatibo propioa garatzeko beharra ikusi dute, batez ere bezeroei begira.

AEFren egitura ekonomikoari begira, hasierako inbertsioa handia izan zen. Faktoria kokatzen den pabiloia erosi eta egokitzeko erreforma egin zuten. Horrek 1.000.000€ inguruko inbertsioa suposatu zuen. Ez zuten mendekotasun ekonomiko edo politikoa sortu zezakeen erakunde publikoen laguntzarik nahi, eta beraz, bazkideek erositakoa da (Erosketa mailegua: 176.000,00 €, obra mailegua: 380.000,00€ eta gainerakoa funts propioekin finantzatuta). Modu honetan, egitasmoa ez dago eskualde mailako aldaketa politiko-instituzionalen menpe eta edozein erabaki hartzeko askatasuna ematen die. Bestalde, lan ildo bakoitzak bere gastu propioak ditu eta gastu orokorrak pabiloiaren amortizazioa eta egiturazko hornikuntzak dira.

Sarreraren egiturari dagokionez, produktu edo zerbitzuen eskaintzatik lortzen dituzten diru-sarrerak dira partida nagusia. Hauek sarrera guztien ia %80a suposatzen dute (758.217,83€ 2022. urtean). Kopuru aldetik bezero gehien dituen lan-ildoa komunikabidea den arren (7.000 ale eta interneten bidezko bezeroak), hemendik ez da diru-sarrerarik lortzen. Diru-kopuruari begiratuta, bezero nagusienak eskualdeko administrazio publikoak dira (udalak), batez ere komunikazio agentziaren bitartez. Horrez gain, sarreraren %18a jasotzen dituen dirulaguntzetatik datoz (179.766,60€) eta, azkenik, bazkide erabiltzaileek urtero ordaintzen dituzten kuotak %5a suposatzen dute (52.000€ gutxi gorabehera).

Alderdi ekonomikoak atzean utziz eta egitasmoaren balantze sozio-ekologikoan barneratuz hainbat kontu aipatu beharko lirateke. Irizpide sozialak egitasmo osoaren helburua dira. Hau da, egitasmoaren oinarri komunitarioaren beharrak asetzeko lan egiten dute eta irizpide ekonomikoak irizpide sozial horietara azpiratuta daude; hots, proiektu ekonomikoa existitzen da proiektu soziala bermatu ahal izateko. Gainera, abiatzen duten proiektu bakoitza balio eraldatzaileen arabera pentsatzen da (proiektu komunitarioak, tokikoak, autogestionatuak eta eraikitzaileak dira). Eta aldi berean, eremu erdaldun batean komunitate euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko helburua dute. Zentzu horretan, jarduera dibertsifikatzea erabaki zutenean, jarduera edo lan ildo

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

konkretu berri horietan interesa duten pertsonak erakarri dituzte bazkide komunitatea handituz; eta beraz, lan ildo berri horiek ere euskararen eta euskal kulturaren hedapenaren helburu orokor horretara lagundu dute.

Eskaintzen duten zerbitzuetara bazkide gehiago hurbildu ahal izatea bermatzeko, proiektu batzuetan errentaren arabeko prezioak ezarri dituzte (sukalde komunitarioa, barazki ekologikoen salmenta, kultur ekimenak, kontzertuak, tailerrak...). Praktikan, prezioaren gaineko deskontu baten bidez edo norbanako bakoitzaren errentaren arabera trukatzeko txanpon sozialaren bitartez aurrera eramana da. Hau da, bizi maila erosoak dutela kontsideratzen dutenek, txanpon soziala eskuratzerakoan eurotan eman duten balioa baino balio gutxiagoa duen txanpona jasotzeko aukera dute eta alderantziz. Hala ere, orain arte proiektu puntualetan erabili izan dute soilik eta ez da egunerokotasunean erabiltzen duten sistema; nahiz eta bazkide kuotak ere modu honen bitartez zehaztea pentsatzen ari diren. Honek, proiektua jende gehiagorentzat irisgarria egiteaz gain, eskualdean kohesio soziala handitzen du.

Irizpide ekologikoei begiratuta, elikadura burujabetzaren inguruko lan ildoan eskaintzen diren zerbitzu guztietan (kantina, ekonomatoa eta catering-a) tokiko produktu agroekologikoekin lan egiten dute (kantinan eskaintzen diren produktu gutxi batzuk kenduta, bertako aukera ekologikorik ez dagoelako).

Bukatzeko, ESEari ekarpen handia egiten diote Aiaraldean. Barnera begira balantze soziala bezalako tresna erabiltzeaz gain, kanpora begira ESEren antena izan nahi dute eskualde mailan. Hau da, ESEren inguruko formakuntzak eta energia komunitateen eta kooperatibismoaren diskurtsoaren zabalpena eskaintzeaz gain, ESEko kontsumo entitateen informazio puntua eskaini nahi dute. Besteren artean, telekomunikazio, finantzak edo energia zerbitzuak eskaintzen dituzten Izarkom, Koop-57 edo Goiener-en inguruko informazioa eskaini nahi dute interesa duen orori.

1.2. Barne komunitatea

AEFren barne komunitatea bereziki zabala da. 18 langileez gain (9 lan-bazkide eta 9 soldatapeko langile), 500 bazkide erabiltzaile baino gehiagok osatzen baitute. Eta aldi berean, azken hauetako bakoitzak beste pertsona bat(zuk) lotetsi ditzake egitaspora. Hortaz, guztira 1700 pertsona inguruk osatzen dute AEFren komunitatea.

Lan-bazkide eta soldatapeko langileen kasuan, barne araubide eta lan-hitzarmen berdina jarraitzen dute. Modu asanblearioan lan egiten dute eta ez dago soldata eskalarik; guztiek berdin kobratzen dute. Antzintasunagatik lortzen diren hobariak opor egunetan ordaintzen dira. Langileen arteko giroa hobetzeko eta elkar zaintzan sakontzeko, astero langile gosariarekin hasten da astea. Txandaka, astelehenetan langile guztientzako gosaria prestatzen dute bi langileek. Honen zeregin nagusia da besteen berri jakitea, asteko zereginak partekatzea, zereginen aurrean laguntza eskatu eta eskaintzea eta bakoitzaren egoera animikoa zein den jakitea. Gainera, feminismo lantaldeak egindako azterketa batetik eratorria, orain langile guztien zaintzarako mekanismo gehiago garatze bidean daude.

Lan-bazkideen eta soldatapeko langileen arteko ezberdintasun bakarra kooperatibaren erabakiguneetan ematen da; azken hauek ez baitute, printzipioz, kooperatibaren erabakietan parte-hartzeko aukerarik. Dena den, soldatapeko langile guztiek daukate lan-bazkide bihurtzeko aukera kapital sozialari egindako 5.000€ ekarpenaren bitartez. Zentzu horretan, bazkide bihurtu ez direnak, kooperatiban denbora gutxi daramate edo, kasu batzuetan, bazkidetzeko aukera eskaini zitzaizenean arrazoi pertsonalengatik ukatu zuten. Hala ere, langileak aldi berean bazkide erabiltzaileak direnez, hurrengo parrafoan azalduko den bidetik parte-hartu dezakete kooperatibaren erabakietan.

Bazkide erabiltzaileek babes soziala ematen diote egitasmoari. 500 bazkidek osatzen dute, nahiz eta horietako bakoitzak beste pertsona bat(zuk) lotetsi ditzake egitaspora. Izan ere, bazkide bakoitzak erabakitzen du zer kuota ordaindu nahi duen eta kuota horren arabera beste pertsona bat(zue)i hedatzen zaizkie onurak. Zentzu horretan, bi aukera posible daude: Bazkidea eta adin txikikoa 66€/urtean edo bazkidea, beste pertsona heldu bat eta bi adin txikiko 132€/urtean (edo 11€/hilean). Erabiltzaileak lotzen

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

dituen harreman honi bizikidetza unitate deritzo eta hauek orotara 1700 pertsona inguru agrupatzen dituzte.

Kooperatiban erabakimen partekatua ematen da lan-bazkideen eta bazkide erabiltzaileen artean. Erabakimenaren %50a lan-bazkideena da eta %50 bazkide erabiltzaileena. Hala ere, erabakimen honek baldintza batzuk ditu: Edozein erabaki hartzeko beharrezkoa da lan-bazkideen erdia ados egotea eta bazkide erabiltzaileen erdia ados egotea. Modu honetan, proiektu soziala indartzen da; ez baita inoiz gailenduko langileen interes partikularrak proiektu sozialarekiko. Ordezkaritza kontseiluak ere banaketa hau jarraitzen du; 5 lan-bazkidek eta 5 bazkide erabiltzailek osatzen baitute. Eta bilera horietan erabaki bat hartzeko orduan horien erdiak ados egon behar du. Erabakietan parte-hartzeaz gain, bazkide erabiltzaileek egitasmoa babesteagatik bestelako onura batzuk dituzte AEFren zerbitzuak erabili edo kontsumitzerakoan (deskontuak ekonomatoan, kultur jardueretan, lehentasuna, espazioak erabiltzeko aukerak etab.).

Azkenik, lan-boluntarioa eskaintzen duten bazkideak daude: Bazkide aktiboak. Hauek, urtean gutxienez 20 orduko lan-boluntarioa aurrera eramaten duten bazkide erabiltzaileak dira eta aparteko onurak lortzen dituzte (nahiz eta bazkide aktibo hauen gehiengoak urtean 20 ordu baino gehiago lan egiten duten kooperatiban). 513 bizikidetza unitateetatik 100 bazkide inguru "bazkide aktiboak" dira eta nahi duten esparruan eta zeregin konkretuan egin dezakete lan; benetan interes pertsonala duten horretan.

Zentzu honetan, lan-ildo guztiek dituzte parte-hartze egitura mistoak (lan-bazkide, soldatapeko langile eta bazkide aktiboak). Hala ere, praktikan, boluntarioek zeregin osagarriak egiten dituzte, zaila baita jardunaldi osoan dagoen langile baten eta ordu gutxi batzuk lan egiten dituen boluntario baten lanak uztartzea. Beraz, langileek kubritu ezin dezaketen lan ez zentralak betetzen dituzte (Asko errepikatzen den lan boluntarioa: egunkariaren banakuntza).

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Izan ere, bazkide aktiboen, eta orokorrean, bazkide erabiltzaileen inguruko zaintza mekanismoak hobetzeko beharra antzeman dute azkenaldian. Alde batetik, bazkideen beharrak entzuteko eta horiek asetzera gehiago bideratzeko beharra ikusi dute. Egitasmoaren behar ekonomikoak nagusitu baitira une batzuetan. Beraz, burokratizazio joeraren aurrean aktibismoa berreskuratzeko erronka antzeman dute. Eta bestetik, bazkide erabiltzaileak ber-aktibatze eta hauen parte-hartze aktiboa sustatzeko formulak bilatzeko beharra ere. Izan ere, hasierako bulkada komunitarioa apaldu da lan-boluntarioarekiko. Hasieran proiektu komunikatiboa soilik boluntarioez osatuta zegoen eta komunitate militante hori zen komunikabidea elikatzen zuena. Jarduera dibertsifikatzerakoan, bazkide-erabiltzaile edo –kontsumitzailearen figura nagusitu da. Horretarako, saiatzen ari dira lan boluntarioa egiten dutenen bazkideen aitortza publikoa egiten eta beste errekonozimendu materialak ematen.

AEFren kanpo komunitateari dagokionez, tokiko udalak eta enpresak, ESEko beste egitasmoak eta Aiaraldeako ehun soziala eta komunitarioa aurkitu daitezke. Inguruko udal eta enpresentzako nagusitzen den zerbitzua komunikazio agentziarena da. Udal eta enpresa hauen euskarazko komunikazio beharrei zerbitzu integrala eskaintzen zaie eta, berez, hau eskaintzea AEFk zabaltzea nahi duen proiektu sozialaren parte ez den arren, proiektu soziala sostengatzen laguntzen duten diru sarrerek lortzeko bide bat da.

Bestalde, ESEko beste egitasmoek Aiaraldean iragazkoarragoak izateko beharrari, hots, ESEa Aiaraldean zabaltzeko beharrari, AEFk ESEren antena izan nahi du. Izan ere, Aiaraldean ehun kooperatibo eskasa dago, eta beraz, hasteko, formakuntza ezberdinak antolatu ditu eta ESEko kontsumo entitateen informazio puntua eskaini nahi du.

Kanpo komunitatearen azken hanka Aiaraldeako ehun soziala eta komunitarioa da. Nagusiki erdalduna den eskualde batean euskaraz bizi ahal izateko beharrari erantzuteko sortutako proiektua da AEF. Eta hizkuntzarekiko ezarri dituzten irizpide zorrotzek jende gehiagorengana heltzea zaildu dezaketen arren, eta batzuetan gune erdaldun beteko erdal ohituren eragina ekiditea zaila izan daitekeen arren, euskarak pertsona eta komunitate bati bere beharrak asetzeko tresnak eskaini dizkiola erakustea lortu du AEFk. Gainera, AEFk tokiko ehun komunitarioko eragileei (herri mugimenduak,

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

elkartek, jai batzordeak etab.), haien jarduna erreproduzitzea ahalbidetzen dien zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu. Adibidez, tailerrak, formakuntzak, komunikazioa edo catering bezalako zerbitzuen bitartez.

Alabaina, Aiaraldeako eragile eta norbanako hauen guztien beharrak asetzeko bidean, beste zailtasun bat aurkitu dute. Izan ere, eskualde osora bideratuta dauden ekimenak burutzen dituzten arren, ekimenak nonbaiten gauzatu behar dira. AEFren faktoria Laudion kokatuta dago eta ainguraketa horrek ekimen gehienak Laudion antolatuzera behartzen die; eskualde mailan gertatzen den "ludiozentrismoa" deritzoten dinamikan sakontzeko arriskua handituz.

1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea

AEF Aiaraldeako lurralde dinamiketan errotuta dago. Beharbada, dinamika ekonomiko orokorretan ez du gehiegirik parte-hartzen bezero-hornitzaile harremanetatik haratago (Amurrio eta Audioko merkatarien elkartekideak dira baina ez dituzte harreman esanguratsurik garatu) eta eskualdean ehun kooperatiborik ez dagoenez, ez du lurralde mailako interkooperazio mekanismorik garatu. Baina esparru ekonomikoaz haratago, eskualdeko dinamika komunitarioetan presentzia handiagoa dauka.

Eskualdeko edo eskualdean presentzia daukaten eragile askoren bazkidea da eta eragile nazional batzuk Aiaraldearekin lotzen dituen aingura da (EHko bilgune feminista, EH kolektiboa, Euskaltzaileen topagunea, Oin herri etab.). Lan ildo bakoitzak garatzen ditu harremanak eta lankidetzak esparruak, horrela AEFren kanpo komunitatea zabaltzen da eta esparru oso ezberdinean lan egiten duten eragileekin harremanak garatzea ahalbidetzen dio.

Instituzio publikoekiko lankidetzari dagokionez, esploratu gabeko bidea izan da AEFrentzat orain arte. Momentuz bere burua definitzen eta ahalduntzen ibili dira eta beraz, lankidetzak publiko-komunitarioa bigarren maila batean geratu da. Gainera, instituzioekiko harremana kutsatuta dago komunikabidearen jardunagatik. Izan ere, nolabaiteko desafekzioa sumatzen dute berriak publikatzerakoan alderdi politiko

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

bakoitzak besteari mesede egiten ari zaiola salatzen dietelako. Eta beraz, lan ildo ezberdinetatik zerbitzu asko ematen zaizkien arren, ez dituzte ia elkarlanerako espaziorik garatu. Dena den, ESEko lan ildoan, eta batez ere, energia komunitateen gaia lantzerakoan, elkarlan publiko-kooperatibo-komunitarioa garatzen hastea estrategikoa izan daitekeela ikusten hasi dira.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta eskualde mailako ekosistema kooperatiborik existitzen ez denez, instituzio publikoak interpelatzeko asmoz eskualdeko sektore eraldatzaileen (komunitarioak, ekonomia ardatz ez dutenak) foro bat sortzeko beharra geroz eta ageriagoa dela ikusi dute.

1.4. Analisi juridikoa

Hasierako 7 urteetan komunikabidea elkarre gisa egituratzen zen. Horrez gain, komunikazio zerbitzuak azkartasun handiagoarekin eskaini ahal izateko, sozietate mugatu bat sortu zuten elkartekide batzuen menpe zegoena. Jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea erabaki zenean gizarte ekimeneko kooperatiba bihurtzea erabaki zen; mozkin asmorik gabekoa. Alde batetik, lanaren burujabetzaren printzipioan oinarrituta, langileak soldatapean kontratatu orde, hauek proiektuaren parte bihurtzeko. Eta bestetik, bazkideen bizi proiektua bihurtzen bazen, hauen inplikazioa handiagoa izango zela uste zutelako. Kooperatiba horrek sozietate mugatua ere xurgatu zuen.

Hasiera batean zentzua zuen kooperatiba bakarra sortzea jarduera ekonomikoa oso espezializatuta zegoelako komunikazio arloan. Jarduera dibertsifikatu zutenetik, eztabaida pendientea daukate ea ekonomikoki autoaskia den lan ildo bakoitza kooperatiba autonomo bezala jardun behar ote lukeen edo ez; eta ostean zer motatako 2. graduako egitura sortu (talde kooperatiboa, konfederazioa, federazioa...).

- Aplikagarri den legea: Euskadiko Kooperatiben Legea (11/2019 Legea, abenduak 20koa)

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisi*

Euskalgintzatik abiatuta, jarduera desberdinak: Komunikabidea, hezkuntza, elikadura burujabetza, komunikazio agentzia, kultura, feminismoa eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Hasierako 7 urteetan komunikabidea elkarre bezala egituratuta zegoen. Horrez gain, komunikazio zerbitzuak azkartasun handiagoarekin eman ahal izateko, sozietate mugatu bat sortu zuten elkarrearen bazkide batzuen menpe zegoena. Jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea erabaki zenean gizarte ekimeneko kooperatiba bihurtzea erabaki zen. Alde batetik, lanaren burujabetzaren printzipioan oinarrituta, langileak soldatapean kontratatu ordez, hauek proiektuaren parte bihurtzeko. Eta bestetik, bazkideen bizi proiektua bihurtzen bazen, hauen inplikazioa handiagoa izango zelako.

3. Kooperatiba mota

Gizarte ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko kontsumo kooperatiba integrala.

4. Lurralde esparrua

Batik bat, Euskadiko Autonomia Erkidegoa

5. Bazkide motak

- Langile-bazkideak. Une honetan 9 dira
- Soldatapekoak (ez dira langile-bazkide, baina bazkide erabiltzaileak dira). Une honetan 9 dira

Soldatapekoak langile-bazkide bihurtzeko, probaldia gainditu behar dute, gehienez 6 hilabetekoa. Epe hori 18 hilabete arte luzatu daiteke lanpostuak baldintza profesional bereziak galdatzen dituenean. Dena den, langileen eskaera ukatua izan daiteke, besteak beste, kooperatiban langile-bazkide gehiago ez badira behar.

- Bazkide erabiltzaileak: pertsona fisikoak edo juridikoak. Une honetan, 513, bizikidetza unitateak dira.
 - o Ohikoak: zerbitzuak kontsumitzen ohi dituztenak
 - o Ezohikoak: zerbitzuak noizean behin kontsumitzen dituztenak
- Bazkide laguntzaileak
- Bazkide ez-aktiboak

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

- Batzar Nagusia

- Artezkaritza Kontseilua. 10 kidek osatuko dute. Kide horien erdia bazkide erabiltzaileak izango dira eta beste erdia, langile-bazkideak. Presidente bazkide erabiltzaile bat izango da beti, presidenteordea lan-bazkide bat eta idazkaria bazkide erabiltzailea edo lan- bazkidea izan ahal izango da. Hala ere, kooperatibak aukeran izango du, egoerak hala eskatzen badu, idazkari kargua bazkide ez den pertsona batek betetzea. Idazkaria bazkide ez bada ez du ez hitzik ez botorik izango Kontseilu Errektorean.

- Zaintza Kontseilua. 3 kide. Kide horiek bazkideak izango dira, baina bazkide ez direnak ere hautatu daitezke, betiere erdia baino gehiago ez badira. Kooperatibak lan-kontratudun berrogeita hamar langile baino gehiago baditu, langile horiek kide bat aukeratuko dute, kontratu mugagabea daukatenen artean.

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

- Bazkide bakoitzak, pertsona fisikoa ala juridikoa, boto bat.
- Langile bazkideen taldeak, Batzar Nagusiko botoen %45.
- Bazkide erabiltzaileen taldeak, Batzar Nagusiko botoen %45.
- Bazkide laguntzaileen taldeak, Batzar Nagusiko botoen %9.
- Bazkide ez-aktiboek, Batzar Nagusiko botoen %1.
- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desegitea erabakitzeko
- 2/3eko gehiengoa behar da Artezkaritza Kontseiluko kideak kargugabetzeko, kargugabetzea ez bazegoen Batzar Nagusiaren gai ordenean
- Kasu guztietan, bazkide erabiltzaileek eta lan-bazkideek, bi bazkide mota horietako bakoitzak, emandako botoen erdia baino gehiago beharko da

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisisa*

7. Erabakimen ekonomikoa
 - 7.1 Gutxieneko kapital soziala: 3.000 euro
 - 7.2 Derrigorrezko ekarpenak
 - Langile-bazkideak: 5.000 euro
 - Bazkide erabiltzaile pertsona fisikoak: 50 euro
 - Bazkide erabiltzaile pertsona juridikoak: 1.000 euro
 - Bazkide laguntzaile pertsona fisikoak: 1 euro
 - Bazkide laguntzaile pertsona juridikoak: 2.000 euro
 - Erakunde publikoak: 5.000 euro
 - Bazkide ez aktiboak: 50
 - 7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa
 - Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %20a
 - Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a
 - Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - o Borondatezko Funtsak hornitzeko
 - o Derrigorrezko Funtsak hobetzeko
 - o Soberakina ezingo da banatu bazkideen artean, kooperatibak ez duelako irabazi asmorik
- 8 Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: araubide orokorra
- 9 Gatazkak konpontzeko, arbitraje koooperatiboko sistema: bai

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

2.1. Elementu gakoak zehaztapena

Egitasmoa beste lurralde batera eramateko hiru elementu klabe	- Komunitatea: Egitasmoaren xedearekin bat egiten duen komunitate militantea. Aiaraldean euskararen normalizazioaren alde egiten duen komunitatea, hasieran lan boluntarioarekin proiektua babestu zuena. - Eskualdearen testuinguru jakinari dagokion estrategien garapena: Testuinguruaren errealitatearen azterketatik eta euskara ardatz, eskualdean identifikatutako beharren arabera garatutako egitasmoa. - Askatasun ekonomiko eta politikoa: Mendekotasuna sortu edo baldintzak ezarri ahal dituzten erakunde publikoen laguntzarik ez dute nahi izan. AEFren bideragarritasun ekonomikoa ez dago diru publikoaren menpe, lan ildo bakoitza bideragarria da eta AEFren pabiloia bazkideek erositakoa da. Izan ere, ez zuten inolako dependentzia ekonomiko edo politikorik nahi. Horrek edozein erabaki hartzeko askatasuna ematen die.
---	--

- Negozio ereduan

Kokapenaren analisia	Ezinbestekoa da ongi egokitutako espazio fisikoa izatea. Egitasmoak eskualde mailan eragiteko asmoa badu, espazio fisikoa herri bakarrean kokatuko da eta hor burutuko dira ekimen gehienak. Horrek lurralde desoreka bat sortu dezake. Horregatik kokapen geografikoa erabaki garrantzitsua da eskualdea desorekatzen edo bertebratzen lagundu dezakeelako.
Idea: produktu-zerbitzua	Euskarazko komunikabidea izatetik, jarduera produktiboa dibertsifikatzera. Egun, oinarri komunitarioa duten eta Aiaraldeko gizartearen beharrak asetzea helburu duten proiektu eraldatzaileak sustatu eta eraikitzen dituzte euskara ardatz izanik.
Harremanak-Komunikazioa	Zailtasunak aurkitu dituzte haien ideia gizartean zabaltzeko. Jarduera dibertsifikatu zutenetik ez baita beti guztiz argi gelditzen zein den egitasmoaren xedea eta zer zerbitzu eskaintzen dituzten.
Egitura ekonomikoa	Lan ildo bakoitzaren askatasun ekonomikoa. Proiektu sozialaren parte ez den baina aparteko sarrerak lortzea ahalbidetzen dien ekoizpen-jarduera bat ere garatu dute (komunikazio zerbitzuak). Lan egiteko seriotasuna, gauzak eraldatzea ez da joko bat.
Balantze sozioekologikoa	Elikadura burujabetza da lan ildoetako bat. Azkenaldian energia komunitateak sortzeko bidean sakondu dute ESE lan-ildoaren barnean.

- Komunitatearen txertatzea

Lan taldea	Egun proiektuaren jarduera posible egiteko beharrezkoa guztiz. Beharbada, egitasmoaren behar ekonomikoetan gehiegi zentratua dago, eta horrek hausnarketa prozesu baten beharra sortu du bazkide
------------	--

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzaitza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

	erabiltzaileen beharrak gehiago kontuan izateko.
Bazkide kolaboratzaileak	Ezinbestekoa da egitasmoaren xedearekin bat egiten duen komunitatearen bulkada. Hasieran komunikabidea boluntarioek elikatu zuten eta gaur egun AEFren proiektu sozialaren parterik garrantzitsuena bazkide kolaboratzaileak dira. Horietatik batzuk aktiboki lan egiten dute egitasmoan boluntario gisa.
Soldatapeko lana	Langileen erdia. Ez dute kooperatiban erabakitzeko eskumenik, nahiz eta egunerokotasunean ez dagoen ezberdintasunik lan bazkideekiko. Arrazoi ezberdinengatik ez dira bazkide lan-bazkide moduan, baina kooperatibaren erabakietan parte-hartzen dute bazkide-erabiltzaile moduan.

- Eraldaketa lurraldean

Lurralde ekosistema komunitarioa	Lurraldetasuna eta komunitatea. AEF eskualde proiektu bat da herrikerietatik urrundu nahi dena. Honek tokiko beharrekin eta beste eragileekin konektatu du. Eskualdeko eta Euskal Herriko eragile komunitario eta herri mugimendu ezberdinekin harreman estua dauka.
Tokiko ehun enpresariala	Bakarrik bezero bezala. Publizitate eta komunikazio zerbitzu gehienak ehun enpresarialari ematen dizkiete (salbu erakunde komunikazioko zerbitzuak, udalaei ematen zaizkiela)
Lurralde ekosistema kooperatiboa	Ez dago ekosistema kooperatiborik eskualdean. AEF-ren lan ildoetan jarduten duen beste eragile kooperatiborik egotekotan, helburua ez litzateke hori xurgatzea edo konpetentzia egitea, baizik eta elkarlan espazioak sortzea. Euskal Herri mailako ESEko beste erakundeen bezeroa da (Izarkom, Goiener, Koop 57)
Lankidetzak publiko-komunitarioa	Orain arte ez dituzte lankidetzak publiko-komunitariorik garatu, baina etorkizun hurbilari begira, esploratu beharreko aukera bezala ikusten dute.

2.2. AMIA analisia

Zentzu honetan, hasieratik argi izan zuten lokalaren jabetza eurek izan nahi zutela. Hots, ez zuten nahi lagapen publikorik espazioaren egonkortasuna aldaketa eta erabaki politikoen menpe utziko zuena. Modu honetan, mehatxu nagusi bati baliabide propioekin aurre egin zitzaion.

Alabaina, honek ahulezia nagusi bat dakar egitasmoaren behar ekonomikoak eta bazkideen behar sozialak orekatzeko orduan. Lokala erosteak, eskatu behar izan zuten mailegua bueltatu beharra eskatzen du. Horri gehitu behar zaio jardueraren dibertsifikazioagatik eta izan duten hazkunde azkarragatik ordaindu behar dituzten 18 pertsonen soldatak. Gainera, erabiltzaileen beharrak asetzeko eskaintzen diren prezio doituek lan erritmo oso altuan lan egitea eragiten du. Horrek ere zaildu egin du ordaindutako lana eta lan boluntarioaren arteko kudeaketa. Alderdi ekonomikoa sozialarekiko nagusitzen bada eta ordaindutako lan baliabide gehiago jartzen badira lan ildoetako ekoizpen prozesuetan, geroz eta bazkide erabiltzaileen parte-hartze txikiagoa gertatzen dela antzeman dute. Hortaz, delegazionismoan edo burokratizaioan erortzeko arriskua ikusten ari dira.

Aldi berean, ordaindutako lan profesionala ezinbestekoa da AEFk bere buruari jartzen dizkion helburuak bete ahal izateko. Horregatik, zentzu honetan, arazo nagusiena boluntariotasunaren egituraketan eta estrategian dago (zehazki, azken horren faltan). Kooperatiba sortu zenean zehaztu zen ildo bakoitza hilabetero batuko zela interesatutako bazkideekin, proiektuen berri emango zela eta hartu beharreko erabakiak partekatuko zirela. Egun, errealitatea desberdina da, eta estrategia eta egituraketa horri heltzen jarraitzen dion lan ildo bakarra feminismoa da. Orokorrean egunerokotasunaren kaosak lan boluntarioa zaintzeko aukera zailtzen du, lan boluntarioaren kudeaketa eta komunikazio eraginkorra zailtzen duen moduan.

Egitasmoaren beste indarguneei dagokienez, lan taldearen seriotasuna eta AEFren komunitatea eta horren anbizioa azpimarratzen dira. Alde batetik, lantaldeak badaki egitasmoaren proiektu soziala aurrera eramatea, eta beraz, eraldaketa

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

sozioekonomikoa gauzatzea ez dela erraza eta eginkizun serioa dela. Eta bestetik, proiektuari babesa eman dion komunitatearen bulkada ezinbestekoa izan da. Gainera, hasieran aurrera eramatea ezinezkoa ziruditen lan ildo berriak irekitzeko anbizioa beharrezkoa izan da. Azken honi lotuta, lan ildo bakoitzaren askitasun ekonomikoa planteatzea oso garrantzitsua izan da egitasmo osoaren bideragarritasun ekonomikoari begira. Beharbada, jardueraren dibertsifikazioari lotutako ahulezia nagusia, gizarteratzen den ideia inguruko ideia lausoa sortzea izan da. Izan ere, beti ez da guztiz argi gelditzen zer den AEF: komunikabide bat, kultur espazio bat, catering zerbitzu bat, ekonomato bat... Nahiz eta, aitortzen dutenez, mota honetako egitasmoek, orokorrean, harrera ona izango duten edozein lurraldean.

Azkenik, etorkizuneko aukerei erreparatuz, lankidetzak publiko-kooperatibo-komunitarioaren bideak esploratzea garrantzitsua izan daitekeela uste dute. Orain arte instituzioekiko harremana bezero-hornitzailearena izan da eta pauso interesgarria bezala ikusten dute batez ere energia komunitateen sorkuntzari begira. Era berean, dirudienez tokiko instituzioek begi onez ikusten ari dute energia komunitateen sorkuntza, eta beraz, lankidetzak publiko-kooperatibo-komunitarioa orokortze bidean sarbidea izan daiteke hau.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

EKHILUR

1. Esperientziaren deskribapena

1.1. Negozio ereduaren deskribapena

Ekhilur ekimenak merkatu nitxo berri bat irekitzen ari dela esan daiteke. Orain arte, Ekhilur dabilen alorrean zegoen eredu txanpon lokalena zela esan daiteke. Espainia mailan badira Ekhilur antzeko esperientziak (Katalunian eta Valentzian) baina oso lotuta tokiko esparrura, esparru geografiko konkretu batera zuzenduta daude txanpon edo ordainketa sistema hauek. Ekhilur, aldiz, ikuspegi sistemikoagoa du, hau da, ez da txanpon lokal bat planteatzen baizik eta euroekin lan egiten duen ordainketa sistema arautu alternatibo bat. Visa, Bizum eta horrelako sistemak bezala erregulazio bera du baina sare horiekiko dependentziarik ez duena, ordainketa sistema propio bat sortzen da.

Ordainketa sistemak tokiko ehun ekonomikoa sustatu nahi du eta ordainketa sistema aplikatzen duten lurralde ezberdinen (Hernanikoa lehena) saretzearekin bestelako beharrak asetzea ere du helburu. Saretze maila altua izanik, ordainketa sistemetan ezarritako arauak ahalbidetuko baitute baliabide nahiko kreditu edo finantzazio arloan aritzeko eta aukera irekiko da ordainketa sistema barruan bideragarriak izango diren interes gabeko edo interes negatiboko kredituak eskaintzeko. Finantzazio sare tradizionaletikiko alternatiba bat suposatuko du eta sare barruan kredituak lortu ahal izateko ez da nahitaezkoa izango gehiago irabazi edo gehiago produzitu beharra kredituen itzulera (kapitala eta interesak) ordaintzeko, ez dela hazkunderik behar alegia. Nolabait, gaur egungo sistema ekonomikoaren dinamika eraldatzea posiblea den frogatu nahi da, interes gabeko edo interes negatiboko ekonomia batek ahalbidetuko bailuke hazkunderik gabeko edo desazkundean funtzionatu dezakeen sistema ekonomiko bat edo, behintzat, hazkundearekiko dependentzia murriztuko duena.

Ohiko merkatu zein merkatu sozialerako joera du ekimenak, baina hasiera batean lurraldeko ehun ekonomikoa sustatzea helburu izanik, ohiko merkatuan arituko da erabiltzailearentzat abantailaren bat edo etekinen bat sortuaz. Ekimen aktiboa izan behar du etengabeko erabilera eskatzen duelako, horretarako pizgarri ekonomiko bat ezarri, eta lehiakideak ordainketa sistema oso azkarrak eta efizienteak direlako (kreditu txartelak eta Bizum).

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Negozio eredua, modu sinplean, jadanik existitzen diren tresnak (ordainketa sistemak) erabiltzen dira herri mailako merkataritzara egokituta eta aplikatuta, herritarren kontsumo portaera konkretuak bultzatuz tokiko ekonomia/merkataritza sustatzeko. Mugi txartelaren antzera, kreditu txartel edo kontu korrante batera loturik ez dagoen diruz kargatzen den kontu birtual bat da. Kasu honetan, mugikorrek aplikazio bidez edo erabiltzaileak esleituta duen QR giltzari bidez herriko dendetan erosketak egiteagatik hobariak jasotzen dira. Erosketa egiten denean hobaria ez da zuzenean aplikatzen, hau da, erosketa burutu ostean eta zenbateko osoa ordainduta, erosketa horren zenbateko bat (%) jasotzen da bueltan Ekhilur kontu birtualean. Jasotako zenbatekoa hori nolabait markatuta, identifikatuta, geratzen da eta onura hori eman duen sare berean bakarrik erabili ahal izango da.

Ekhiluren berrikuntza edo desberdintasuna beste sistema lokalekiko ondorengoa litzateke: euroekin funtzionatzen duela zuzenean, euro horiei txanpon lokalen ezaugarriak esleitzen zaizkie eta fidelizazio sistema batekin nahasten da, hau da, aipatutako hobari sistema batekin esaterako. Gaur egun bi sare ditu Ekhilurek, bata Bilbon eta bestea Hernanin. Erabiltzaile batek kontua sortzen badu eta dirua sartuz gero nahi duen sarean erabili dezake baina sare horietan erosteagatik jasotzen diren hobariak edo onurak bakarrik erabili ahal izango ditu berriz soilik hobaria/onura lortu duen sare horretan bertan.

Hernaniko ordainketa sistemaren kasuan, Udaletxearen bultzadaz sortua izanik, ordainketa sistemak Udaletxeak bideratu dezakeen aurrekontu publikoa (kasu honetan hobari bidez) herrian bertan erabiliko dela ziurtatzen duen sistema bat eskaintzen da. Tokiko dendak indartzeko fidelizazio sistema moduko bat bezala litzateke, ordainketa sistema propioan programatzen den funtzionalitate multzo konkretu baten bidez. Zentzu honetan, arlo teknikoan, ordainketa sistema kooperatibaren baitan egoteak, ez Visa ezta besteekiko menpe, nahi moduan programatzea ahalbidetzen du. Baina lehendabizi berebizikoa da sarea sortzea eta horretarako merkatarien laguntza beharrezkoa da, azken finean herriko jende gehienak herriko merkataritza batean edo

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

aurten, 2024an, dendari guztiei planteatu zitzaien hobarien zati bat beraien esku izatea eta Udalaren esku beste bat, proportzionala: Dendariak %0-Udalak %0; Dendariak %1-Udalak %4; Dendariak %3-Udalak %7; Dendariak %5-Udalak %10. Edozein kasutan, erabiltzaileek dendarien hobaria jaso ahal izateko bazkidetu behar dute (10€) eta hilabeteko kuota txiki (1,95€) baten ordainketa egin sistema barruan. 2023an Udalak asumitzen zituen sistema barruko kontuen kostuak, erabiltzaileek ordaindu gabe jarraitu dezake sistema erabiltzen baina kasu horretan Udalaren hobaria bakarrik jasotzen du Hernaniko herritar bezala. Modu honetan, alde batetik, finantzazioa lortzen da kooperatibarentzako, eta bestetik, dendariak jartzen duten hobariari balio bat ematen zaio. Egun, dendarien %97ak hobaria jarri du sisteman. Honekin guztiarekin, Udalarekiko dependentzia ekonomiako murrizten da eta, era berean, kooperatibak errentagarritasun ekonomiko bat lortzen du.

Hala eta guztiz ere, Udal hobariak bi muga dituzte, bata, muga indibiduala, erabiltzaile bakoitzak ezin ditu hilabeteen 100€ baino gehiagoko Udal hobaria jaso (dendarien hobariarekin ez da mugarik ezarri). Eta bestea, hilabeteroko partida publiko finkoaren zenbatekoa. 2023an 20.000€ko partida 10 hilabeteren bueltan amaitu zen partida eta amaitu zen hilabetetan sistemaren erabileran jaitziera nabarmena izan zela antzeman zen. Hori ekidin nahian sortu zen 2024an hobari konbinatuen araua eta, apirila arte, hilabeteko partidak amaitu diren arren erabilera ez da 2023an bezain beste murriztu, dagoeneko ohitura bat sortu/sustatu delako, portaera konkretu bat, eta hobari bat mantentzen delako, dendariena.

Sistemako kontuan dirua kargatzeko bi modu daude, bat, Ekhilur web orrian eta dagokion kontuan sartuta kreditu txartel bidezko karga. Eta bi, sareko edozein denda/merkataritza bidez karga. QR bidez edo aurretik erosketarik egin bada identifikatua bezero moduan, zenbateko esan, dendariak zenbatekoa kargatu eta erailtzaileak eskudiruz (Bizum bidez ere) euroak dendariari. Bigarren aukera hau arrakala digitala saihestako edo mugikorra erabili nahi ez duenentzako ezarri da, baina hala ere, kontua kontsulta egin ahal izateko beharrezkoa gailu teknologikorenbat (ordenagailu, mugikor, ...).

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Ordainketa sistema propio bati modu oso profesional eta eraginkor batean aurrera egiteko milioika euroko hasierako inbertsioa beharko litzateke: lizentzia bankarioa eta ordainketa programa garatu. Alternatiba hornitzaile bidezko ekoizpena, batetik, kobertura legala ematen duen diru elektronikoko entitate hornitzailea eta, bestetik, ordainketa sistema propioa garatu duen software hornitzailea kontratatu. Software erabileragatik ordaintzen da eta software hori diru elektronikoko hornitzaile dago lotua, zeinak diru zorro elektronikoa sortu eta dirua digitalizatzeko babes legala ematen duen.

Banaketari dagokionez gakoa ordainketa sistema ezagutaraztea da eta horretarako dendarien laguntza berebizikoa da. Dendaria proaktiboa den momentutik erabiltzaileak sistemara hurbilduko dira eta behin jende multzo bat lortzen denean, erabiltzaileak ahoz ahokoaren bidez gerturatzen dira (senideek edo lagunek aholkatuta).

Onura indibidualak onura kolektiboa sortzen laguntzen duenaren ideia zabaldu nahi da, onura indibidualarekin batera onura kolektiboa sortzen dela alegia. Geroz eta jende gehiago hurbildu geroz eta tokiko merkatarien fakturazio minimo batzuk egonkortzen dira eta honek posible egiten du merkatariak hobariak aplikatzea. Sistemak eskaintzen dituen abantailak erabiliz, zuzunean erabiltzaileak jasotzen ditu noski, baina bide batez tokiko ehun ekonomikoarengan eragin positiboa ere badu.

Komunikazio arloan ere Udala kabea da, une oro udal teknikariarekin harremanetan gaude. Moneta mahaia dago HB (Hernani Burujabe) barruan eta hor elkartzen dira ekimenaren nondik norakoek zehazteko eta erabakiak hartzeko. Udalarekin harremana estua da eta ordainketa sistema promozionatu du: triptikoak, kartelak eta prentsa aurreak. Baina herri mailan benetan funtzionatzen duena ahoz ahokoa da. Zentzu honetan, pertsona dinamizatzaileak/komertzialak herritarrekin zein merkatariarekin egiten duen ahoz ahokoa komunikazioa oso inportantea da. Bestalde ere, bada web atal berezia egungo bazkideentzako eta web atal orokorra bazkide potentzialentzako.

Zailena sare minimo bat sortzea da, denda kopuru minimo bat, behin hori lortuta zabalkundea/difusio esponentzialki hazten da. Saiatu behar da egunero erosketak

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

egiten diren dendak/sektoreak barneratzen, eguneroko erosketak egiten diren dendak (okindegia, harakinak,...) badira ordainketa sistemaren bidezko erosketa/kontsumo ohitura sustatzen da. Behin ohitura garatuta, ordainketa sistema barruan txertatuta dauden eguneroko erosketa suposatzen ez duten dendetan salerosketak ordainketa sistemarekin egitea errazten du, edo are gehiago, erabiltzaileak dendariei sistema barruan dauden galdetuz, horiek sistemara hurbiltzea ekar dezake. Hori guztiaren ondorioz, sarea handitzeko aukera gehiago eman dezake mota horretako denda taldea osatzeak.

Hornitzaileekin, aldiz, erabiltzen diren komunikazio kanalak zuzenak dira, telefonoz edo posta elektronikoz egiten da komunikazioa.

Egitura ekonomikoari dagokionez, hasierako inbertsioa konpartitua da Ekhilur barruan egon daitezkeen lurralde desberdinetan egiten diren ekimenen artean, baina Hernaniko ekimenaren bultzadaz egindakoa izan da eta 20.000€ ingurukoa izan da (bazkidetzekin, kooperatibako kapitalari ekarpen indibidualekin eta 10.000€ko mailegu batekin finantzatua izan dena). Hasierako inbertsio hori diru elektronikoko entitatera konektatu ahal izateko, bere plataformara konektatu ahal izateko, kanon bat ordaintzeko, eta softwarearen programazioaren zati bat finantzatzeko izan da, beste zatia software hornitzaileak bere gain hartu zuelako.

Gastu orokorren barruan, hiru dira kostu finkoak: hasierako inbertsioen gaineko hileko mantenu kostu bat dago, hilabetean 1.000€ inguru, hau da, 12.000€ (gehi BEZa) bueltan urtean; pertsonal gastuari dagokiona 35.000€ urtean; eta hileko 0,5€ (gehi BEZa) erabiltzaile bakoitzaren kontuaren mantenu kostua. Bestetik, ekoizpen kostuekin, kostu aldakorrekin, lotuta kreditu txartel bidez egindako diru kargak diru elektronikoko hornitzaileak kobratzen duen %1eko gastua, baina zenbateko hori irteera-tasarekin berreskuratzen da.

Sarrerei dagokionez, bere horretan salmentak ez diren arren, ondorengo kontzeptu hauek barneratzen dira komisio moduan:

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- %1eko irteera-tasa. Zirkuitutik/sistematik ateratzen den euro bakoitzeko %1eko komisio kobratzen da. Tasa honekin ekoizpen kostua suposatzen duen kreditu txartel bidezko kargen kostua estaltzen da, diru masa antzekoak mugitzen direlako zirkuituan/sisteman sartu-atera.
- %0,5eko oxidazio-tasa aplikatzen zaie erabiltzaileei. Kontuan mantentzen den hileroko batez besteko euroen gaineko %0,5eko tasa. Kontuan izan behar da, diru sarrera benetan dendariei/merkatariei aplikatzen zaien tasa dela, herritarren kasuan aplikatzen dena elkarte batera dohaintza moduan bideratzen delako. Gaur egun, dendari/merkatariei aplikatzen zaien oxidazio-tasak 550€/hileko diru sarrera sortzen ditu, urtean 6.600€.

Kuota bidez eskurazten diren diru sarreren baitan ondorengo barneratzen dira:

- Bazkideen hileko 1,95€ko kuota. Kuota honen bidez, bazkide bakoitzaren kontuaren mantenu kostua berreskuratzen da eta superabita lortzen da.
- Bazkide ez diren erailtzaileen kasuan, Udalak erabiltzaile bakoitzeko kontuaren hileko 0,5€ (gehi BEZa) mantenu kostua asumitzen du.
- Bazkidetza kuotek 900€/hileko diru sarrera sortzen dute, urtean 10.800€.

Diru-laguntzen kasuan, 2023an 50.000€ izan ziren eta hauekin gastu orokorrak estaltzen dira, pertsonal gastua eta hasierako inbertsoen mantenu kostuak, baita bazkide ez diren erailtzaileen kasuan Udalak bere gain hartzen duen erabiltzaile bakoitzeko kontuaren hileko 0,5€ko mantenu kostua. Gaur egun, diru-laguntza osoa Hernaniko Udaletik lortzen da baina beste herri batean proiektua garatuko balitz kostu finko horiek udal ezberdinen artean banatuko lirateke. Azken finean, Ekhilurek herri ezberdineko ekimenak elkarren artean konektatuta, saretuta, izatea planteatzen du sinergiak sortuaz. Eskalatze bide horretan, ekonomikoki kostu finkoen banaketa posible izango da, Udal bakoitzaren ekarpen txikiagoa izanik.

Finantzazio etikoei dagokionez, Ekhilurek kontaktuak izan zituen hasiberrian, Hernaniko esperientzia garatu aurretik, aipatutako hasierako inbertsioa finantzatzeko baina ezin izan zen eskuratu. Alde batetik, Fiarekin harremanak izan ziren baina ekimenak hasiera batean diru sarrera aurreikuspen zalantzakorra zuenez ez zen

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

finantzazioa eskatzeko aukerarik izan. Eta bestetik, Koop57k 10.000€ko mailegua eskuratu ahal izateko, interes nahiko altua eta hasierako 1.000€ despoltsapen bat beharrezkoa zen eta sortu berritan zegoenez ez zuen gaitasunik horretarako. Azkenen, Laboral Kutxan lortu zen mailegua, "crédito semilla", baldintza onak zituen mailegua (5 urteko mailegua %2,5 interes-tasarekin). Momentu horretan finantza etikoek zituzten tresnek ez ziren ekimenaren beharrak asetzeko gai edo ez ziren ekimenaren beharretara egokitzen. Ekhilureko hasierako momentu horretan bazkide gutxi batzuk ziren, Hernaniko esperientzia sortu aurretik, eta hasierako inbertsiorako beharrezkoa zen zenbatekoa lortu nahi zen baldintza ahalik eta onenetan, zeinetan gauzak oker aterako balira bazkideen artean aurre egiteko zailtasun larriak izango ez ziren. Hala ere, Ekhilureko Hernaniko ordainketa sistema gauzatze lehen pausoa Koop57ko kide batek Hernani Burujabe ekimenarekin kontaktuan jarri zituelako izan zen. Hernani Burujabe ekimenaren baitan txapon lokala txertatzeko ideian, formula ezberdinak aztertzen ari ziren eta kontaktuan jarri ziren.

Egoera honek, finantzazioa lortzeko zailtasunarena alegia, bat egiten du Ekhiluren beste helburu orokor batekin, finantzazio sistema alternatibo baterako eskaintza sortzeko helburuarekin. Ekhiluren bueltan saretuta egon daitezkeen ordainketa sistema ezberdinen barruan, sistemek izango dituzten berezitasunengatik, maileguaren ez ordainketa bat ematen bada sistemen barruko oxidazioek ez ordainketa hori xurgatzeko gai izango da. Ondorioz, interes gabeko maileguak eskaintzeaz gain, maileguaren bermea sistema bera izango litzateke.

Irizpide sozial bezala orain ez dago irizpide berezirik, ekimenaren helburua herriko merkatariak eta herritarrak biltzea eta hurbileko erosketa sustatzea da. Tokiko merkatariak orokorrean eta bereziki bertako produktuak saltzen dituzten merkatariak lehiakorragoak (prezio ikuspuntutik) izaten laguntzen da salerosketa bakoitzari esleitzen zaion hobari sistemaren bitartez. Hau da, prezio aldetik eskuragarriagoa izango diren kalitatezko produktua lortzeko aukera izango da salerosketa Ekhilur bidez egitean. Ondorioz, ekimenak tokiko gizarte kohesiori egiten dion ekarpena hurbiltasun-ekonomia jasangarria sustatzea litzateke.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Bestetik, ordainketa sisteman ezarrita dagoen diruaren oxidazioaren bitartez, elkartegintzari (ehun soziala) ekarpen ekonomikoa (sistema barruan finantzazioa bat lortuz) eta herri mailan ezagutza eta ikusgarritasuna handitzea dira ekimenak Ekonomia Sozial Eraldatzaileari egiten dion ekarpena. Erabiltzaile bakoitzak aplikatzen zaion oxidazioaren zenbatekoa, bere kontuaren hileko batz besteko saldoaren gaineko %0,5eko komisioa, bazkide diren elkarteen artean (zerrenda batetik aukeratzen da) zeini bideratu erabakitzen du. Hortaz, ikusgarritasuna aukeratuak izan daitezkeen elkarteen zerrendan egonagatik, eta ekarpen ekonomikoa zenbateko jasotzeko aukeratua bada. Bide batez, elkarreak herri ekonomian integratzen dira sistema bidez jasotzen duten diru soilik herriko ekonomian erabiliaz beraien beharrak asetzeko.

Ekimenaren jardueran espresuki txertatuta dagoen irizpide ekologiko bakarra dinamizatzaile/komertzial egitekoak burutuko dituen pertsonaren kontratazio politikarekin lotua dago. Pertsona hori tokikoa izatea ezinbestekoa da, tokiko ehun ekonomiko eta sozialaren inguruko ezagutzaz eta gertutasunaz gain (konfiantza eta segurtasuna eskaintzen duen figura), desplazamenduak ahalik eta txikienak izan daitezen. Horretaz gain, zeharka bada era irizpide ekologikoak aintzat hartuko dira, etorkizunean sisteman irizpide horiek dituzten hornitzaileak integratzea da helburu (Izarkom edo Goiener bezalakoak) eta merkataritzan txertatzea hauen hornitzaile moduan ordainketa sistemaren bidez harreman komertziala eginaz. Printzipioz irizpide ekologikoak barneratzea lehentasun izan ez daitezkeen sektorean, merkataritzan, eta irizpide horiek dituzten hornitzaileak, ordainketa sistemak ematen duen aukerarekin, beraien jardueran barneratzea da etorkizuneko helburu.

Lurraldeko oreka ekologikoari egiten zaion ekarpenari dagokionez, tokian-tokiko pertsonen arteko elkartrukeak gauzatzeko ordainketa sistema izanik, hurbiltasun – ekonomia sortzen laguntzen da eta desplazamenduen murrizketa supostu dezaketen tokiko salerosketak sustatzen dira.

1.2. Barne komunitatea

Ekhilur kontsumo kooperatiba bat da, bere baitan hiru bazkide mota onartzen dituen: lan bazkideak, bazkide erabiltzaileak eta bazkide kolaboratzaileak. Lehenengoen

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

kasuan, bi langile bazkideek osatzen dute lan taldea, bata, dinamizatzailer/komertzial lanak burutzen dituen Hernaniko bizilaguna da, eta bestea, ordainketa sistemaren lan teknikoa lantzen duena. Hauen erabakiguneei dagokionez, bitan desberdindu beharko lirateke. Bata, Ekhiur kooperatibaren barruan bi langile bazkideek kontseilu errektorean parte hartzen dute eta noski urteko batzarrean ere. Eta bestea, Hernani Burujabe (HB) ekimenarekin lortuta, erabakigunea Hernani Burujabeko Moneta Mahaia da, bertan hartzen dira Hernaniko ordainketa sistemaren erabakiak eta bertan parte hartzen dute. Azken honetan, sektoreari lotutako herritarren ekimenak, ekimen ekonomikoak eta udal politika artikulatzen dira eta plan sektoriala adosten da.

Ekimenean langile gutxi izanik barne komunikazioa eta zaintza aurrez-aurreko harremana eta telegram talde baten bidez bideratzen dira, oso dinamikoa eta zuzena. Etorkizunari begira, langile gehiago batzen direnerako, hau da, langile kopurua haztean garatu beharko dira bestelako komunikazio kanal eta zaintzarako mekanismoak, baina gaur egun ez luke zentzu handiegirik bi pertsonentzako komunikaziorako eta zaintzarako mekanismorik eta tresnarik.

Lan-bazkideez gain, bi motako bestelako bazkideak aurkitzen dira ekimenean: Bazkide kolaboratzaileak eta bazkide erabiltzaileak. Alde batetik, bazkide kolaboratzaileak Goiener Koop.S. eta Hernaniko Udala dira. Bazkide mota honek kooperatibara egiten duen ekarpen ekonomikoa 1.000€koa da. Bi bazkide hauek ekimenari egiten dioten ekarpen operatiboaren arabera desberdindu beharko genituzke. Udalaren partetik, baliabide publikoak baliatzen dira sistema martxan jartzeko, modu zuzenenean diru-laguntza bidez, ordainketa sisteman hobariak ezarriz, teknikariaren (langile publikoaren) denbora/lana aholkularitza administratibo/burokratiko lanetan, ekimenarenak jasotzen duen babes instituzionala eta komunikazioan. Goiener Koop.S.ak egiten duen ekarpen operatiboa aldiz, kooperatibagintza inguruko aholkularitza lanekin lotzen da, kooperatiba izaerari lotutako kontsulta tekniko/juridikoei erantzuten baitie. Ekhiur Hernaniko ordainketa sistema Hernani Burujaberen baitan dagoen ekimena izanik eta Udalak parte hartzen duenez lehen aipatutako Moneta mahaian, ondorioz, azken honek ordainketa sistemaren operatibari lotutako erabakietan parte hartzen du modu zuzenean, baita kooperatibaren urteko batzarrean ere. Aldiz, Goiener Koop. S. soilik urteko batzarrean parte-hartzen du, edozein bazkide bezala.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Bazkide mota hauekin barne komunikaziorako erabilitako kanalak bi motakoak dira, bata ekarpen operatiborako erabiltzen dena eta zuzenagoa dena, telefonoa eta e-mail zuzena, eta bestea, kooperatibako barne komunikazio instituzionalerako (Batzar deialdiak,...) e-mail instituzionala. Bazkide kolaboratzaileen kasuan zaintzarako, bereziki espektatiba eta konpromisoen jarraipenerako, komunikazio eta harreman zuzena erabiltzen da.

Azkenik, bazkide erabiltzaileak, bai herritarrak zein merkatariak dira: Hernanin 500 eta Bilbon 110 bat bazkide dira egun. Bilboko ekimenean sarea badago baina sistemak ez du mugimendu handirik. Hernaniko kasuen 500 bazkide erabiltzaile horietatik %10 inguru (50) merkataritzak dira, eta kasu guztietan kooperatibaren kapitalera egiten den ekarpen ekonomikoa 10€koa da eta beraien parte-hartzea urte batzarrean eta kontseilu errektorean hartzen diren erabakietara lotzen da. Edozein kasutan, arlo operatiboari lotutako erabakietan ere eragina dute e-mail bidez bidalitako inkestatik jasotzen diren iradokizunak askotan aintzat hartzen direlako. Beraz, bazkide erabiltzaileekin barne komunikaziorako kanala e-mail da. Azpimarratzekoa da aurrez aipatutako e-mail bidezko inkesta, baita Ekhiur kooperatibak Hernaniko ekimenerako informazio puntu gisa erabiltzen den espazio fisikoa ere, beharrezko elementu klabea baita bazkide erabiltzaileenaganako gertutasuna, konfiantza eta segurtasuna lortzeko. Azkenik, barne komunikazio tresna berak erabiltzen dira zaintzarako, bereziki erabiltzaileen behar eta espektatiben jarraipenerako. Bazkide langileekin aipatu moduan, bazkide erabiltzaile zein kolaboratzaileen kasuan ere, etorkizunean kopurua haztean garatu beharko dira bestela komunikazio kanala zein zaintzarako mekanismoak behar, espektatiba eta konpromisoan jarraipenerako zein gatazken kudeaketarako.

Hernaniko ekimenean baitan boluntarioak, zentsu hertsian, ez daude. Baina konturatu gabe bada ere, zeharka, bazkide erabiltzaileek (500 bazkide) boluntario lanak egiten dituzte, komunikazio/zabaltze arloan hain zuzen ere. Denda/merkataritzan Ekhiur ordainketa sistema duten galdetzen dutenean edo dendariak bezeroari salerosketa Ekhiur bidez burutu nahi duen galdetzen duenean, Ekhiur ordainketa sistemaren komunikazio eta zabaltze lanetan laguntzen dute.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Bilboko ekimenaren kasuan, badira 4 bazkide lan boluntarioa burutzen dutenak, bat finantza/kontabilitate arloan, eta beste hiruak ekimenaren zabaltze lanetan eta baliabide bilaketan. Bazkide eta boluntario hauek Kontseilu Errektorean parte hartzen dute eta bazkide guztien moduan Batzarrean ere. Erabilitako barne komunikaziorako tresnak telegram taldea, telefona eta aurrez-aurreko bilerak dira. Langile bazkideen moduan gutxi izanik zaintzarako, behar, espektatiba eta konpromisoen jarraipenerako, komunikazio eta harreman zuzena erabiltzen da. Aurrera begira, kopurua haztean garatu beharko dira bestela komunikazio kanal eta zaintzarako mekanismoak.

Egitura txikia denean eta erlazioa zuzena dagoenean ez da hain beharrezkoa protokolo edo dena delakoak, espontaneoki ateratzen dira, hau da, normalean mota honetako proiektuetara, hasiera batean batik bat, hurbiltzen diren pertsonak antzeko sentsibilitateak dituzte alor askotan eta osagarriak izaten dira eta modu natural batean ematen dira zaintzarako tarte informalak.

1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea

Hernaniko Ekhilur ekimena guztiz lotua dago Hernani Burujabe lankidetzaren publikomunitarioarekin. Hernani Burujabe herri proiektu bat da, herriko ehun ekonomiko, sozial eta administratiboa barnebiltzen dituen trantsizio ekosozialerako alternatiba praktikoa. Hernanin martxan den egitasmoa tokiko garapen burujabearen oinarritzen da. Esan nahi baita, estrategikotzat jotzen diren esparru guztiei ahalak eman nahi dizkie bertan antolatze, sustapen publikoaren bidez, planifikazio komunitarioan eta kudeaketa kooperatiboan oinarrituta garatu daitezen (<https://hernaniburujabe.eus/zer-da/>).

Tokiko ekonomia eta merkataritza burujabe horrek moneta eduki behar du bidea egiteko makulu, eta horregatik, moneta propioaren aldeko apustua egin du Hernani Burujabek. Kasu honetan, Ekhi moneta martxan jarri du, ahalik eta hedadura handiena izan dezan. Ekhiaren bidez, ordainketa sare propio baten jabe dira hernaniarrak eta bat egitea erabakitzen duten ehun ekonomiko eta komertzialeko eragileak (<https://hernaniburujabe.eus/burujabetza/moneta/>).

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Ekhiurrek eskaintzen duen zerbitzuaren izaerari erreparatuz zaila egiten da desberdintzea barne eta kanpo komunitatea, hau da, ordainketa sistemaren asmoa eta erronka badelako tokiko ehun sozial, ekonomiko eta publiko osoa bere baitan biltzea. Hernanin, ehun komunitario horren zati bat dagoeneko bada barne komunitatearen parte baina oraingoz kanpoan direnak, barne komunitatearen partaide potentzialak dira. Beraz, kasu honetan kanpo komunitateaz ari garenean, dagoeneko ordainketa sistemaren bueltan aurkitzen ez den ehun ekonomiko/sozial/publikoaz ari gara.

Kanpo komunitatean identifikatzen dira, lehenik, tokiko enpresak eta hornitzaileak (pribatuak zein Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileko ekimenak). Ehun ekonomikoaren beharra bada gertuko bezero/erabiltzaileetara hurbiltzea eta bezero/erabiltzaile kopurua handitu, eta behar hori asetzen Ekhiurrek ekarpena egin dezake ehun ekonomikoa sisteman integratuz tokiko bezero/erabiltzaileekin elkartrukeak gauzatzeko aukerak zabalduz. Hala ere, antzematen den zailtasun bat, bereziki enpresa handietan, elkartruke formalak gauzatu ahal izateko IBAN funtzionalak izatearen beharra da. Enpresa askok eta Administrazio Publikoak (AAPP) transferentzia bidez funtzionatzen dute eta horretarako IBAN kontuak behar dira. Ekhiur kontuak, egun, diru zorro birtualak dira IBAN zenbaki batekin baina hau ordainketa sistema nazionalen barruan errekonozituta ez dagoen IBAN zenbakia da. Zentzu honetan, etorkizuneko erronka Ekhiur kontuen IBAN funtzionala lortzea da.

Bigarrenik, Udala legoke, baina kasu honetan bazkide erabiltzaile moduan identifikatuta, hau da, Udalaren eginkizun operatiboen integrazio sistema barruan. Udalak badu tokiko ehun ekonomikoa sustatzeko nahi eta beharra eta, noski, Ekhiurek dagoeneko laguntzen badio ere, rol berri honekin Ekhiur bidez diruz egiten diren zenbait Udal tramiteek (zergak, tasak, diru-laguntza despoltsapenak,...) tokiko ehun ekonomikoan izango lukeen eragina efektu biderkatzailea izateko aukera izango luke. Esaterako, diru-laguntzak esleitzen direnean, diru-laguntzaren zenbatekoa handiago esleitzeko aukera egon liteke baldin eta diru-laguntzaren portzentai bat Ekhiur bidez jasotzeko prest bada onuraduna. Modu honetan, tokiko merkataritza eta zirkuitu lokala sustatzen da, Ekhiur sistemaren bidez biderazten den diru-laguntza herriko sarearen

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

bitartez soilik erabili ahal delako. Hala ere, Udalekin edo herri erakundeekin lan egin ahal izateko, ehun ekonomikoaren atalean esan bezala, arazo tekniko bat gainditu behar da, IBAN funtzionalak izatearena alegia. Egun, Ekhilurek oraindik Hernani Burujaberen aterkia edo ingurunea/testuingurua behar du hazteko baina etorkizunean Ekhilur garatzen bada beste lurralde batean Ekhilur izan daiteke hazia lankidetzat publiko-komunitarioko ekimenak aurrera eramateko.

Lankidetzat publiko-komunitarioarekin jarrituz, lehen aipatu bezala, Ekhilurrek Hernani Burjabeko Moneta Mahaian parte-hartzen du. Moneta mahaia Hernani Burujabe ekimenean barruan moneta sektorearen inguruko erabakiak hartzen den gunea da, hau da, Hernaniko ordainketa sistemaren inguruko erabakiak hartzen diren espazioa. Mahai honetan sektoreari lotutako herritarren ekimenak, ekimen ekonomikoak eta udal politika artikulatzen dira eta plan sektoriala adosten da.

Hirugarrenik, kanpoko ehun sozial/komunitarioa, dagoeneko sisteman ez dauden elkarte eta egitasmo komunitarioek osatzen dute. Hauen gainean eragin ahal izateko, ikusgarritasuna eta finantza baliabideak eskuratzea da identifikatutako behar nagusia; ordainketa sisteman egun duen diseinuarekin, ezarritako arauarekin, bat zein bestea lor daitezkeelarik.

Lurralde ekosistema komunitarioa zabaltzeko, elkartegintza ekimenekin erlazioa eta interkooperazioa bideak aztertzen ari dira, elkarrekin egiten dituzten ekimenetan Ekhilur nola integratu dezaketen aztertzeko (Ekhilur bidez egindako ordainketei deskontua, Ekhilureko bazkideak ekimen konkretuan dohain parte hartzeko aukera, dohaintzak Ekhilur bidez bideratu, ...). Herrian 5.000 bat ekimen egonda, Ekhilur berak ekimen propioak egiteari ez zaio zentzu handirik ikusten eta ordainketa sistemak duen malgutasuna baliatuz ekimen desberdinekin interkooperatu eta ekimen ezberdinetan integratzea jotzen dute egokiagotzat.

Azkenik, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen ehunari dagokionez estrategia amankomun bat izatearen beharra identifikatzen da. ESE ekimen bakoitzak bere aldetik bere estrategia propioa garatu eta exekutatzen du baina ez dago amankomuneko

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

estrategia bat zeinarekin ESEa bere osotasunean zer den eta zeintzuk barnebiltzen diren argi gizarteratu. Zentzu horretan, Ekhillurek badu horretan eragiteko xedea, Hernani mailan ESEko esperientziak modu zuzenean sisteman integratu litezke eta beraiei kabuz ailegatuko ez liratekeen ehun sozial eta ekonomikoarekin harremanetan jarri eta komunitatean integratu. Horretarako, ordainketa sistema bera ESE ehunean komunikatzeko eta zabaltzeko esfortzu handia egin beharko litzateke.

Zentzu honetan, Hernani Burujabe barruan dauden ekimenekin erlazioa eta interkooperazioa bideak aztertzen ari dira. Ekimen hauetariko asko hasierako faseetan daude eta nahiko lan badute bere ekimena aurrera ateratzen eta egonkortasun minimo lortzen. Adibidez, herriko erdigunean lokala partetzako aukera baloratu zen beste bi kooperatibekin (Enerkom eta Maitelan) ekimen konkretuen eta Hernani Burujaberen ikusgarritasuna eta eskuragarritasuna handitzeko aukera moduan, baina egonkortasun ekonomiko nahiko ez izatearen beldurrez atzera egin zuen interkooperazio saiakerak.

1.4. Analisi juridikoa

Hasiera batean, Koop57 duen izaera erreplikatu nahi zen, zerbitzu finantzarioko kooperatiba, baina Euskadin ez zegoen figura hori eta objektu soziala zerbitzu finantzarioekin erlazionatuta egonik kreditu kooperatibak kontsideratuak izateko arriskua zegoan. Horrek ekarriko luke kooperatiba formalizatu ahal izateko izugarritzko baliabide eta kapital beharrak aktibitatearekin hasi ahal izateko. Horren ondorioz, barne merkatu arautu batean arituko den kontsumo kooperatiba bezala definitzea erabaki zen.

Kontsumo kooperatiba izaera juridiko erabakita, bere garapenerako Goiener Koop.S. erreferentzia izan da. Ekimen hori zen gertuen ezagutzen zena eta Ekhillurentzako eredu egokia dela uste delako, eta etorkizunari begira ideia da Goieneren pausoak jarraitzea, hau da, barne egitura zehazteko egiten ari den prozesua jarraitzea (barne erreglamendua). Ez dago baliabide nahikorik lan horietan inbertitzeko eta Goiener eredua erreferentzia baliatuz Ekhillurera egokituta erreplikatzeko da ideia.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Izaera juridikoaren identifikatzen den arazorik nagusia kooperatiba erregistrarako tramiteak dira. Noski izaera juridikoek bete behar dituztela baldintza juridiko/legalak baina era berean kooperatiba txikia izanik, kapital sozial oso txikia eta diru mugimendu handirik egiten ez duen kooperatiba izanik, baliabide asko dituen kooperatiba handiei, zentzu guztietan, exijitzen zaizkion baldintza berak ez eskatzeak erraztuko luke eratze prozesua. Oso zurruna da eta, nahiz eta ekimenarentzako kooperatiba izan eredurik egokiena, zaila egiten da baliabide/esfortzu gehiegi bideratu behar direlako. Erregistro prozesua ez dago kooperatiba egitura ezberdinetara egokituta.

- Aplikagarri den legea: Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea, ekainak 24koa)

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa

Ordainketa sistema alternatiboa, txanpon lokala. Barne merkatu soziala.

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Hasiera batean, Koop57 duen izaera erreplikatu nahi zen, zerbitzu finantzarioko kooperatiba, baina Euskadin ez zegoen figura hori eta objektu soziala zerbitzu finantzarioekin erlazionatuta egonik kreditu kooperatibak kontsideratuak izateko arriskua zegoan. Horrek ekarriko luke kooperatiba formalizatu ahal izateko izugarrizko baliabide eta kapital beharrak aktibitatearekin hasi ahal izateko. Horren ondorioz, barne merkatu arautu batean arituko den kontsumo kooperatiba bezala definitzea erabaki zen. Kontsumo kooperatiba, Goiener Koop. erreferentzia hartuta.

Kontsumo kooperatiba izaera juridiko erabakita, bere garapenerako Goiener Koop.S. erreferentzia izan da. Ekimen hori zen gertuen ezagutzen zena eta Ekhilurentzako eredu egokia dela uste delako, eta etorkizunari begira ideia da Goieneren pausoak jarraitzea, hau da, barne egitura zehazteko egiten ari den prozesua jarraitzea (barne erreglamendua). Ez dago baliabide nahikorik lan horietan inbertitzeko eta Goiener eredua erreferentzia baliatuz Ekhilurera egokituta erreplikatzeko da ideia.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

3. Kooperatiba mota

Irabazi asmorik gabeko kontsumo kooperatiba.

4. Lurralde esparrua

Euskadiko Autonomia Erkidegoa

5. Bazkide motak

- Lan-bazkideak. Une honetan 2 dira
- Bazkide erabiltzaileak: kooperatibaren ondasun eta zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Herritarrak eta merkatariak.
- Bazkide laguntzaileak. Une honetan, Hernaniko Udala eta Goiener Kooperatiba dira.

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

- Batzar Nagusia
- Artezkaritza Kontseilua. 7 bazkidek osatuko dute.
- Zaintza Kontseilua. 3 bazkidek osatuko dute. Posible da 3etatik 1 bazkide ez izatea

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

- Bazkide bakoitzak, pertsona fisikoa ala juridikoa, boto bat.
- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desegitea erabakitzeko
- 2/3eko gehiengoa behar da Artezkaritza Kontseiluko kideak kargugabetzeko

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

7. Erabakimen ekonomikoa
 - 7.1 Gutxieneko kapital soziala: 3.000 euro
 - 7.2 Derrigorrezko ekarpenak
 - Lan-bazkideak: 500 euro
 - Bazkide erabiltzaileak: 50 euro
 - Bazkide hornitzaileak: 50 euro
 - Bazkide laguntzaileak: 1.000 euro
 - 7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa
 - Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %20a
 - Heziketa eta Sustapen Kooperatiboa eta bestelako interes publikoko helburuentzako Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a
 - Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - o Borondatezko Funtsak hornitzeko
 - o Derrigorrezko Funtsak hobetzeko
- 8 Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: araubide orokorra
- 9 Gatazkak konpontzeko, arbitraje koooperatiboko sistema: bai

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

2.1. Elementu gakoaren zehaztapena

Gako Orokorrak (Erreplikarako gutxieneko baldintzak)	
- Udalaren inplikazioa proiektuan. - Tokiko merkataritza elkartearen babesa izate edo, behintzat, proiektuarekiko kontrako jarrera ez izatea. - Ingurua ezagutuko duen tokiko pertsona dinamizatzaile/komertziala, hau da, profil komertziala izango duen bertako edo inguruko pertsona bat. Pertsona horrek harremanak izango dituelako komertzioekin/dendekin eta nolabait ingurune hori ezagutzea eta ingurunean ezagutua izatea (dendetan eroslea delako, herrian eragile bat delako, ...) berebizikoa da. Honekin lotuta, informazio puntua den espazio fisikoa izatea.	

Negozio ereduaren deskribapena	
Kokapenaren analisia	Udalaren babesa.
Idea: produktu-zerbitzua	Merkatariak alde izatea edo, behintzat, kontra ez izatea.
Harremanak-Komunikazioa	Pertsona dinamizatzaile/komertzialaren figura izatea. Informazioa puntua izango den espazio fisikoa izatea.
Egitura ekonomikoa	Udala ekarpen ekonomiko zuzena eta zeharkakoa hobariak ezarriz sistema bidez egindako salerosketetan.
Balantze sozioekologikoa	Bertako produktuak saltzen dituzten merkataria lehiakorragoak (prezio ikuspuntutik) izaten laguntzen da. Kalitatezko produktua, prezio aldetik eskuragarriagoa izango dena, lortzeko aukera. Bertako dendariei ere merkatu zati babestu bat sortzen zaie, ordainketa sistema horretan ez direlako bestelako banatzaile handiak sartuko.

Komunitate izaera: barne komunitatea

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Lan taldea	Lan taldearen barruan ezinbestekoa dinamizatzaile/komertzialaren figura izango duen langile bazkidea.
Bazkide kolaboratzaileak	Hasierako faseetan, behinik behin, bazkide kolaboratzaileen artean tokiko Udala izatea, ekimenari ekarpen operatiboa eginaz: ordainketa sisteman hobariak ezarri eta komunikazio lanak.
Boluntarioak	Zeharka bada ere, bazkide erabiltzaileek, herritarrek zein merkataritzak/dendek, ahoz ahokaren bidez ekimenaren komunikazioan egiten duten ekarpena. Ekimena babestu eta hirugarrenen aurrean konfiantza eta segurtasuna erantsi.

Eraldaketa lurraldean: kanpo komunitatea	
Lurralde ekosistema komunitarioa	Elkartegintza ekimenekin erlazioa eta interkooperazioa.
Tokiko ehun enpresariala	Ez dago oraindik, baina etorkizunean IBAN kontuak lortzerakoan errazagoa izango da horrelako eragileekin erlazioa eta interkooperazioa.
Lurralde ekosistema kooperatiboa	Hernani Burujabe barruan dauden ekimenekin erlazioa eta interkooperazioa.
Lankidetzatza publiko-komunitarioa	Udalak martxan jarritako Hernani Burujabe ekimena eta konkretuki Moneta Mahaia.

2.2. AMIA analisia

Ekimena aurrera eramaten de inguruneari lotua identifikatzen den mehatxu nagusia, Udalean gobernu aldaketa bat gertatzeko arriskua da. Oposizioak udal gobernu hartuz gero, aurreko udal gobernuak egindako ekimenak ezabatzeko, edo ez babesteko, arriskua ekar dezake, eta horien artean, horrelako ekimenean Udalak duen parte hartzea eta rola. Horrelakorik gertatuko balitz Ekhilur ezartzen den udalerriren baten, gobernu aldaketa ematen denerako Ekhilurek herrian nahiko trakzio, garapen eta inpaktu izatea klabea litzateke, horrela, edozein dela udal gobernuan ardura hartzen duen alderi politikoa Ekhilur tresna interesgarria izango litzatekeelako. Era berean, inguruneak eskaintzen duen aukera ere arlo politikoarekin lotzen da. Hau da, alderdi politiko gehienak tokiko merkataritzarekin eta ehun ekonomikoarekin oso arduratuta

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

daude, eta Ekhilur tokiko merkataritza eta ehun ekonomiko sustatzeko eta dinamizatzeko tresna oso baliagarria da.

Ekimenean bertan indarguneak eta ahulezia identifikatu daitezke. Kasu honetan, indargune nagusienak lehen aipatutako mehatxu eta aukerari erantzuten diete zuzenez. Bata, Ekhilur bertako merkataritza sustatzeko ekimen berritzailea da, ordainketa sistema propioa diseinatzeko aukera ematen duena helburu ekonomikoak zein sozialak lortzen lagunduz. Eta bestea, masa kritiko nahiko handia lortuz gero, ehun sozial eta ekonomikoan trakzioa handi duen ekimena izatea.

Kontrako aldean, ahulezi nabarmenena barne egitura eskasa izatea da. Langileaz haratago, pertsona gutxi dira ekimenean aktiboki lanean dihardutenak, inplikaturak, eta Ekhilur hazten baldin badoa gainezka egin dezake egungo barne egiturak. Langile bazkideak batu daitezke baina, hala eta guztiz ere, beharrezkoa da lan talde aktiboa ere handitzen joatea Ekhiluren ardura eta kontrola ez dadin zentralizatua egon soilik langile bazkideen baitan.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

BAKAIKUARROK

1. Esperientziaren deskribapena

1.1. Negozio ereduaren deskribapena

Bakaikuarrok ekimen kooperatiboa herri kooperatibaren kontzeptuarekin bete-betean bat egiten duen bizipena da. Kooperatiban, herritarrek eta udalak bat egin dute. Une honetan, kooperatibaren aktibitatea herriko dendan gauzatu da. Dena den, BAKAIKUARROK S. KOOP. kooperatiba integralaren estatutuetan marrazten diren helburu eta lerro zabalen arabera, kooperatibak beste hainbat ekimen bultzatu ditzake etorkizunean: energia komunitatea, zaintza, taberna, etab.

Funtsean Bakaikuarrok herri kooperatibaren ekimena herriko denda da, denda txikia, ultramarinos tankerakoa. Herrian modu horretako denda bakarra zegoen eta, jabeak jubilatzerakoan, denda itxi zuten, herria dendarik gabe geratuz. Herriko denda itxi zenean, hutsunea nabarmen sentitu zen. Gehienbat jende helduak denda behar zuen, herriak denda erreferentzia galtzea kolpe latza izan zen, eskaintzen zituen produktuez gain, denda berak herritarren bilgune funtzioa betetzen zuen, batez ere emakume helduen kasuan. Hutsune nabarmen horri erantzuteko, herri batzarra egin zen, eta bertatik sortu zen Bakaikuarrok kooperatiba, denda berria sorrarazi zuena eta, egun, Bakaikuko denda bakarra da. Hortaz, dendaren ekimena herritarren beharrak asetzeari erantzuten dion herri mailako merkatuan kokatzen da, merkataritza sektore ekonomikoan jarduten duena.

Denda berri bat irekitzeko bi alternatiba zeuden. Lehen aukera, partikularren batek dendaren negozioari ekitea, autonomo gisa. Bigarren aukera, denda berria ekimen kolektibotik sortzea, kooperatibaren bitartez herritarrek bultzatu eta kudeatzea. Lehen aipatu moduan, herri batzarra egin zen egoera aztertzeko, eta bigarren aukera hautatu zen: herri ekimenetik bultzatzea denda. Ekimen politiko horri forma juridikoa emateko, kooperatiba integrala sortzea erabaki zen. Ekimenari jarraipen bat emateko eta aurrera egiteko, sei lagunen talde motorra sortu zen, talde motorra gogotsua baina merkataritzaren arloan bakar batek zuen esperientzia eta eskarmentua.

Dendaren produktu eskaintzari dagokionez, helburua hornitzaile nagusiak inguruko ekoizleak izatea da, modu horretan, tokiko ekonomia garatzen laguntzeko, eraldaketa

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

soziala eta ingurune ekonomikoa aldatzeko egitasmoaren testuinguruan. Baina ez da erraza izan, hasieran, denda abiatu ahal izateko, hornitzaile konbentzional handi batekin kontratua egin zen 6 urteetarako. Urte horietan ari dira inguruko ekoizleekin batera egitasmo eta eredu propioa garatzeko pausoak ematen, baina inguru hurbilean ekoizle gutxi daudenez beste gertuko eskualdetara jotzen ari dira, aintzat hartuta Nafarroa osoa, Arabako Lautada, edota Gipuzkoako Goierria.

Horrexegatik, dendaren eredua ohiko merkatuan ala merkatu sozialean kokatzen den planteatzen badugu, une honetan, bietan aritzen dela da erantzuna. Helburua merkatu sozialeko eredua da, hori da ortzi-muga eta etengabe norabide horretan aurrera egiten saiatzen ari dira.

Dendaren ekimen ekonomikoak duen balio erantsia bikoitza da. Bata, jarduera ekonomikoarekin berarekin lotua dagoena, hau da, herriari merkataritza zerbitzua eskaintzea. Zerbitzuaren hartzaileak Bakaikuko herritar guztiak baldin badira ere, bereziki pertsona zaurgarriak, jende heldua, kotxerik ez dutenak, edota mugitzeko arazoak dituzten herritarrentzako berebiziko zerbitzua eskaintzen du. Eta bestea, ekimenak betetzen duen funtzio sozialarekin lotzen dena. Dendak ere herritarrak elkartzeko duten behar sozialari erantzuten dio, herritarren elkargune bat da, batez ere emakume zein jende helduarentzat. Beraz, ekimenak herriari bizia ematen dio eta herri izaera indartzen laguntzen du. Esaterako, dendan salgai dauden produktu konbentzionaletaz gain, herriko jaiak eta ekimenak bideratzeko balio du kamisetak salduz, etab.

Kooperatibaren dendaren bezeroak herritar guztiak izan daitezke, kooperatibaren kontsumo bazkideak herritarrak dira noski baina kooperatibaren dendaren zerbitzua ez dago bazkideei mugatua soilik. Hau da, kooperatibaren bazkide izan edo ez dendan erosi daiteke eta prezioa berbera da erosle guztientzat.

Ekoizpenaren antolaketari dagokionez, talde motorra osatzen duten pertsonak egiten dute kudeaketa orokorra, eta harreman zuzena dute gestoriarekin, hornitzaile batekin, eta zeharkako bestelako hornitzaileekin. Aldiz, dendaren egunerokoaz eta hornitzaile

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

nagusiekin harreman zuzenaz arduratzen dira kooperatibak dituen bi langile-bazkideek. Oro har, bi langile horiek egunerokoaz arduratzen dira, dendaren ohiko kudeaketa eta salmentaz alegia.

Kooperatibak denda zerbitzua eskaini ahal izateko beharrezkoa baliabideak nagusiki hiru dira. Bata, zerbitzua eskaintzeko berebizikoa den lokal fisikoa. Kasu honetan, kooperatibaren bazkide laguntzailea den Udalaren lokal baten doako lagapena lortu du aktibitatea aurrera eramateko.

Beste bat, aktibitatearen kudeaketarako beharrezkoa den sistema informatikoa. Gaur egun, hornitzaile baten bidez lortu da sistema informatikoa baina hornitzailearekiko menpekotasun handia suposatzen duenez eta izandako esperientzia dela eta (arazoak egon dira adibidez prezioen eguneraketarekin), etorkizunean sistema propioa garatzeko helburua dute. Elementu giltzarria da, baina denbora falta orain arte sistema propioa garatzeko.

Baliabide materialekin jarraituz azkena, produktu guztiak era egokian eskaintzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren bestelako ibilgetu materialak: izozkailua eta aire-girogailua. Zentzu honetan, arazo larria egon da izozkailuarekin bero gehiegi sortzen baitzuen eta udan bero gehiegi egiten zuen lokalean. Bero horrek bestelako produktuen gutxieneko mantentze baldintzak arriskuan jartzen zituenenez, aire-girogailuaren bidez lokaren tenperatura kontrolatua izanda da. Honek, aldi berean, energia kontsumo asko ahaztea ekarri du.

Herri kooperatiba bat izanik, kooperatiba herriarena denaren, denona denaren, ideia gizarteratu nahi da. Etengabeko asmoa da kooperatibaren baloreak sozializatzea eta bide horretan eraldaketa soziala sozializatzea. Batetik, eskaintzen den zerbitzuan bertako janaria eta produktuak lehenetsiz, denda komertzial arruntaz aldenduz. Eta bestetik, kooperatiba sendotzera eta indartzera, lan ideologikoan eta proselitismoan alegia, esfortzuak handituz. Zentzu honetan, talde motorrean ardura banaketa burutzen ari dira lan ildo honetan ere pertsona batzuek ardura hartzeko aukera izan dezaten eta, besteak beste, bazkide gehiago lortzeko kanpaina bat ere burutu dadin.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Komunikazio baliabideei dagokionez, erabiltzen diren kanalak Whatsapp, Telegram, telefono deiak eta, ahal denean, zuzeneko harremanak dira. Bazkideei eta herritarrei zuzendutako beste komunikazio kanala inkesta izango da. Inkestak egiteko asmoa dute, herritarrei galdetzeko ea denda nola hobetu daitekeen, eta zer proiektu berri ekin beharko liokeen herri kooperatibak.

Bestalde, Bakaikuarrok dendaren ekimena aurrera doanez, eredu berritzailearekin hori posible dela ikusi da, besteentzat erreferentzia bihurtu da eta, ondorioz, Bakaikuarrok esperientzia konpartitzeko hitzaldiak ematen ari dira hainbat lekutan: Ameskoak, San Martin de Unx, Deierri, Aginaga, edota Iruñako Ikastetxe batean.

Egitura ekonomikoari dagokionez, zenbakiak hobetzen ari dira etengabe, okerrera hasiera izan zen. Aurrera begira, lehentasunak dira ekarpen boluntarioak bueltatu, langileen baldintzak hobetzea, eta egitasmo berriei ekitea.

Balantze sozio-ekologikoaren barruan, nabarmendu behar da ekimenak herriko kohesio sozialari egiten dion ekarpena. Izan ere, dendaren asmo eta ondorio bada herriko pertsona zaurgarrien zaintza, herri izaera indartzea, jende zaurgarriari zerbitzua ematea, herrian harremanak egotea, eta isolamendua ekiditea.

Hornitzaileen kasuan, asmoa da gizarte eraldaketaren bueltan aritzen diren ekimenak jardueran integratzea, hala nola, Goiener, Izarkom, edota gertuko ekoizle ekologikoak, saiatzen dira inguruko ekoizleekin lan egiten baina ez da erraza, batez ere hasieran. Kasu askotan, ekimen horiek ESEko ekimenka dira zeinak irizpide ekologikoak oso presente dituzten.

Lurraldeko oreka ekologikoari egiten zaion ekarpenari dagokionez, tokian-tokikoaren arteko elkartrukeak gauzatzea posible egiten duen ekimena izanik, hurbiltasun-ekonomia sortzen laguntzen du eta desplazamenduen murrizketa supostu dezaketen tokiko salerosketak posible egiten ditu. Bestetik, Sakanako atez ate sistema barruan

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

kokatzen da dendaren jarduna, eta zentzu honetan, saiatzen dira enbasatutako produktu asko ez izaten baina zaila egiten da produktua motaren arabera (haragia Urdiaingo harategi batean erosten dute eta bertatik enbasatua ekartzen da) eta kontsumo ohiturak direla eta. Eta azkenik, etorkizunean plaka fotovoltaikoen bitartez, energia berriztagarriekin, energia sortu nahi dute.

1.2. Barne komunitatea

Bakaikuarrok kooperatiba integral moduan erregistratua dago eta lau bazkide mota jasotzen ditu bere baitan: lan-bazkideak, bazkide erabiltzaileak, zerbitzu bazkideak eta bazkide laguntzailea (udala). Komunitate izaera Bakaikuarrok ekimenaren ernamuinean dago, dendaren ekimena herri batzarretik sortu baitzen eta herritarrak dendaren erabiltzaileak baitira. Zentzu honetan, egitasmoaren gakoa izan da herria ahalduntzea, "ez zer egingo digute, baizik eta zer egingo dugu".

Bi lan-bazkide daude, dendan lan egiten dutenak, biak %65eko lanaldiarekin. Funtzio berdinak betetzen dituzte biek eta astero txanda aldatzen dute, goiza eta arratsaldea trukatu. Dendaren kudeaketaz arduratzeaz gain, txanda bakoitzari dagozkion ardura espezifikoak betetzen dituzte (adibidez, goizez lan egiten duenari hornitzaileekin harremanetan jartzea dagokio), nahiz eta administrazio lanei dagokienez, batek besteak baino harreman gehiago duen gestoriarekin. Dendari dagozkion erabaki operatiboak langile hauen artean adosten dituzte (produktuen erosketa eta dendaren kudeaketa orokorra etab.), haien arteko harreman zuzenaren bitartez.

Langile hauekiko zaintza mekanismo konkreturik garatu ez den arren, erabateko malgutasuna daukate ordutegiaren aldetik. Eta beraz, langileren batek beharren bat izatekotan bata besteak beste estaltzen du. Modu honetan, denda beti irekita mantentzen da konpromiso maila altua delako. Horrez gain, orain arte dena adostasunez bideratu dute eta ez da sortu gatazkarik.

Bazkide erabiltzaileak herritarrak dira. 60 euroko kapital ekarpen bakarra egin dute orain arte eta bazkideren batek ezin izan baditu dagozkion 60 euroak ordaindu, malguak izan

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

dira ahalik eta pertsona gehiagorengana heltzeko (batzuk 10 euro ordaintzen ari dira bi hilabetero, 60 euro tara heldu arte). Kooperatibaren erabaki nagusiak kooperatibaren Batzar Orokorrean hartzen dira. Hala ere, egunerokoan, kooperatibaren kudeaketa orokorra talde motorrak aurrera eramaten du. Dendaren irekierarekin batera 6 bazkide erabiltzaileez osatuta dagoen taldea da hau eta, praktikan, langileen nagusiaren rola jokatzen du.

Hala ere, une honetan talde motorraren lana banatzea planteatzen ari dira. Dendaren kudeaketa orokorraz gain, saiatuko dira talde motorreko kide batzuk kooperatiba sendotu eta indartzera dedikatzea, lan ideologiko eta proselitismoaren bitartez. Hots, alde batetik, kooperatibaren eta eraldaketaren baloreak sozializatzea eta, bestetik, ulertaraztea herri kooperatiba, denena dela, herriarena dela. Zentzu honetan bazkide gehiago lortzeko kanpaina berria aurreikusten dute.

Bestalde, udala bazkide laguntzailea da. Bere ekarpen nagusia, lokal municipal baten doako erabilpen uztea bideratzea izan da denda bertan jartzeko, kooperatibaren mesedetan. Eta azkenik, zerbitzu bazkideak, herriko elkarteak (jubilatuen elkarte eta elkarte gastronomikoa), taberna, botika edota barnetegia dira. Ekoizleak ere hemen sartuko lirake estatutuen arabera. Kasu honetan, erronka, bazkide hauen erosketa guztiak dendan egitera igarotzea litzateke. Barnetegiaren kasuan dagoeneko lortu da konpromiso maila hori udan barnetegira doan jende pila aprobetxatzeko.

1.3. Kanpo komunitatea eta lurraldea

Bazkidetza prozesua oso azkar egin zenez, oraindik badago herritarren geruza bat kooperatibatik kanpo. Hauek bazkide egin bitartean, bezero moduan parte-hartu dezakete. Hala ere, hauetaz gain, gutxi dira lurraldeko beste eragileekin garatutako harremanak. Dendaren ekimena ez da eskala handikoa, bere asmoa gehienbat inguruko ekoizleei erostera mugatzen baita. Gainera, dendaren ekimena ez dago harremanetan tokiko ehun enpresarial klasikoarekin eta une honetan ez dago interkooperaziorik inguruko beste ekimen kooperatiboekin. Zentzu honetan, interkooperaziorako esparru naturala Olatukoop da. Herri kooperatiba gisa saretuta daude eta sarearen apustua da herri kooperatiben ereduan sakontzea.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailletza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Bestalde, asmoa badagoen arren, testuinguruak ez du asko laguntzen lurralde eraldaketarako. Sakanan ez dago eraldaketa sozioekonomikoaren aldeko ekosistema komunitariorik. Horregatik, garapen agentzietatik egitasmo komunitarioen bat bultzatzen dutenean saiatzen dira bertan parte-hartzen.

Lankidetzeta publiko-komunitarioaren ikuspegitik aldiz, badago elkarlana. Gorago aipatu den bezala, udalaren ekarpena izan da denda dagoen lokalaren doako erabilpen uztea kooperatibaren eskuetan. Eta kooperatibak dendaren zerbitzu publikoa eskaintzen du, herri osoarentzat, denda herritar guztientzat berdina baita; denentzat prezio eta zerbitzu bera.

Horrez gain, dendaren ekimenak, produktuen salmentaz gain, beste behar sozial bati erantzuten dio. Denda ixtea dramatikoa izan zen, herria hilda zirudien eta ez zen jenderik kalean ikusten; tabernara edo elkartera joaten ez zirenak, herrian sozializatzeko espazio baten umezurtz zeuden. Orain, denda elkargunea da. Denda irekitzea poz itzela suposatu du jende heldu zein umeentzat. Horregatik, dendak herri izaera indartu du, jende zaurgarriari zerbitzua eman dio eta herrian harremanak indartu ditu, isolamendua ekidinez. Gainera, dendak herriko jaiak eta beste ekimenak bideratzeko balio izan du.

Aurrekoaz gain, lurraldearen eraldaketari egiten zaion ekarpen nagusia, sortu duen etorkizuneko perspektiba da. Herri kooperatiba tresna bat da herritarren eskura dagoena eta beharrak asetzea helburu duten proiektuak herrian garatzea bideragarria izan daitekeela erakusten duena. Honek badu bere jatorria duela 8 urte. Herrian auzolana indartzeko plan estrategikoa abiatu baitzen. Ibilbide horrek lagundu du testuinguru egokia sorrarazten herri kooperatiba abiarazteko. Eta jendeak hasieran herri kooperatibaren eredua ongi ulertzen ez bazuen ere, bidean aurrera egin ahala, ulertuz joan da.

1.4. Analisi juridikoa

Bakaikuarrok kooperatiba integral gisa egituratu zen, herriari zerbitzu publikoa emateko bokazioarekin. Formula juridiko zabala bilatu zen, herriaren behar anitzak asetzeko baliagarria izango zena.

Dena den, ideia orokor horretatik haratago, behin dendaren ekimena abiarazteko erabakia hartuta, Bakaikuarrok Herri Kooperatiba juridikoki azkar eta irizpide finkorik gabe egituratu zen, Estatutu eta erreferentzia argirik gabe, hala nola egin zuten. Estatutuak hobetu nahiko lituzkete, oso azkar prestatu zituztelako.

Konsziente dira ez dituztela estatutuak betetzen, desberdinduz bazkide motaren arabera, eta asmoa dute aurrerantzean estatutuen arabera funtzionatzeko.

Erabakigune nagusia Batzar Orokorra da, behin bildu da orain arte. Egunerokoa talde motorrak erabakitzen du, langile bazkideen nagusiaren rola jokatzen du. Ekimena bultzatzen duena beti talde motorra da, 6 kidez osatuta, bazkide kontsumitzaileak guztiak. Dena den, erabakiekin eta funtzionamenduarekin, momentuz ez da gatazkarik sortu.

- Aplikagarri den legea: Nafarroako Kooperatiben Legea (14/2006 Lege Forala, abenduak 11koa)

1. Kooperatibizatutako jarduera ekonomikoa

Herriko denda bakarra

2. Zergatik hautatu den kooperatibaren aukera juridikoa

Herrian zegoen denda bakarra itxi zenean, dendaria jubilatu zelako, herri batzarra egin zen egoera aztertzeko. Bi aukera planteatu ziren: lehena, itxarotea eta autonomoren batek irekitzen zuen denda berria; bigarrena, herri ekimenez denda berria irekitzea. Bigarrena hautatu zen eta, herri ekimena juridikoki bideratzeko, figura egokiena kooperatiba zirudien.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Kooperatibaren helburua herriari zerbitzu publikoak ematea da. Formula zabala nahi genuen, herriaren beharrak asetzeko, ikuspegi kooperatibotik. Horregatik kooperatiba integrala.

3. Kooperatiba mota

Gizarte ekimeneko eta irabazi asmorik gabeko kooperatiba integrala.

4. Lurralde esparrua

Nafarroako Foru Erkidegoa, baina jarduera kooperatiboak eragin dezake langileak Erkidegotik kanpo joatea, eta kooperatibaren harremanak hirugarrenekin eta bitarteko jarduerak baita ere Erkidegotik kanpo gerta daitezke.

5. Bazkide motak

- Lan-bazkideak. Une honetan 2 dira, dendari lana egiten dutenak

Soldatapekoak (une honetan ez dago soldatapekorik). Soldatapekoak langile-bazkide bihurtzeko, probaldia gainditu behar dute, 6 hilabetekoa.

- Bazkide erabiltzaileak: pertsona fisikoak edo juridikoak. Nahi izan duten herritar guztiak izan daitezke bazkide-erabiltzaile
- Zerbitzu bazkideak: kooperatibaren jarduerari zerbitzuak eman edo kooperatibarengandik zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona juridiko eta langile autonomoak.
- Bazkide laguntzaileak: une honetan, Bakaikuko Udala.

6. Erabakimen politikoa

6.1 Organo sozialak

- Batzar Nagusia
- Artezkaritza Kontseilua. Gutxienez 3 kidek osatuko dute, edozein motako bazkideak izan daitezke. Nahikoak baldin badaude, bazkide mota bakoitzak kide bat edukiko du gutxienez. Hautaketa Batzar Nagusian egingo da, 2/3en gehiengoa behar da.
- Kontuhartzailatza. Edozein bazkide izan daiteke kontuhartzaile. Hautaketa Batzar Nagusian egingo da, gehiengo sinplea behar da.

6.2 Batzar Nagusian erabakiak hartzeko sistema

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

- Bazkide bakoitzak, boto bat.
- Batzar Nagusiak, 2/3en gehiengoarekin, erabaki dezake bazkide mota desberdinek boto portzentai desberdinak edukitzea
- Lan-bazkideen botoek, eta bazkide laguntzaileen botoek, ez batak eta ez besteak, ezin dira heldu Batzar Nagusiko boto guztien 1/5era.
- Akordioak hartzeko, botoen erdia baino gehiago behar da, boto zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe
- 2/3eko gehiengoa behar da Kooperatiba eraldatzea, fusionatzea, zatitzea edo desegitea erabakitzeko

7. Erabakimen ekonomikoa

7.1 Gutxieneko kapital soziala: 1.500 euro

7.2 Derrigorrezko ekarpenak

- Lan-bazkideak: 60 euro
- Bazkide-erabiltzaileak: 60 euro
- Zerbitzu-bazkideak: 60 euro
- Bazkide-laguntzaileak: 300 euro

7.3 Batzar Nagusiak erabakitako soberakin erabilgarrien banaketa

- Derrigorrezko Erreserba Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %10a
- Heziketa eta Sustapen Funtsa hornitzeko, gutxienez soberakinen %5a
- Soberakin erabilgarriak, derrigorrezko funtsei ekarpenak egin ondoren, erabil daitezke
 - o Borondatezko Funtsak hornitzeko
 - o Derrigorrezko Funtsak hobetzeko
 - o Batzar Nagusiak erabaki dezake soldatapekoek urter ordainsaria jasotzea kooperatibaren emaitza ekonomikoen arabera.

8 Gizarte Segurantzako araubidearen hautua: araubide orokorra

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisisa*

- 9 Gatazkak konpontzeko, arbitraje koooperatiboko sistema: ez

2. Esperientziaren erreplikarako gakoak

2.1. Elementu gakoak zehaztapena

Gako Orokorrak (Erreplikarako gutxieneko baldintzak)	
- Ekimena abiarazteko gako nagusia beharra da, dendaren beharra, jendea aktibatzeke - Talde motor polita sortu zen, inplikatur, eta herria prest lagundu eta bultzatzeko - Kanpoko laguntza: Udalaren, Olatukoopen, garapen agentziaren laguntza	
Negozio ereduaren deskribapena	
Kokapenaren analisia	Negozio ereduaren funtsa herria dendarik gabe gelditzean sortzen den hutsunea betetzean datza. Komertzioaren sektorean, beraz. Herriko denda itxi zenean, denda berria irekitzeko bi alternatiba zeuden: ekintzaile autonomoa ala kooperatibaren bitartez herritarrek bultzatu eta kudeatzea. Herri Batzarrean bigarren aukeraren aldeko hautua egin zen.
Idea: produktu-zerbitzua	Dendaren zerbitzua, herriaren behar duen zerbitzu hori ematea. Batez ere jende zaurgarriari, kotxerik ez dutenei, etab.
Harremanak-Komunikazioa	Topagune nagusia Herri Batzarra da. Hortik aurrera, harremanetarako whatsapp, telegram, eta zuzeneko harremana erabiltzen dira. Inkestak egingo dituzte, planteatzeko denda nola hobetu, zer proiektu berri egin ditzakeen herri kooperatibak Talde motorrekoek kudeaketa orokorra, harremana gestoriarekin Bi langileek egunerokoa, hornitzaileekin harremana eta dendaren kudeaketa.
Egitura ekonomikoa	Udalak lokal municipalaren doako erabilpen uztea egin zuen kooperatibaren eskutik. Bazkide bakoitzak 60 euroko ekarpena, bai langile-bazkideek eta bai bazkide erabiltzaileek. Horretaz gain, ekarpen boluntarioak. Aholkulari juridikoekin aztertzen ari dira nola egin ditzakeen ekarpen ekonomikoak udalak. Diru sarrerak dendaren salmentek osatzen dute. Errentagarria da. Pixkanaka ekarpen boluntarioak bueltatzen ari dira, eta salmentekin nahikoa da bi langile-bazkideen soldata finantzatzeko.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Balantze sozioekologikoa	Herriko pertsona zaurgarriak zaintzea Hornitzaileak eraldaketaren aldekoak, Goiener, Izarkom, eta inguruko elikagai ekoizleak. Asmoa da inguruko ekoizleei erosi, eta tokiko ekonomia ekologikoa sustatzea. Inguruan ekoizle gutxi dauden arren, pixkanaka, gero eta gehiago erosten zaie inguruko ekoizleei, eta gero eta gutxiago hornitzaile konbentzionalei Sakanako atez ate sisteman daude Saiatzen dira ez erabiltzen enbasatuak, haragia Urdiaingo harategi batean erosten dute, enbasatua ekartzen dute. Jendeak hori nahi du, ohitu da. Energia sortu nahi dute plaka bitartez, etorkizunean
--------------------------	--

Komunitate izaera: barne komunitatea	
Lan taldea	Bi langile-bazkidek dendaren eguneroko kudeaketa daramate. %65eko lanaldia dute
Bazkide kolaboratzaileak	Udala. Denda jartzeko, lokal munizipalaren doako erabilpen uztea egin duena. Zerbitzuko kooperatibistak daude ere, elkarteak, taberna, botika, barnetegia
Soldatapeko lana	Ez dago

Eraldaketa lurraldean: kanpo komunitatea	
Lurralde ekosistema komunitarioa	Eragile gutxi daude Sakanan eraldaketaren alde, garapen agentzia bai ari da saiatzen horretan, Olatukoopekin elkarlanean. Ez dago interkooperazio handirik ingurunearekin, Olatukoopekin bai. Sakanako energia komunitarioaren ekimenean saiatzen gara parte hartzen
Tokiko ehun enpresariala	Apenas hartzen dute parte hartzen ehun enpresarial klasikoan
Lurralde ekosistema kooperatiboa	Ez dago interkooperaziorik Herri kooperatiben eredu hedatzen saiatzen ari dira Olatukoopen barruan, herri kooperatiben sarean sartuko dira

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Lankidetzeta publiko-komunitarioa	Udala eta herriko komunitatea elkarlanean Zerbitzu publikoa: Denda denentzat da berdina, prezio eta zerbitzu bera
-----------------------------------	--

2.2. AMIA analisia

2.2 AMIA

Herri kooperatiben eredua aukera bat da bere horretan, behar kolektibo bat asetu nahi duen edozein komunitatearentzako egitasmo bat aurrera eramateko aukera eskaintzen baitu. Hortaz, herri kooperatiba modu honetan ulertuta, aukera gehiago sortzeko baliagarria izan daiteke. Komunitateak jabetu eta kanpoko beste inoren zain egon gabe, behar berriak sorrarazten direnean herri kooperatiba aukera gisa agertuko baita imajinario kolektiboan.

Bakaikuarron herri kooperatibaren kasu konkretuan, tokiko ekonomia bultzatzeko eta bertoko ekoizleekin elkarlana indartzeko aukera eman duen denda sortu da. Aldi berean, denda hori herri txiki baten sozializaziorako erreferentziazko espazioa bihurtu da, batez ere herriko pertsona zaurgarrientzat (jende heldua, kotxerik ez dutenak, edota mugitzeko arazoak dituztenak). Gainera, denda herritarren beharretara malgutasunez egokitzea ahalbidetzen du kooperatibak. Izan ere, denda autonomo batek kudeatzen zuenean, bere behar propioei erantzuten zien eta ez herritarren beharrei. Orain herritarrek eurek kudeatzen dutenez, haien beharrak eta ez beste inorenak asetzeko egituratzen da denda.

Hala ere, erabiltzaileen boteretze honek talka egiten du oraindik ere hornitzaile eta erostetxe handien merkatu boterearekin; eta beraz, talka honetan ahul agertzen da horrelako denda txiki bat. Alde batetik, ekoizle eta hornitzaile gutxi daude inguruan eta beraz, hornitzaile handiengana jo behar izan dute. Gainera, hornitzaile handi hauek izan dira dendako sistema informatikoa jarri dutenak; hauekiko menpekotasuna areagotuz. Dena den, pixkanaka horniduren sare propio bat sortuz eta indartuz joan dira (hasieran %80a kanpo hornitzaile handi bati erosten zioten bitartean, orain %45a erosten diote bakarrik). Sare hau handitzen eta indartzen joan ahala, kooperatiba bera ere indartzen da.

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

Bestalde, dendak ezin du lehiatu erostetxe handien produktu eta prezioekin. Mehatxu honen aurrean, herriak beste indargune bat suposatu du. Herri osoaren babesa jaso du egitasmoak eta dendan erosteko kontzientzia zabaldu da. Herriko beste eragile komunitarioek dendan erosteko autua egin dute eta horrek sinergiak sortu ditu herri mailan. Beraz, gizarte mailan orokortzen den ikuspegi indibidualista eta ez komunitarioaren aurrean, komunitate izaera eta bertatik erator daitezkeen praktika konketuak (auzolana) zaintzea gakoa izan da.

Bukatzeko, barne mailan, lan bazkideen konpromisoa erabatekoa bada ere, lan boluntarioa beharrezkoa jarraitzen du izaten kooperatibaren kudeaketa orokorra aurrera eramateko. Lan boluntario hori talde motorrak aurrera eramaten du, baina hortik aurrera ez dago inplikazio handirik beste erabiltzaileen partetik eta beraz, besteren artean, erreleboarekin kezkatuta daude. Izan ere, lan boluntarioak inplikazio maila altua eskatzen du denbora aldetik eta ezagupenen aldetik.

ONDORIO OROKORRAK

Jarraian garatzen den itxiera atalean hona artekoan dokumentaturiko esperientzien sintesi ariketa bikoitza burutuko da. Lehenik, azterturiko esperientzia komunitarioek partekatzen dituzten ezaugarri gakoak aletuko dira, hiru ikuspegitik: negozio ereduaren analisia, izaera komunitarioa eta lurraldean txertatze maila aztertuz, hain zuzen ere. Bigarrenik, esperientzi horien erreplikarako gakoak aztertuko dira, honetarako esperientzien deskribapen eta AMIA analisietatik eratorritako gakoak sintetizatuko direlarik, hiru kategoria nagusitan: izaera komunitarioaren geruzak, baldintzapen ekonomikoak eta lurralde txertatze estrategiak.

1. Aztertuturiko esperientzien ezaugarritze gakoak

Jarraian aurkezten den taulan laburbiltzen dira identifikaturiko ezaugarri gako nagusiak:

Sintesi taula (I): esperientzien ezaugarritze gakoak

NEGOZIO EREDUA	
Kokapenaren analisia	Beharrian motak • Lanaren burujabetza • Lurralde burujabetzak Sektore motak • Informaltasun edo merkatu ahulak • Merkatu oligopolistikoak • Lanesku prekarizatua
Ideia-produktua-zerbitzua	Balio erantsia • Erantzunen kolektibizazio gradua • Eragile anitzeko gobernantza ereduak Antolamendurako giltzarriak • Espazio fisikoen kudeaketa • Proiektugintza
Harremanak-komunikazioa	Komunikaziorako kanalak • Fisikoak: ahoz ahoko saretzea herri batzarrak • Teknologikoak Komunikaziorako ideia • Proiektuen konplexutasuna jendarteratzeko zailtasuna
Egitura ekonomikoa	Sarrera oztopoak • Hastapeneko inbertsio handiak • Abiatzeko gutxieneko oinarri soziala • Kudeaketarako plataforma teknologikoak Bideragarritasun ekonomikoaren gakoak • Askitasun ekonomikoa: merkatu orientazioa • Prezio politika • Ordaindu gabeko lan komunitarioa
BARNE KOMUNITATEA	Barne irekitasun mailak • Herritar orori irekiak • Ekoizle kontsumitzaile zubigileak Formalizazio ereduak • Lan elkartuko kooperatibak • Kontsumitzaile kooperatibak • Kooperatiba integralak-Herri kooperatibak
LURRALDE TXERTATZEA	Ehun komunitarioa: elkartegintza-Herri mugimenduak Ehun ekonomikoa: • Ekonomia sozial eraldatzaileko sareak • Lurraldeko ehun enpresariala Lankidetzatza publiko-komunitarioa

Iturria: geuk egina

1.1. Negozio ereduaren ezaugarri gakoak

Azterturiko esperientzien gehiengoek bi gizarte beharrizan nagusiri erantzun nahian sortuak izan dira: lan baldintzak duintzea egitasmo bizigarrien bidez, alde batetik, eta lurraldearen beharrizan sozial ezberdinei alternatiba herritarrek eskaintzea, bestetik.

Zenbait kasutan lanaren burujabetza gailentzen da sortze misioan, Eramankoopen kasua da horren adierazgarri, plataforma kapitalismoko ereduak eragindako lan baldintzen prekarizazioari aurre egiteko sortzen baita, lehen lehenik, lan elkartuko kooperatiba. Beste zenbait kasutan bi beharren uztarketak azaltzen du hobeki egitasmoa: langile kolektibo prekarizatuen (nekazariak, zaintzaileak, ...) burujabetza formulak abiatzen dira gizarte beharrizan konkrituak (zaintza eta elikadura eskubideak esaterako) modu komunitarioan estaltzeko. Azken eredu batean, lurraldeak azalduko beharrianei (tokiko merkataritza, euskalgintza) erantzutea litzateke akuilu nagusia, horretarako lanpostu duinak sortuz.

Hautaturiko esperientziek, aldi berean, egungo erronka ekosozial esanguratsuei erantzuteko garaian baliatu beharreko gizarte mekanismoei dagokienean, "estatua/merkatua vs komunitatea" dikotomian kokatzen duten euren ekarpena: merkatuak edo estatuak behar bezala ase ezin dituen sektoreak herritar antolatuen autoeraketa bidez esleitzea litzateke asmoa. Honela, "huts egiten" duten merkatuen tipologia ezberdinak kausi litezke: i) merkaturik sortu ez duten sektoreak, dela informaltasunean garatzen direlako (zaintza lanak) dela merkatu-errentagarritasun nahikorik ez dutelako (euskarazko hedabideak); ii) merkatu oligopolistikoak, enpresa gutxi batzuen etekinak interes orokorraren kaltetan diharduelarik (energia hornitzaileak, elikadura-banaketa kateak), edo; iii) merkatu prekarizatuak, langileen gutxiespen sozialetik eta erregulaziorik gabeko sektore berrien zapalkuntza egoeretatik sortuak (nekazariak, banatzaileak, etab.).

Ez merkatuak ez estatuak ase ezin dituen sektoretan komunitatearen esleipen mekanismoa aktibatzen da hortaz, commoning edo "mankomunatzea" deitu izan

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

dioguna aurrez (Etxezarreta eta Bengoetxea, 2024), geroz eta esparru gehiago jabego komunitario eta gobernantza komunalaren bitartez kudeatuak izatea duena iparrorratz. Komuna, zentzu horretan, jendarte eraldaketarako ipar gisa hartzen da, "komun bilakaturiko" ondasunaren gobernantza komunitarioa, bere horretan, prozesu sozial bat baita, sakonduz gero egungo sistema eraldatzea dakarrena.

Azterturiko esperientzia komunitarioen balio erantsi nagusiak, hortaz, bi ideia nagusi horietan oin hartzen du: ondasunaren mankomunatzea erantzunen kolektibizazioaren bidetik eta eragile anitzeko gobernantza eredu komunitarioen bidez. Barne komunitateen azalpenean garatuko dira xeheago aspektuok.

Emandako zerbitzuak ezberdinak izanda ere hornitzaile eta bezero profilei dagokienean, irudi luke bi ezaugarri gako funtsezko garrantzia hartzen dutela zerbitzuaren antolamendurako: espazio fisikoaren kudeaketak eta proiektugintzara bideraturiko esfortzuek, hain zuzen ere. Lehenak proiektuen errotzeari egiten dio erreferentzia, eta bigarrenak beharrezko merkatu-dibertsifikazioari.

Honela, zenbait ekimenetan erreferentziazko espazio fisikoa izateak berebiziko funtzioa betetzen du egitasmoaren egonkortze eta sozializaziorako. Ereindajanen kasua Bergarako azokan Erikaenea proiektuaren bidez, Bakaikuarrokentzat denda irekitzea eta AEF-ren pabiloi erosketa hiru kasu adierazgarri lirateke, zentzu horretan. Baina berdin Maitelanentzat Iturola edo Ekiherrentzat Torrekua eraikinak ere, ESE egitasmoentzako udal ekipamenduetan egoteak alegia, gastu batzuk aurreztu eta erreferentzialtasuna damaie proiektuei.

Bigarren gakoa proiektuek beharrezko duten dibertsifikazio mailari dagokiona da, eta horretarako "proiektugintza" deituriko funtziotarako liberaturiko pertsonena. AEF-ren garapen azkar eta askotarikoa litzateke horren erakusgarri, proiektuak izan duen eskala jauziaren azalpena. Egoera berean leudeke eskala jauzia ematekotan diren beste zenbait egitasmo ere, lan taldean funtzio espezifikoak hartzen duelarik proiektugintza lan honek, horietako bakoitzean emandako zerbitzu nagusiaz gain. Areago, eskala jauzia

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

eman ezinean diren egitasmoen plangintza estrategikoetan proiektugintzarako pertsona baten liberazioa jotzen da ardatz nagusitzat jauzia egin ahal izateko.

Proiektuen jendarteratzeari begira inor gutxik aitortu izan du estrategia komunikatibo landu edo garatu bat. Kanalei dagokienez, bereziki eraginkorrak dirudite ahoz ahokoan, aurretiazko harreman komunitarioen gain, oinarrituriko hedapen estrategiek, gero Batzar Herritar edo Komunitarioetan formalizatzen amaitzen dutenak, egitasmoak hasi orduko beharrezkoa duen gutxieneko oinarri soziala behar bezala artikulatzeko. Horiez gain, eguneroko kudeaketa eta hedapen jardueretarako ohiko kanal telematikoen erabilera orokortua da (whatsapp, telegram, helbide elektronikoa, web orriak, etab.)

Bigarren elementu batek agertu izan du ia kontsentsuzko presentzia aztertutako kasuetan: proiektua bere orokortasunean azaltzeko zailtasunak, prezeski. Egitasmo horiek "denda bat" baino gehiago, "kantina eta ekonomato bat" baino gehiago, "erosketa hobari sistema bat" edo "zaintza enpresa bat" baino gehiago, direla jendarteratzeko zailtasuna, alegia. Komunikazio eraginkor bat ez lortu izanaren arrazoiak ezberdinak lirateke: alde batetik proiektuen konplexutasun maila legoke, marka berarekin egiten baititu esaterako AEF-k komunikazio agentzia lanak, aldizkaria, kultur sorkuntzarako dinamikak, hezkuntza esparruari begirakoak etab; edo Maitelanez gizarte akonpainamendua eta garbiketak; edo Ereindajanez elikagai denda, katerin zerbitzuak eta azokaren dinamizazioa. Beste alde batetik aipatzen da ere sustatu nahi diren balioak ESEren proposamenarekin lerratzeko egin beharreko lana handia dela, ESEren ezagutza maila mugatua dela medio.

Proiektuen bideragarritasun ekonomikoari dagokionean, gastu orokorrari loturiko gako baldintzatzaileak bi unetan identifikatu dira: egitasmoa abiarazteko unean eta berau egonkortzeari begira.

Abiarazteko garaian, sektore oligopolistiko, informal edo prekarizatueta hasteko dauden sarrera oztopoei (lehia desleiala, kostuz azpiko prezio politika, etab.) gehitu behar zaio hastapeneko gutxieneko inbertsio gaitasun bat behar izatea, termino monetario, sozial zein teknologikoetan. Azpiegitura fisiko handien (pabiloiak, estalpeak)

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

erabilpenean oinarritzen direnentzat diru kopuru esanguratsu bat beharrezkoa da lehen ordainketa burutzeko. Oro har banku mailegu bidezko finantzazio arriskuak beregain hartzeko ageri den kontrakotasunagatik, aurrezki herritarra edo laguntza publikoko mekanismoak aktibatu ahal izateak funtsezko papera jokatu izan du proiektu askoren egingarritasunean. Hastapeneko inbertsio bezala har liteke beharrezko oinarri soziala ehuntzeko hartu beharreko lan denbora ere. Eta azkenik, plataforma teknologikoen aldagaia berebizikoa den egitasmoetan (Eramankoop, Ekhilur), funtsezkoa da plataforma horietarako atzipen erraza, arrazoizko prezioetan, eskaintzen duten aurretiazko plataforman existentzia: Coopcycle en kasua, edo Ekhilur-en ordainketa sistema propioa, kasu.

Bigarren mailako gakoak proiektuen egonkortze edo kontsolidazioan finkatu izan dira, hurrenez hurren: askitasun ekonomikoa, prezio politika eta ordaindu gabeko lan komunitarioa, hiruak elkarri lotuta.

Lehenak adierazi nahi luke egitasmoen nahitaezko merkatu orientazioa: produktu/zerbitzuen salmentagatiko diru sarrerek estali behar lukete egitasmoen kostu finkoen zatia, nagusiki lan taldearen soldata ordainketei dagokiona. Egitasmo autonomoak izateari (edo izan nahi izateari) ematen zaio garrantzia handia, herri erakundeekiko edo banketxeekiko mendekotasun egoera oro gaindituz. Proiektuek beren hastapen fasean lan boluntario edo laguntza publikoen aukera baztertzen ez duten bezala, horiek gainditu beharreko finantzazio baliabide gisa hautematen dira proiektuen iraunkortasuna bermatzeko.

Autonomian sakontzeko, zenbait sektoretan berebiziko tentua jarri behar zaio prezio politikari, emandako zerbitzuaren orduko tarifa ondo kalkulatzuz edo egindako bitartekaritza edo merkaturatze zerbitzuetan (elikaduran, banakuntzan, argindar horniduran) aplikaturiko marjina egoki ezarriz. Azken honetan, elikadura zein banaketa zerbitzuetan marjinak jakinak eta adostuak dira, kontsumitzaileei produktua arrazoizko prezioetan eskaini eta ekoizleei soldata duinak ordaindu ahal izateko marjinak bilatuz, nahiz eta horiek moldagarriak izan egoera eta produktu ezberdinetara. Ekhilur zein Ekiherriren kasuetan, prezio lehiakorragoetan aritu ahal izatearen pizgarria batzen zaio

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

aurrekoari. Zaintza lanen kasuan, kontrara, orduko tarifa ezinbestean prezio ez lehiakorretan eskaini beharra asumitzen da, eta hortaz, herritar erabiltzaileak bestelako balorizazio neurriekin jardun dezaten landu behar da (zerbitzuaren kalitatea, egitasmoaren onura soziala, etab.).

Azken buruan, egitasmo guzti guztien iraunkortasun ekonomikoan berebiziko pisua hartzen du borondatezko lan komunitarioak edo (ordaindu gabeko) lan boluntarioak, bai hastapenetan eta baita proiektu askoren garapenean ere. Kasu batzuetan egitasmoaren kudeaketa eta eguneroko funtzio operatiboak beregain hartzen dituzte kide kontsumitzaile (Ekiherri) edo laguntzaileek (Maitelan). Lantaldeak trakzio gaitasun handiagoa agertzen duen kasuetan ere, eskuz esku dihardute askotan “talde motor” gisa izendaturiko bazkide erabiltzaile edo laguntzaile kopuru murriztu batekin (6-8 pertsona elikadura egitasmoetan) edo bazkide aktibo kopuru handiago batekin (100 pertsona, AEFren kasuan).

1.2. Barne komunitatearen ezaugarri gakoak

Jabego komunitario eta gobernantza komunalaren bitartez kudeaturiko egitasmoen kasuan, lehen ezaugarria litzateke proiektuen izaera irekia, gutxienik bi zentzutan: borondatezko atxikipen libreko formula kooperatiba gisa diseinatzea, inor aurretiaz diskriminatzeko baldintzarik gabe, alde batetik; eta kasu askotan kide izan gabe ere kooperatibak emandako zerbitzuen erabiltzaile izateko aukera herritar orori irekia izatea, beste aldetik. Azken ezaugarri hau aztertutako elikadura egitasmo guztietan eta zaintza zerbitzuetan ere honela ematen da, eta beste egitasmo batzuetan irekidura hori modu mugatuagoan ematen da: energi komunitateen kasuan, pertsona zaurgarriei gorderiko %5eko kuota salbu gainerako kontsumitzaileak bazkideak lirateke, eta Ekhilur ordainketa sistemaren kasuan ere, erabiltzaile batzuen kidezte kuota udalak ordaintzen duen salbuespenak kenduta, gainerako denak kooperatibako bazkideak lirateke.

Nolanahi ere kasu guztietan interes mutuala eta interes orokorra uztartzeko gai diren egitasmoez dihardugu, esperientzia guzti guztiek sektore estrategikoetan planteaturiko burujabetza formulen bitartez herritarrak ahalduntzea eta (zaintza, elikadura, energia,

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

gertuko kontsumo) eskubidedun bilakatzea baita bokazioa. Egitasmo askok jotzen duten “zubigintza” funtzio honetan, ekoizle-langileen eskubideak herritar-kontsumitzaileen eskubideen eskutik aldi berean garatzea bilatzen da.

Eragile anitzeko gobernantza eskema horietan, egitasmo kooperatiboaren formalizazioak hiru eredu nagusi hartzen ditu: lan elkartuko kooperatibak, kontsumo kooperatibak eta kooperatiba integralak (edo herri kooperatibak). Edozein delarik hautaturiko formula, kooperatiba guztietan dago aukera jarduera kooperatibizatuan diharduten lan edo kontsumo bazkideez gain bestelako bazkide mota fisiko eta juridikoak ere txertatzeko, bazkide laguntzaile figuraren bitartez nagusiki. Eragile bakoitzaren kidetze moduak ezberdinak dira kooperatiba mota bakoitzean, baita horien arteko orekak erabakimenari dagokionean ere, lan honen analisi juridikoan xehatzen den moduan.

Nolanahi ere, formula kooperatiboak eskaintzen duen malgutasun eta egokitze gaitasuna nabarmentzen da, kasuan kasu bazkide mota bakoitzari pisu eta garrantzia ezberdina eman baitakioke: Maitelan eta Bakaikuarrok biak kooperatiba integralak izanik, oso ezberdina da horietako bakoitzaren ernamuinean lan bazkide, erabiltzaile eta laguntzaileek izaniko esangura: lehen a gailentzen da lehen kasuan, eta bigarrenea bigarreanean. Ereindajanen eta Eramankoopen kasuan berriz, lan elkartuko kooperatibak izateak erantzuten dio egitasmoa lan talde baten bizi proiektu gisa sustatu izanari, baina horietako bakoitzean bazkide erabiltzaileen txertatze maila oso ezberdina da: (erdi mailako lehen kasuan, hutsaren hurrenea bigarreanean. Ekhillur eta Ekiherri biak ala biak kontsumo kooperatibak diren are, lehen kasuan langileena litzateke gidaritza eta kontsumitzaileena bigarreanean. AEF, azkenik, kontsumo kooperatiba integral gisa, bi kolektiboen eskuz eskuko lanean oinarritu izan da, erabiltzaileen engaiamendua mantentzeko zailtasunak izan badituzten arren.

Barne komunitatearen artikulazio moduak beraz nahieran molda litezke egitasmo bakoitzaren “barne geruza” (edo gidaritza espazioak) eta “kanpo geruzak” (edo laguntza espazioak) ezberdinak izanagatik. Proiektua lan taldeak gidatzen badu, lana bada aipaturiko “barne geruza”, lan elkartuko kooperatiba forma hartzea da ohikoena, nahiz

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

eta bestelako kidego motak (erabiltzaile zein laguntzaile) ere barnebildu litezkeen bertan. Lana eta kontsumoa biak badira "barne geruzak", kooperatiba integralak eskaini lezake egitura egokia, nahiz eta Maitelaren kasuan agerikoak izan bazkide erabiltzaileentzat dauden kideitzeko pizgarri faltak, bazkide kooperatzaile izateak BEZetik salbuestea eragozten baitie. Azkenik, kontsumoa bada "barne geruza" nagusia, energia komunitate edo Ekilur-en kasuan bezalaxe, kontsumo kooperatibak gidatu lezake egitasmoa, bestelako kide laguntzaileei aterik itxi gabe.

Bestelako kideitze moduei dagokionean, azkenik, besteren kontura diharduten langileen kasuan egitasmo guztietan agertzen dira jasota estatutu zein barne araudietan langile horiek kideitzeko gehienezko epeak (6, 12, 24 hilabete) eta prozedurak, kasu batzuetan zuzenean lan-bazkide egiteko proposamena luzatuz, edo behin behineko lan-bazkide formulari helduaz bestetan. Azkenik, lan boluntarioik ez da existitzen mozkinaz besteko erakundeen ereduak (elkarte zein fundazioetako boluntarioak), horiek kooperatiban kideitzeko formulak hobesten baitira, nagusiki bazkide laguntzaile figuratik tiraz.

Barne komunitate honen komunikazio, parte hartze eta zaintza estrategiei dagokienean eredu garatuagoak eta sinpleagoak ageri dira: lehen kasuan Barne Araudiaren tresna baliatu izan da, xehe xehe jasotzeko lanpostuen banaketari, lanaren antolaketa sozial eta produktiboari, parte hartzea eta gardentasun praktikei edota lan baldintzei loturiko hainbat eta hainbat adosturiko politika edo jokamolde. Barne Araudiaren presentzia ikusten da oinarri sozialean tamaina jakin bat gainditua duten kasuetan (AEF kasu) baina baita eskala jauzia emateko puntuak dauden beste egitasmo batzuetan ere (Ereindajan kasu) langile berrien harrera prozesuetan proiektuaren transmisiorako lagungarri izan daitekeela iritzita. Oinarri sozial mugatuagoa duten kooperatiben kasuetan, Estatutu Sozialen bitartez arautzen dira bazkideen eskubide eta betebeharrak, kooperatibaren organo sozialei eta erregimen ekonomikoari dagozkion oinarri oinarritzko erabakiak.

1.3. Lurralde txertatzearen ezaugarri gakoak

Azterturiko egitasmoek, oro har, barne komunitateari dagokionean artikulazio maila handia eta eredu aniztasuna agertzen badute ere, ezberdina da horiek kanpo eragileekiko agertzen duten eragite gaitasuna. Egonkortze mailarik apalena agertzen duten egitasmoetan lurraldean txertatzeko gaitasun mugatua dutela ematen dute aditzera, denbora eta pertsonarik ez baitute lurraldeko ehun komunitario, ekonomiko eta publikoan behar bezala eragiteko. Beste egitasmo batzuetarako ordea, egitasmoaren arrakasta jokatzen da lurralde inplantazio maila horretan (konsumo kooperatiben kasuan) eta beraz garrantzia berezia hartzen du lurraldean behar bezala txertatzearen aferak.

Argazki orokoa bat emate aldera, esan liteke oro har azterturiko egitasmoek zailtasun handiak dituztela lurraldeko enpresa sare edo ehun ekonomikoan txertatze maila handia lortzeko, eta gehien garatu diren estrategiak direla lankidetzak publiko-komunitarioen esparrua, ESEren baitako sare sektorialen existentzia, eta herri mugimenduekiko elkarlana.

Lehen erpinari dagokionean, kasuen dokumentazioan agerian utzi da zenbait egitasmoren abiatze eta egonkortze aldietan laguntza publikoaren bultzadak berebiziko garrantzia izan duela. Hala aitortua izan da esplizituki Maitelan, Ekhilur eta Bakaikuarrok kasuetan. Beste lau esperientziek autonomia handiagoz garatu ahal (edo behar) izan dute beren egitasmoa, baina inork ez du ukatzen lankidetzak publiko-komunitarioko mekanismoekiko interesa. Lankidetzak formula horien artean gero eta presentzia handiagoa dute Mahai Sektorialek (Zaintza Mahaia, Moneta Mahaia, Elikadura Mahaia, Energia Mahaia, etab.) edota Sustapen Bulegoak (energiaren kasuan) bezalako formulek.

Tokiko mailako erakundetze eredu berri baten aurrean geundeko, espazio horietan erraztu nahi izaten baitira gai konkretuen inguruan interesa luketen eragile ekonomiko, komunitario eta publiko ezberdinak, horietatik lan ildo eta proiektu konkretuak garatu

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

ahal izateko, kasuz kasu dokumentatu den gisan. Erreferentzialtasun garrantzitsua irabazia du, zentzu honetan, Hernaniko udalak abiatutako "Hernani Burujabe" tokiko garapen estrategiak, aztertutako bi kasu (Maitelan eta Ekhilur) marko honetan kokatzen dira, horien hedapenerako lankidetzak esparru gakoa izan da berau, eta modu argian aitortzen zaio garapen estrategietan ikuspegi komunitarioa sakonki txertatu izana (Arrillaga eta Etxezarreta, 2022; Morandeira, Etxezarreta eta Egia, 2023).

Bigarren lankidetzak esparru garrantzitsuenak ESEko sareek, orokor zein sektorialeak eskaintzen dutena litzateke. Elikaduraren eta energiaren gaian lurraldean zehar barreiatutako esperientzien saretze maila garrantzitsua existitzen da, bakoitza bere tokiko berezitasun partikularrei egokitua agertu arren, oinarritzko elementu komun partekatutakoak bistakoak direlarik. Zaintza edo plataforma kooperatibismoa esperientzia komunitarioak aldiz hedapen mugatuagoa agertzen dute berton, eta kasu askotan Euskal Herriak kanpoko eredu edo plataformekin elkarlanean garatu behar izan dira. Azkenik, Olatukoop ESEko sare nagusia funtsezko lankidetzak eremua da harreman uni zein multi-sektorialak ahalbidetzeko: Bakaikuarrok proiektuak Izarkom eta Goiener egitasmoetan txertatuta egotea edo AEF-k garaturiko lan ildo ezberdinak nekez ulertu litezke horiek Olatukoopeko kide izan ez balira.

ESEko sareez aparte badira bestelako herri mugimendu edo elkartegintza esperientziekin eskuz esku diharduten egitasmoak ere, AEF izanik kasurik adierazgarriena (elkarte feminista, euskaltzale, zein elikadura burujabetzako ekimenekin lotura estua dute) baina baita elikadura esparruan diharduten ekimenak ere.

Azkenik, hasieran aipatu bezala, nekezagoa suertatzen da egitasmo komunitario hauen saretze enpresariala lurraldeko ehun ekonomikoarekin. Bereziki nabarmentzekoa da hau Ekhilur bezalako proiektuetan, egitasmoaren egonkortasunerako gako nagusia hortxe kokatzen baita, lurralde komertzio txikien inplikazio eta parte hartzean, hain zuzen ere. Oro har aztertutako egitasmo guztiek lehenesten dute ekoizle edo hornitzaileen hautaketa tokiko eragileekin egitea, eta zenbait kasuetan lankidetzak hori maila organikoan ematen bada ere (Ereindajan kasuan) oso esperientzia gutxi lortzen

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailetza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisisa*

dute inplantazio edo saretze maila esanguratsu bat tokiko ehun ekonomikoan. Eta behar beharrezkoa dute, esaterako energia komunitateen kasuan estalpe pribatuetara irispidea izateko, edo ordainketa sistemaren kasuan tokiko komertzio sare gutxieneko bat izateko, ehun ekonomikoan eragiteko gaitasuna irabaztea.

2. Azterturiko esperientzien erreplikarako gakoak

Orain arte burututiko ezaugarritze lanetik esperientzien arrakastarako hainbat eta hainbat gako eratortzen badira ere, eginiko ikerketan esperientzia bakoitzari beren beregi galdetu zaio egitasmoa beste herri/eskualde batean martxan jarri behar balitz bereziki zaindu beharreko hiru gako nagusiak lehenesteko ariketa egitea. Ariketa honen bitartez nolabaiteko hurrenkera bat erdietsi nahi izan da, mota honetako egitasmoek nonahi arrakasta izan dezaten lehentasunez landu beharreko gakoetan hobeki erreparatzeko. Jarraian landu dugun taulan bildu eta ordenatu ditugu diagnostiko guztietan agertuko gako guztiak, horietako bakoitzari beharrezko azalpen eta zehaztapenak gehituz.

Sintesi taula (II): Esperientzien erreplikarako gakoak

Gako orokorrak	Zehaztapenak
IZAERA KOLEKTIBO-KOMUNITARIOA	
Barne geruza: lan taldea	Lan ekimen gisa diseinatzea, bizi proiektuak Lidergo sendoak: pertsonalak eta kolektiboak Lan talde kohesionatua: konfiantza, autonomia, aniztasunari errespetua, inpiikazioa
Kanpo geruzak: erabiltzaileak eta laguntzaileak	Bigarren mailako eragite esparruak Erabiltzaileen parte hartzearen modulazioa Laguntzaileekiko mendekotasunak
BALDINTZAPEN EKONOMIKOAK	
Gutxieneko masa kritikoa	Eskala geografikoaren auzia Gutxieneko ekoizpen-kontsumo maila
Zerbitzuen dibertsifikazioa	Arrisku-sarrerren dibertsifikazioa Lurralde beharrianei erantzuteko bokazioa: proiektugintza
Gaitasun teknikoa	Plataforma teknologikoak Know how sektoriala (energia)
Askatasun ekonomikoa	Diru sarrerren egitura egokia Laguntza publikoarekiko eztabaida
LURRALDE TXERTATZE MAILA	
Lurralde beharrian jendarteratze maila	Beharrian objektiboa vs atzemandakoa Aukera leihoak
ESE inter-kooperazioa	Inter-kooperazio horizontal uni-sektoriala Inter-kooperazio horizontal multi-sektoriala Interkooperazio bertikala

Iturria: geuk egina

2.1. Izaera kolektibo komunitarioa

Gako komunitarioei dagokienean, komunitatearen baitako geruza ezberdinen gaineko gogoeta agertuko litzateke berriz, nahiko maila partekatuan gainera. Bi ideia osagarriren formulaziotik letorke gako hau:

- Egitasmo komunitarioen arrakasta soilik komunitatearen parte hartzeak ahalbidetzen du, kasu askotan egitasmoa abiarazteko gutxieneko oinarri sozial bat ehundu beharra dagoelako, eta gainera, egitasmoaren egonkortzean berebiziko funtzio ekonomiko eta operatiboa jokatzeko duelako. Egitasmo askoren sostengu herritar gisa diharduten “talde motor” edo “komunitate militante” horien ekarpena funtsezkoa da kasu askotan.
- Komunitatearen parte hartze honetan, ordea, berebizikoa da gidaritza funtzioak lan bazkideen lidergopean egitea. Bestela esanda, egitasmo horien egonkortasuna nekezagoa bilakatzen da horiek lan talde baten bizi proiektu gisa garatzen ez badira. Kontsumitzaileek gidaturiko esperientzia komunitarioek zailtasun handiagoak dituzte. Aldiz, lan bazkideek euren bizi proiektuak lotzen badituzte egitasmo komunitarioa, inplikazio komunitarioari eusteko oinarri egokiagoa ezartzen da.

Hondo hondoan, Komunitatea eta Kooperatibaren arteko txertatze mailaren auzia legoke gako honen atzean, zeina ez baita Kontsumo eta Ekoizpen kooperatibismoaren arteko eztabaida klasikoaren birformulazio garaikidea baino (Ortega, 2021). Lan bazkideek gidaturiko esperientziak izateak eusten ditu egitasmo komunitarioak, eta beraz, hor garrantzia berezia hartzen du lidergoaren gaiak, lidergo pertsonal zein kolektiboarenak, lidergo horiek ahalbidetu baitezakete edozein lan taldek beharrezko duen kohesioa, pertsona guztien aniztasunaren aitortza eta engaiamendu partekatutik datorrena.

Lan talde prestatu eta kohesionatuak tiratzen duen egitasmoan errazago txertatzen dira bestelako kide komunitarioak, erabiltzaile zein laguntzaileak. Esperientzi batzuek agertzen dute erabiltzaileen aldetik konpromiso eta parte hartze maila altu bat, proiektua bideragarri egiten duena. Beste kasu batzuetan, ordea, agerian geratzen da

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

horien inplikazio jarraitu eta egituratua mantentzeko zailtasunaren gaia. Erabiltzaileen parte hartzearen "gainbalorazioaz" ere hitz egin da kasuren batean, horiek kooperatibak emandako zerbitzuen erabiltzaile izateaz gain, kooperatibaren eguneroko bizitzan izan behar luketen parte hartzeari buruzko espektatibak doitu beharra mahai gaineratzen duena.

Bazkide laguntzaileena ere funtsezko figura bat da komunitatearen txertatzea organikoki kanalizatzeko, lan boluntarioaren eredu klasikoari bestelako garabide bat emanez. Figura horrek errazten du kooperatibizatutako jardueran zuzenki parte hartzen ez duten eragile interesdunen (fisiko zein juridikoen) parte hartzea formalizatzea, errotze komunitarioari artikulazio maila organiko bat emanez. Eragile horiekiko, ordea, ager litezke desiragarriak ez diren mendekotasun harremanak ere, langileen autonomiaren kaltetan doazenak, proiektuaren askitasun ekonomikoa auzitan jartzearaino. Hemen ere oreka osasuntsua bilatzea litzateke gakoa, txertatze komunitarioaren sakontze maila eta egitasmoen autonomiaren bermearen artean.

2.2. Baldintzapen ekonomikoak

Egitasmo komunitarioen bideragarritasun ekonomikoa, merkatu eragile ere badiren neurrian, ez da askorik ezberdintzen bestelako ohiko merkatu eragileekiko. Mahai gainean jarritako lau gako nagusiek edozein enpresa eredu dagokion merkatuan lehiakor izateko gainditu beharreko baldintzapen bertsuak lirarteke: gutxieneko masa kritikoa, hori ahalbidetzen duen zerbitzuen dibertsifikazioa, gaitasun teknikoa eta askitasun ekonomikoa.

Masa kritiko gutxieneko bat behar du edozein negoziok eutsi dadin, kasu honetan, gutxieneko maila horren langa ezberdina izan daitekeen arren: egitasmo batzuek 500 bazkide erabiltzaileren bueltan tamaina nahikoa lukete bizirauteko, eta beste batzuk aldiz bestelako diru sarrerak bilatu beharrean aurkitzen dira komunitateari eusteko. Halatsu agertzen da AEFren kasua, zeinak komunikazio agentzia bezala fakturatzen baitu bestelako lan ildoak garatu ahal izateko gutxienekoa, edo Maitelaren esperientzia, zeinak zerbitzuen dibertsifikatzeko estrategian kokatzen baitu

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

komunitatearen sendotzea. Lehen bi aldagaiak, hortaz, elkarri loturik agertzen dira: egitasmo orok behar du gutxieneko oinarri sozial bat proiektua bideragarri egiteko, baina aldi berean, zerbitzuen dibertsifikaziotik soilik lor litezke komunitate horri eusteko gutxieneko diru iturriak.

Eskainitako zerbitzuen hedapen eta dibertsifikaziorako gaitasun tekniko nahikoa duten profilen beharrez nabarmentzen da kasu asko eta askotan. Esaterako, plaka fotovoltaiaren instalazio berrien bilaketarako adituen beharra, ordaintza sistema komertzio guztietara hedatzeko lan komertzialaren beharra, intseztio sozio-laboraleko formulen bidez eskaini litezkeen zerbitzu berrien analisirako edo banakuntzarako plataforma teknologikoaren garapenerako adituen beharra...jaso izan dira azterlan honetan profil tekniko espezifikoaren adibide modura. Sektore bakoitzak agertuko ditu bere espezializazio beharrei egokituriko pertsona prestatuen beharrak.

Azkenik, askatasun ekonomikoa eta laguntza publikoekiko mendekotasunik ezaren gaia jorratua izan da aurreko atalean, lankidetzak publiko-komunitarioko espazio eta erakundetze eredu berrien atalean.

2.3. Lurralde txertatze maila

Atal honetarako ezaugarri gakoetan elkarlan publiko eta kooperatiboaz esandakoak ez errepikatze aldera, gehituko genuke azken gogoeta bat: lurraldearen beharrezko trantsizio sozio-ekologiko justuaren ikuspegitik objektiboki identifikatuak egon arren, garrantzitsua da beharrezko horren gainean dagoen jendarte pertzepzio edo hautemate maila ere kontuan izatea, aktibazio komunitariorako palanka bezala.

Agerian geratu da izaniko elkarriketa guztietan, aldeko faktoretzat jo izana planteatzen diren alternatibak gizarte kuestionamendu bete betean dauden sektoreetan jaio izana.

Mugikortasuna, zaintza, elikadura, energia, tokiko merkataritza...agenda publikoaren erdigunean diren gaiak dira, bestelako gizarte antolamendu motak eskatzen ari direnak,

*Komunitate eraldatzaileak ehuntzen:
ekintzailatza sozial kooperatibo estrategikoen erreplikarako baldintzen analisia*

eta puntu honetan landuriko ESEko esperientziek erreferentzialtasun argia dute, aitzindariak diren neurrian.

Alabaina beharizan batzuen gaineko kontzientzia gaur egun handiagoa dela energiaren edo zaintzaren esparruan esaterako, elikaduraren, mugikortasunaren edo plataforma kapitalismoaren inguruan baino. Jendartearen kontzientzia handiagoak aukera leio gisa ikusten dira sektore horietan gara litezkeen alternatiba herritarrek atxikipen maila errazagoa izan dezaten. Beste sektore batzuetan, ordea, egitasmoa bideragarri egitearen beharrezkoa lanketa izaten jarraitzen du intzidentzia politikoa egiteak.

Erreferentzia bibliografikoak

Arrillaga, P. eta Etxezarreta, E. (2022): "Mercados sociales e intercooperación en la Economía Social y Solidaria como vía para recuperar soberanías: El caso del Mercado Social de Euskadi", CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa, 105, 263-288. DOI: 10.7203/CIRIEC-E.105.18976.

Etxezarreta, E. eta Bengoetxea, A. (2024): Herri Kooperatibak: helduleku teorikoak eta bideragarritasun juridikoa Euskal Herrian, <https://meta.koopfabrika.eus/s/tyFmsxZz86WLEct>.

Morandeira, J; Etxezarreta, E. eta Egia, A. (2023). "El papel de la economía social en el nuevo contexto de políticas locales transformadoras el caso de Hernani Burujabe", Revista Prisma Social, 42:83-114.

Ortega, I. (2022): La Contribución de los Fundadores del Cooperativismo de Mondragón al Pensamiento Cooperativo. Doktorego Tesia, MU.